

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

DOKTOREGO-TESIA

IRAKURKETA ZAILTASUNEI AURREA HARTZEKO SOFTWARE DIDAKTIKO BATEN DISEINUA ETA EBALUAZIOA

— *Ainara Romero Andonegi* —

ZUZENDARIAK:
CARLOS CASTAÑO GARRIDO
MARGARITA CÓRDOBA PÉREZ

LEIOA, 2015

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

DOKTOREGO-TESIA

**IRAKURKETA ZAILTASUNEI AURREA
HARTZEKO SOFTWARE DIDAKTIKO BATEN
DISEINUA ETA EBALUAZIOA**

Ainara Romero Andonegi

Zuzendariak;

Carlos Castaño Garrido

Margarita Córdoba Pérez

Leioa, 2015

Esker onak

Hurrengoko lerroen bitartez lan hau burutzen lagundu didaten pertsona guztiak eskertu nahi ditut.

Lehenengo eta behin, proiektu honetan parte hartu duten irakasle eta ikasle guztiei nire eskerrik zintzuenak eman nahi dizkiet. Buru-belarri sartu ziren hain arrotza egiten zitzairen ikerketa batetan eta andereñoek baino ez daukaten pazientzia guztia erakutsi zidaten informatikak bereak egiten hasi zenean.

A mis directores de tesis, Carlos Castaño y Margarita Córdoba. Sois vosotros los que habéis puesto rumbo a mi nuevo recorrido como investigadora. Batez ere, mila esker zuri Carlos, idazten duen bekaria eta laguntzaile honengatik apustua egin zenuen eta. Tesiko kapitulu hau hemen zarratu arren, zugandik ikasten jarraituko dudala ziur nago.

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Errektoreordetzari nire esker ona eman nahi diot ere. Bere bekari esker proiektu hau gauzatzea ahalbideratu dutelako baina batez ere, ikerlariok euskaraz iker dezakegun erronka aurrera eramateko konpromisoa hartu dutelako.

Nire ikerketa taldeari, Carlos Castaño gidatuta Inmaculada Maiz, Urtza Garai, Eneko Tejada eta Arantzazu Lopez ikerlariari. Eskerrak eman behar dizkizuet nik tesia bukatu ahal izateko proiektuetako lan gehiena egiten aritu zaretelako. Orain esan behar dizuet bukatu dudala eta kontua ordaintzeko prest nagoela.

Ezin ahaztu ditzaket ikerketa hau egin ahal izateko laguntza eskaini didaten beste pertsonak. David Herrero, estatistika kontuak eta SPSSak sortarazi dizkidan kezkak argitzeko beti prest egon zarelako. Jokogako Josu Cobelori, Berni zabaltzeko aukera eman didazulako. Alazne Billelabeitia ikasle ohiari, eskuz esku ikasle guztiak ebaluatu ditugulako, ez dakit zu gabe oraindik testak pasatzen jarraituko banituen. Azkenik, Ekaitz Goienetxeari, nire Community Manager.

A mis padres; Aita aprendí a ser constante, paciente y trabajadora gracias a tí. Seguro que te gustaría saber que tus largas campañas en alta mar sirvieron para que hoy esté donde estoy. Ama sin tu apoyo y tu insistencia en que luchemos por nuestras metas hoy seguiría haciendo kilómetros de colegio en colegio.

A mi hermano Asier mila mila esker. Has sido, eres y seguirás siendo un referente a seguir. Eres parte de lo que logro.

Zeuretzako Unai ez dakot berbarik esateko zenbat eskertuten tsuten bide grabeharatsu honetan emon dostazuzen animuek eta laguntziñue.

Neure onduen egon zara negar, barre, haserre eta pozazko montaña-rusa honetan.

Lan hau zeuretzako da Mikeltxu. Zeuk emon dostazu lan hau amaitzeko injarra. Zeure negarrak ta barriek entzuten momentuero gogoratu dostazu ikerketa hau amaitu behar dotela sikeran zeugaz geidxau disfrutatzeke.

EDUKIEN AURKIBIDEA	
Sarrera	15
I. Kapitulua. IRAKURKETA	21
1. Irakurketan parte hartzen duten prozesuak	23
1.1. Hautemate prozesuak edo hitzen identifikazioa	23
1.2. Prozesu lexikoak edo hitzen ezagutza	24
1.3. Prozesu sintaktikoak	34
1.4. Prozesu semantikoak	35
2. Irakurketaz jabetzeko aldez aurreko baldintza kognitiboak	36
2.1. Prozesatze fonologikoa	40
2.2. Izendatze automatiko arina	41
2.3. Hizkien ezagutza eta identifikazioa	42
2.4. Mintzamenaren kontzientzia	42
2.5. Oroimena eta arreta	43
2.6. Ingurugiroko aldagaiak	44
3. Irakurketa prozesuaren etapak	45
3.1. Fase aurre-alfabetikoa	46
3.2. Fase partzialki alfabetikoa	46
3.3. Fase guztiz alfabetikoa	46
3.4. Fase alfabetiko finkatua	47
4. Irakurketaren ikaskuntza-irakaskuntza metodoak	48
II. Kapitulua. DISLEXIA	51
5. Zer da Dislexia edo Irakurketa Ikaskuntza Zailtasuna?	53
5.1. Dislexiaren historia	53
5.2. Dislexiaren definizioa	54
5.3. Dislexia motak	57
5.4. Prebalentzia	60
6. Dislexia duten haurren ezaugarriak	61
6.1. Nahasmendu neurobiologikoak	61
6.2. Nahasmendu kognitiboak	62
6.3. Portaeraren nahasmenduak	63

7.	Irakurketa zailtasunak aurkezteko arrisku faktoreak	65
8.	Dislexia azaltzen duten hipotesiak eta teoriak	68
8.1.	Defizit espezifikokoan oinarritutako teoriak	68
8.1.1.	Nahaste fonologikoaren hipotesia	68
8.1.2.	Prozesatze abiaduraren nahaste hipotesia	69
8.1.3.	Defizit bikoitzaren hipotesia	70
8.2.	Defizit orokorrean oinarritutako teoriak	71
8.2.1.	Zentzumeneren defizita	71
8.2.2.	Defizit zerebelarra	72
8.3.	Hipotesi genetikoak	74
9.	Ikaskuntza zailtasunen esku-hartzea	76
9.1.	Ikaskuntza zailtasunen esku-hartzea eredu ezberdinen arabera	76
9.1.1.	Ikaskuntza zailtasunen esku-hartzea Prozesuen ereduaren arabera	76
9.1.2.	Ikaskuntza zailtasunen esku-hartzea Eredu Konduktualaren arabera	77
9.1.3.	Ikaskuntza zailtasunen esku-hartzea Eredu Kognitiboaren arabera	77
9.2.	Irakurketa zailtasunen esku-hartzea	77
9.2.1.	Prozesu ezberdinen esku-hartzea	78
9.2.2.	Esku-hartze lasterra	81
9.2.2.1.	Erantzunean oinarritutako esku- hartzea	82
III.	Kapitulua. TEKNOLOGIA BARRIAK ETA IRAKURKETA ZAILTASUNAK	85
10.	Teknologi Berrien integrazioa curriculumean	87
10.1.	Teknologi Berriak hezkuntzan integratzeko aurrera eraman diren hezkuntza politiken bilakaera	87
10.2.	IKTak hezkuntza prozesuaren baliabide didaktikoak	89

10.2.1. Hezkuntza softwarea	91
10.2.2. Egile-tresnak	94
10.3. Irakasleen papera IKTen integrazioan	95
11. Teknologi Berriak Haur Hezkuntzan	98
11.1. IKTen papera Haur Hezkuntzan	98
11.2. Euskal Autonomi Erkidegoko HH Curriculumuma eta Gaitasun Teknologikoa	99
12. Teknologi Berriak eta Dibertsitatea	103
12.1. IKTak hezkuntza berdintasunean eta ekitatean	103
12.2. IKTak eta Erabilerraztasuna	105
13. Teknologi Berriak Irakurketa Zailtasunen esku-hartzean	107
13.1. Dislexia duten pertsonentzat lagungarri diren Softwareak	108
13.2. Dislexia duten pertsonentzat lagungarri diren Hardwareak	111
13.3. Irakurketa-idazketa zailtasunak esku-hartzeko estatu mailako programak	112
13.3.1. Cognitiva PT	112
13.3.2. Tradislexia eta Sicole-R	113
13.3.3. Pizarra Dinámica de Lecto-Escritura	114
13.3.4. DiTres	114
13.3.5. Dysegxia	115
13.3.6. Adapro	115
13.3.7. Binding	116
13.3.8. Katamotz	116
IV. Kapitulua. IKERKETA ESPERIMENTALA	121
14. Arazoaren planteamendua	123
15. Helburuak eta hipotesiak	127
16. Metodoa	132
16.1. Lagina	132
16.2. Tresnak	136

16.2.1. Cattell-en g faktorea	136
16.2.2. AHAIE	136
16.2.3. BIL 3-6	139
16.2.4. DEST-2	141
16.3. Berni softwarea	145
16.3.1. Berni softwarearen diseinua	145
16.3.2. Berni softwarearen ezaugarriak	151
16.3.3. Berni programaren egitura eta funtzionamendua	152
16.3.4. Berni-ren online bertsioa	160
16.4. Aldagaiak	165
16.4.1. Irakurketa zailtasunen zeinu lasterrak	165
16.4.2. Aurre-irakurketa abileziak	171
16.5. Prozedura	174
17. Ikerketa esperimentaleko emaitzak	179
17.1. Dislexiaren zeinu lasterren tratamenduaren aurre eta ondorengo emaitzen analisia	181
17.1.1. Emaitzen analisia Kontzientzia Fonologikoan	182
17.1.2. Kontzientzia alfabetikoaren emaitzen analisia	186
17.1.3. Hitzezko Oroimenaren emaitzen analisia	187
17.1.4. Hartze hizkuntzaren emaitzen analisia	190
17.1.5. Idatzitako Kontzientziaren emaitzen analisia	192
17.2. Aurre-irakurketaren abilezien entrenamenduaren aurre eta ondorengo emaitzen analisia	194
17.3. Ikertutako populazioaren esku-hartze aurreko neurrien emaitzen analisia	199
V. Kapituluua. EZTABAIDA	203
VI. Kapituluua. ONDORIOAK	221

VII.	Kapitulua. MUGAPENAK ETA PROSPEKTIBAK	233
VIII.	Kapitulua. BIBLIOGRAFIA	239
IX.	Kapitulua. ERANSKINAK	275
	Eranskina 1. "g" faktorearen testaren moldapena	277
	Eranskina 2. Ahozko hizkuntza eta alfabetatzerako irakasleen ebaluazioa (AHAIE) froga, TROLL frogaren moldapena	281
	Eranskina 3. BIL 3-5 eta DEST-2 testen eskuliburua, moldatua	295
	Eranskina 4. BIL 3-5 eta DEST-2 testen eranskinen koadernoa, moldatua	311
	Eranskina 5. BIL 3-5 eta DEST-2 testen erantzunen orria, moldatua	333
	Eranskina 6. Gurasoentzako baimen-eskutitza	351
	Eranskina 7. Berni programaren gida	353
	Eranskina 8. Berni programa amaitu izanaren diploma	369

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1. Bide bisual-fonologikoa eta eredu dualeko bideen arteko konparaketa	33
Taula 2. Ikerketa ezberdinen arabera, irakurketaren hasierako garapenarekin erlazionatzen diren oinarrizko abileziak	37
Taula 3. Dislexia motak autore ezberdinen arabera	59
Taula 4. IKTak integratzeko irakasleek behar dituzten gaitasunak	95
Taula 5. Dislexia duten haurrei zuzendutako softwareak	109
Taula 6. Irakurketa-idazketa zailtasunak esku-hartzeko estatu mailako programen konparaketa	118
Taula 7. Berni softwarean lantzen diren edukiak eta helburuak	129
Taula 8. Ikerketan erabili diren DEST-2 eta BIL 3-5 testen azpi-frogak	134
Taula 9. Cattell-en "g" faktorearen frogan lortutako emaitzak	135
Taula 10. Laginaren banaketa	135
Taula 11. BIL froga osatzen duten azpi-frogak	140
Taula 12. DEST-2 osatzen duten azpi-frogak	142
Taula 13. Ikerketan erabilitako BIL eta DEST testen azpi-frogak	144
Taula 14. Berni softwarean landuko diren jarduerak maila bakoitzean	149
Taula 15. Berni jokoaren irudien ezaugarriak	159
Taula 16. Irakurketa zailtasunen zeinu lasterren operazionalizazioa	168
Taula 17. Aurre-irakurketa abilezien operazionalizazioa	172
Taula 18. Aurre-dislexia aldagaiak ebaluatzeko erabilitako azpi-frogak	182
Taula 19. Kontzientzia Fonologikoaren aldagaiaren dimentsioen emaitzen analisisa	183
Taula 20. TE, KT1 eta KT2 taldeen pertzentilen konparaketa Kontzientzia fonologiko aldagaiaren dimentsioetan aurre eta test-ondorengoan	185
Taula 21. Kontzientzia Alfabetikoaren aldagaiaren dimentsioen emaitzen analisisa	186

Taula 22. TE, KT1 eta KT2 taldeen pertzentilen konparaketa Kontzientzia alfabetiko aldagaiaren dimentsioetan aurre eta test-ondorengoan	187
Taula 23. Hitzezko Oroimenaren aldagaiaren dimentsioen emaitzen analisia	188
Taula 24. TE, KT1 eta KT2 taldeen pertzentilen konparaketa Hitzezko Oroimena aldagaiaren dimentsioetan aurre eta test-ondorengoan	190
Taula 25. Hartze hizkuntza aldagaiaren dimentsioen emaitzen analisia	191
Taula 26. TE, KT1 eta KT2 taldeen pertzentilen konparaketa Hartze hizkuntza aldagaiaren dimentsioetan aurre eta test- ondorengoan	192
Taula 27. Idatzitako Kontzientzia aldagaiaren dimentsioen emaitzen analisia	193
Taula 28. TE, KT1 eta KT2 taldeen pertzentilen konparaketa Hartze hizkuntza aldagaiaren dimentsioetan aurre eta test- ondorengoan	194
Taula 29. Aurre-irakurketa abilezien emaitzen analisia	196
Taula 30. TE, KT1 eta KT2 taldeen pertzentilen konparaketa Aurre- irakurketa abilezietan	198
Tabla 31. Irakurketa zailtasunen arrisku zeinuetako dimentsioen emaitzen analisia	200
Tabla 32. Resumen del análisis de la significación estadística, tamaño del efecto y percentil para las puntuaciones de GE	211

IRUDIEN AURKIBIDEA

Irudia 1. Hitzen ezagutza azaltzen duten ereduaren sailkapena	25
Irudia 2. Logogen Eredua (Morton, 1969)	27
Irudia 3. Bide Bikoizeko Eredua Kaskadan (Coltheart, Rastle, Perry, Langdon eta Ziegler, 2001)	29
Irudia 4. Eredu Triangularra (Seidenberg eta McClelland, 1981)	31
Irudia 5. Seidenberg eta McClelland Ereduearen geruzak (1989)	31
Irudia 6. Kintsch eta Van Dijk Ereduearen zikloak (1978)	35
Irudia 7. Kontzientzia Fonologikoaren mailak	40
Irudia 8. Irakurketaren Bereganatzearen Teoriek azaltzen dituzten etapa ezberdinen laburpena	45
Irudia 9. Irakurketa Metodoak (Cuetos, 2011)	48
Irudia 10. Frith-en dislexiaren Eredu Kausalaren irudikapena (1997).	57
Irudia 11. Dislexia motak Colheart-en arabera (2005)	58
Irudia 12. Defizit zerebelarraren hipotesia (Nicolson eta Fawcett, 2004).	73
Irudia 13. Multimedia-sistemen funtzioak (Area, 2009)	94
Irudia 14. Alfabetizazio digitalaren prozesuko gaitasun-esparruak (Area, 2008)	102
Irudia 15. Dislexia duten haurrei zuzendutako iPad aplikazioak	110
Irudia 16. DEST-2 testaren emaitzen Arrisku Indizea	143
Irudia 17. Berni softwarean lantzen diren aldagaien banaketa	145
Irudia 18. Ezagutza fonologikoaren dimentsioen banaketa	146
Irudia 19. Ahozko oroimenaren dimentsioen banaketa	146
Irudia 20. Printzipio alfabetikoaren dimentsioen banaketa	147
Irudia 21. Hartze hizkuntzaren dimentsioen banaketa	147
Irudia 22. Idatzitakoaren kontzeptuaren dimentsioen banaketa	148
Irudia 23. Berni pertsonaia	152
Irudia 24. Jokoak aukeratzeko pantaila	153
Irudia 25. Txiki Einstein jokoak	154

Irudia 26. Narras-asma jokoa	155
Irudia 27. Biki-bikiak jokoa	155
Irudia 28. Txik-txakjokoa	156
Irudia 29. Txik-Txak jokoko akatsen erregistroa	156
Irudia 30. Irakasleen erregistroa	157
Irudia 31. Ikasleen erregistroa	158
Irudia 32. Irudien karpeta	159
Irudia 33. Soinuen karpeta	160
Irudia 34. Berniren web orrialdea; berni.dalata.net	162
Irudia 35. Ikasleen datuak eta jarraipena gordetzeko SQL datu- basea	163
Irudia 36. Berni jokoaren administrazio web-orrialdea	164
Irudia 37. TE eta KT1 taldeen arteko konparaketa Kontzientzia fonologiko aldagaiaren dimentsioetan, aurre eta test-ondorengoan	184
Irudia 38. TE eta KT1 taldeen arteko emaitzen konparaketa Kontzientzia alfabetiko aldagaiaren dimentsioetan, aurre eta test-ondorengoan	186
Irudia 39. TE eta KT1 taldeen arteko emaitzen konparaketa Hitzezko Oroimena aldagaiaren dimentsioetan, aurre eta test-ondorengoan	189
Irudia 40. TE eta KT1 taldeen arteko emaitzen konparaketa Hartze hizkuntza aldagaiaren dimentsioetan, aurre eta test-ondorengoan	191
Irudia 41. TE eta KT1 taldeen arteko emaitzen konparaketa Idatzizko Kontzientzia aldagaiaren dimentsioetan, aurre eta test-ondorengoan	193
Irudia 42. BIL 3-5 baterian ebaluatzen diren abileziak, frogak eta formulak	195
Figura 43. Contenidos del ámbito de la comunicación y representación señalados en el Decreto 12/2009 por el que se establece el currículo de la Educación Infantil y se implanta en la CAPV	218

SARRERA OROKORRA



A

Doktorego tesi honen bidez, irakurketa zailtasunak berandu diagnostikatu eta esku-hartu zaizkien ikasleen pronostiko larriak aitzindu nahi dira.

Izan ere, berandu diagnostikatuak eta esku-hartuak izan ziren 8 eta 9 urteko mutiko bi dira ikerketa hau aurrera eramatea bultzatu didatenak. Beraiek jasan zituzten ondorio akademiko, emozional eta sozial kaltegarriek, *dislexia* irakurketaren ikaskuntza formala hasi baino lehen detektatu zitekeen ikertzera eraman ninduten.

Horrela bada, proiektu honetako azken xedea, Haur Hezkuntzako haurrek azaltzen dituzten aurre-irakurketa zailtasunak hobetzeko erreminta bat sortzea izan da. Erreminta horren bitartez etorkizuneko irakurketa gaiztasunak gutxitzea bilatzen da; alde batetik, irakurketaren ikaskuntza garrantzia eta konplexutasun gehien duen ikasketa delako, bai ikasle, bai irakasleentzat; eta beste alde batetik, irakurketa, curriculum-edukiak bereganatzeko bitarteko funtsezkoena izateaz gain, ikaskuntza jarraitua gauzatzeko behar den askatasuna ematen duelako.

Irakurketaren ikaskuntza-arrakasta bermatzeko, garrantzitsua haurrek *aurretiazko abileziak* egoki garatuta izatea litzateke (Torgesen, 2007). Gainera, irakasleek ikasleei irakurtzen ikasteko behar diren abilezia goiztiarrak bereganatzen laguntzen dizkietenean, haurrek dituzten zailtasunak identifika ditzakete eta modu horretan, esku-hartze lasterrak abian jarri (Hulme eta Snowling, 2009).

Hortaz, irakurketaren ikaskuntza Haur Hezkuntzan hasteak, edukien praktika eta sekuentziazioa hobetzen du, eta egokitzapen indibidualak egiteko aukera ematen du (Carrillo, Calvo eta Alegría, 2001). Horretaz gain, Haur Hezkuntza etorkizuneko irakurketa zailtasunen garapenean eragin nabariena duen aldia da, beraz, irakurketa zailtasunak izateko arriskua duten haurrak identifikatzeko une aproposena. Horrela bada, etapa horretan *kontzientzia fonologikoan* zailtasunak azaltzeak, etorkizunean *dislexia* izateko posibilitateak zabaltzen ditu (Jiménez eta Venegas, 2004; Bridges eta Catts, 2011). Baina badaude *dislexia* izateko bestelako arrisku zeinuak ere; zailtasunak *izendatze abiaduran*, *printzipio alfabetikoan*, ahozko adimenean, *hartze- eta adierazpen-hizkuntzan* eta *idatzitakoaren kontzientzian*, hain zuzen ere. Era berean, gaitasun horiek hizkuntzaren bereganatzean eragiten dute (Catts, Fey, Zhang eta Tomblin, 2001; Bowey, 2008).

Bost aldagai horiek aurre-irakurketa lantzeko ezinbesteko dimentsioetan bilakatzen dira, hala nola, etorkizuneko irakurketa zailtasunak detektatzeko aldagaietan.

Beraz, dislexia izateko *arrisku seinale* horien identifikazio eta esku-hartze lasterrak, irakurketa-idazketaren garapen egokia errazten dute (Hidson, Byrne, Fielding-Barnsley, Newman, Hine eta Shankweiler, 2005; Hulme eta Snowling, 2009). Jiménez, Rodríguez, Crespo, González, Artiles eta Afonso (2010) ikerlariak adierazten dutenez, dislexiaren lehen zeinuak Haur Hezkuntzan azaltzen badira, eta dislexiaren zailtasun kognitiboek denboran iraunarazi eta okerrerantz jotzen badute, funtsezkoa da garaia baino lehen identifikatu eta esku-hartzea, hots, irakurketa zailtasunei aurrea hartzea.

Alabaina, kasu gehienetan, eta DSM-IV edo CIE-10 irizpideak jarraitzearen ondorioz, *Irakurketa Ikaskuntza Zailtasunen* detekzioa ez da irakurketa-idazketaren ikaskuntza formala hasi arte ematen. Momentu horretan, haurrak bere adinekoekin alderatuz irakurketan zailtasunak azaltzen baditu, eta horiek adimen urritasunagatik edo bestelako arazo sentsorialengatik azaldu ezin badaitezke, Irakurketa Zailtasunak bezala kontsideratu daitezke. Gure Curriculumean hori ez zen Lehen Hezkuntzako lehen zikloa bukatu arte izango.

Dislexiaren lehen zeinuak haurtzaroan azaltzen diren arren, Haur Hezkuntza ez da derrigorrezko etapa bat, eta hortaz, hezkuntza premia berezien detekzio eta esku-hartzerako zuzentzen diren baliabideak beste etapetan baino urriagoak dira. Horren ondorioz, irakurketa zailtasunen lehen zeinu horien prebentziozko erantzuna irakasleen gain uzten da. Alabaina, irakasleek ez dituzte lehen mailako esku-hartze horiek egiteko baliabiderik. Izan ere, Haur Hezkuntzan zailtasunak detektatzeko helburua duten baliabideak hezkuntza bereziko profesionaleri zuzentzen dira, eta ezagutza teknikoez gain, irakasleek ez duten denbora ere suposatzen dute. Gainera, baliabideak aproposak izateko haurren ama-hizkuntzan egon behar direla gaineratzen bada, gure kasuan euskaraz, gaur egun ez daude azaldutako ezaugarriak betetzen dituen Haur Hezkuntzarako baliabiderik, hau da, egun ez dago aurre-irakurketa zailtasunak euskaraz ebaluatzeko eta esku-hartzeko tresnarik.

Orduan, beharrezkotzat jotzen da dislexiaren arrisku zeinuak esku-hartzeko eta irakasleek erabili ditzaketen euskarazko erremintak sortzea. Hori da, hain zuzen ere, ikerketa honetan gauzatu dena.

Bestalde, kontutan hartu behar da irakurketa zailtasunak esku-hartzeko ahalegin handiak egin diren arren, kasu-portzentajeak igo egin direla azkeneko urteetan. Esku-hartze eredu berriak behar direla ondorioztatzen da, ikuspuntu berriak eskaintzen dituztenak eta ohiko esku-hartzeen gabeziak betetzen dituztenak. Horretarako, *Teknologia Berriak* ohiko esku-hartzeen ordezkotako eredu edo eredu osagarrian bilakatu dira (Bernardo, Bernardo eta Herrero, 2005). Soto Pérez (2008)

ikerlariaren arabera, IKTak irakurketa zailtasunak dituzten haurren hezkuntza eta formaziorako gakoak dira; eduki guztiak landu daitezke, banakako ikaskuntza hobesten dute, erritmo eta beharrianak errespetatzen dituzte, motibagarriagoak dira,...

Esku-hartze programa ezberdinen artean, *Ordenagailuz Lagunduriko Ikaskuntza* programek ikaskuntza zailtasunak dituzten haurrei errefortzua, praktika eta banakako ikaskuntza eskaintzen dizkiote (Soriano, 2007). Nahitaez, aurrekoak ohiko ikaskuntza-irakaskuntza ereduaren aldaketa eragiten du eta literaturan, Teknologia Berriek hezkuntza praktikak eraberritzeko duten potentzialtasuna nabarmendu da (Jonassen, Howland, Moore eta Marra, 2003).

Cabero eta Córdoba-k (2009) adierazten dutenez, "el uso de los medios tecnológicos para atender a la diversidad posibilita ofrecer una respuesta real y más acorde con las exigencias y demandas actuales para todo el alumnado que asisten a nuestras escuelas" (73 or.).

Beraz, azaldutakoaren arabera, Berni esku-hartze softwarea sortu da. Berni jokoarekin, Haur Hezkuntzako irakasleriak etorkizuneko irakurketa zailtasunei aurrea hartzeko euskarazko hezkuntza joko bat izatea bilatu nahi izan da, eta modu horretan, irakurketa arrakastaz garatzeko aukerak zabaltzea.

Jarraian aurkezten den lana bi zatitan banatuta dago. Lehenengo zatian literaturaren azterketa biltzen da eta hiru kapitulu ezberdinak daitezke. Lehen kapituluan, irakurketa prozesua bere osotasunean analizatzen da; irakurketan parte hartzen duten prozesuak, bere ikaskuntzarako beharrezkoak diren baldintza kognitiboak, garapen-eta-pak eta irakaste-metodo ezberdinak. Beharrezkotzat jo da irakurketa nola gauzatzen den ulertzea, dislexia duten haurrek azaltzen dituzten zailtasunak ulertu eta egoki esku-hartzeko.

Bigarren kapituluan, dislexiaren alderdi teorikoak aztertzen dira; kontzeptualizazioa, dislexia duten haurren ezaugarriak, zeinu lasterrak, eredu esplikatibo ezberdinak eta irakurketa ikaskuntza zailtasunen esku-hartzea. Garatu den esku-hartzeak dislexiaren zeinu lasterrak esku-hartu nahi ditu, hori dela eta, tesiaren lehen atalean dislexiaren arrisku zeinuei eta esku-hartze arrakastatsu ezberdinei buruzko ikerketak bildu nahi izan dira.

Azkenik, tesi honetan sortu den erreminta, Haur Hezkuntzako irakasleen egoerei egokia izan dadila demostratu nahi izan da. Hori dela eta, lehen atalaren hirugarren kapituluan, IKTek hezkuntza esparru ezberdinetan izan duten eragina analizatzen da; bere integrazioa

curriculumean, bere papera Haur Hezkuntzan, dibertsitatearen arretan eta bereziki dislexiaren esku-hartzean.

Lan honen bigarren atalean, dislexiaren arrisku zeinuak esku-hartzen dituen *Berni softwarea* diseinatzeko eta ebaluatzeko aurrera eraman den ikerketa esperimentalaz azaltzen da. Horrela, Berniren diseinua eta garapena deskribatzen da, ikastetxeetan nola jarri den martxan azaltzen da eta ebaluatzeko gauzatu den metodologia eta instrumentuak zehazten dira. Emaitzak hiru azterketetan bereizita islatzen dira. Lehen azterketan, dislexiaren zeinu lasterren esku-hartze neurriak test aurre eta test ondorengoan jasotzen dira. Bigarren azterketan, aurre-irakurketa abilezien emaitzak Berni esku-hartzearen aurretik eta ostean konparatzen dira. Azkeneko azterketan, irakasleen eragina kontrolatu nahian, dislexiaren arrisku zeinuak azaltzen dituzten haur guztien esku-hartzearen aurretiazko puntuazioak analizatzen dira.

Amaitzeko, lortutako emaitzak aurkeztu eta eztabaidatzen dira, eta ikerketaren ondorioak laburbiltzen dira

LEHENENGO ATALA: MARKO TEORIKOA

I. GO KAPITULUA

IRAKURKETA

1

1. Irakurketan parte hartzen duten prozesuek.

Gizarte alfabetatuetan irakurtzeak garrantzia handia hartzen duen gaitasuna da. Izan ere, gaitasun horri esker ikaskuntza autonomoki burutu daiteke. Praktikarekin irakurle trebeek ia inkontzienteki burutzen dute irakurketa, horren prozesu gehienak automatizatu egiten direlako. Baina irakurtzea ez da jarduera simple bat, arrakastatsua izan dadin prozesu kognitibo ugari erabili behar dira, hala nola, hizkiak identifikatu, hizkiak soinetan transformatu, hitzaren irudikapen fonologikoa eraiki, hitzaren esanahi ezberdinak ezagutu, esanahi egokiena aukeratu, hitz bakoitzari balore sintaktiko bat eman, esaldiaren esanahia eraiki, ... (De Vega, Carreiras, Gutiérrez-Calvo eta Alonso-Quecuty, 1990). Beraz, irakurketa jarduera konplexua da, interpretazio, ulermen eta ikaskuntzaren prozesu ezberdinak biltzen dituena.

Aurrekoarekin bat egiten duten ikerketa lerro ezberdinek ere, irakurketa abilitate konplexua dela adosten dute. Baita prozesu ezberdinez eta baliabide kognitibo, pertzeptibo eta linguistiko ezberdinez osatzen dela ere (Carrillo eta Marin, 1992).

Informazioaren prozesamenduan oinarritzen diren eredu neuropsikologikoak aztertzen badira, irakurketa bi osagai nagusiz osatzen dela ohar daiteke; hitzaren ezagutza (deskodetzea) eta irakurritakoaren ulermena, biak beharrezkoak izanik irakurtzen dena aztertu eta ulertu ahal izateko (Defior, 1996). Dislexia duten pertsonen kasuan, hitzaren ezagutze prozesu horretan azaltzen dituzte zailtasunak eta horrek irakurtzen dutenaren ulermena zailtzen du.

Hitzen ezagutza emateko, hautemate prozesuak eta prozesu lexikoak garatu behar dira (mikroprozesuak), eta irakurritakoa ulertzeko, prozesu sintaktiko eta semantikoak (makroprozesuak) (De Vega et al., 1990). Aipatutako lehenengo prozesuak irakurketari espezifikoak dira, hitz idatziak identifikatzen laguntzen dutelako; besteak, ordea, hizkuntza ulertzen laguntzen dute (Alegria, 2006).

Beraz, irakurketaren sistema 4 modulu edo prozesu autonomoz eratuta dagoela esan daiteke, bakoitza funtzio espezifiko bat betetzen duelarik (Cuetos, 2011).

1.1. Hautemate prozesuak edo Hizkien identifikazioa

Hautemate prozesuak hitzak ezagutzeko prozesuei egiten diote erreferentzia; hots, hizkiak identifikatzen eta ezberdintzen ikastea. Hautemate prozesuek begi-mugimenduak eta begi-finkatzeak zein analisi bisuala barne hartzen dituzte.

Irakurtzen hasterakoan, lehenengo pausua idatzita dauden zeinu grafikoak identifikatzea da. Horretarako, **ikusmen analizatzaile ortografikoa** delakoak hizkien ezaugarri fisikoak aztertu eta identifikatzen ditu. Prozesu horretan, begiek mugimendu batzuk burutzen dituzte. Hau da, irakurtzean begiak saltoka mugitzen dira eta 20-60 milisekundoko iraupena duten salto arin horiek **begi-mugimendu sakadikoak** bezala ezagutzen dira. Mugimendu sakadikoak **fijazio** izena duten eta 200-500 ms. dirauten geldialdiekin tartekatzen dira (Rayner, 1998). Beraz, ezkerretik eskuinera saltoka diharduten mugimendu horiek finkatze tarteekin konbinatuz gero, idatzita dagoen mezuaren informazioa eskuratzeko aukera ematen dute. Fijazioetan jasotako informazioa **oroimen ikonikoan** gordetzen da denbora labur batez non eredu bisuala aztertzen da baina interpretazio kognitiborik egin gabe (De Vega, 1984). Interpretazio kognitiboa gauzatzeko, identifikatutako bereizgarri bisualak material linguistikoan bihurtu behar dira eta hori **lan-oroimenean** gauzatzen da. Epe laburreko oroimen horretan, jasotako informazioaren kategoria-analisia burutzen da, hitzaren identifikazio prozesua gauzatuz. Bukatzeko, bereizitako hizkiak dagozkien soinuekin erlazionatuko dira **epe luzeko memorian**.

Aurreko prozesuetatik isla daitekeen bezala, badira beste prozesu kognitibo orokorrak irakurketa aurrera eramateko beharrezkoak direnak, hala nola, arreta eta oroimena. Arretaren kasuan, informazioa prozesatzerako orduan beharrezkoa da arreta selektiboki mantentzea. Oroimenaren kasuan, informazioa zein ordenatan prozesatzen den gordetzeko oroimen seriala behar da eta informazio berria datorren bitartean aurrekoa gorde ahal izateko beharrezkoa da lan oroimena.

Ikerketa ezberdinek adosten dutenaren arabera, dislexia duten subjektuen nahaste eta inbertsio akatsak ez dira hautemate prozesuen zailtasunen ondorio, grafema-fonema asoziazioa gauzatu ez delako edota soinuen sekuentzia fonetikoa antzeman ez dutelako gertatzen da (Vellutino, Fletcher, Snowling eta Scanlon 2004; Galaburda eta Cestnik, 2003).

1.2. Prozesu lexikoak edo Hitzen ezagutza


Irakurri ahal izateko beharrezkoa da hizkiak identifikatzea baina ez da nahikoa. Hau da, hitz bat ezagutzeko hizki multzo batek adierazten duen esanahia ere deskodetu behar da. Hori dela eta, hizkiak identifikatu ondoren, hitzaren esanahia bilatzeko eta berreskuratzeko estrategiak hasten dira, hau da, lexikora sartzeko estrategiak.

Irakurle trebeen kasuan, hitzak sarritan irakurri dituztenez, hitzen esanahia eta fonologia berehala eta ia automatikoki berreskuratzea lortzen dituzte. Orduan, irakurle onen kasuan hitzen ezagutza automatikoki eta inkontzienteki burutzen dituztenez, irakurtzen ikasteak izaera automatikoa izango duen mekanismo bat eratzea suposatuko du (Alegria, 2006).

Baina badira hitzen esanahien identifikazioa baldintzatzen duten beste faktore batzuk ere. Hala nola, hitzaren maiztasuna, familiaritatea eta eskuratze-adina (Harley, 2009).

Hitzen esanahien ezagutza, baita hitzei buruzko informazio fonologikoa, ortografikoa zein semantikoa ere, sistema kognitiboko **lexikoi** deritzon estrukturan kokatzen da, epe luzeko oroimenean.

Bestalde, hitzen ezagutza nola gauzaten den azaltzen duten eredu ezberdinak aurki daitezke. Horrela eredu batzuek, memorian hitz bakoitzarentzat lexiko sarrera estrukturatuak daudela esaten dute eta horiek maiztasunaren arabera sailkatzen direla. Beste eredu batzuek, **nodoak** deituriko elementuez osatzen den sare interaktiboaren bitartez deskribatzen dute lexikora sartzeko prozesua, non nodoak kitzikatu edo inhibitu egiten diren elkarren artean konektatzeko. Ikuspuntu bakoitzak eredu ezberdinak inplikatzeko ditu (ikus Irudia 1).



Irudia 1: Hitzen ezagutza azaltzen duten ereduaren sailkapen ezberdinak


Azaldutako ereduak ezaugarri funtzionalen arabera sailkatzen dira. Baina ezaugarri funtzionalez gain, ereduak lexikoaren berreskurapenean parte hartzen duten kodeen arabera ere sailka daitezke. Hau da, eredu batzuek lexikora sartzeko kodea ortografikoa dela baieztatzen duten bitartean, beste batzuek fonologikoa dela azpimarratzen dute. Bestalde, badira kode biak parte hartzen dutela esaten duten ereduak ere, kasuko, bide bikoitzeko ereduak.

Beraz, hitzen ezagutzaren azalpenean oinarritzen diren eredu ezberdin asko dauden arren, bi dira eragin nabarmenena izan dutenak; Morton-en **Logogen Eredua** (1969) eta Coltheart-en **Bide Bikoitzeko Eredua** (1978).

Logogen Eredua

Lexikora sartze zuzena azpimarratzen duen eredia da Morton-ek 1969an proposatu zuena. Idatzitako hitz ezagunen ezagutza azaltzen duen eredu honen arabera, **logogen** deituriko detektatzaile batzuk daude hitzaren informazio bisuala, akustikoa eta semantikoa jasotzen dutenak. Halaber, informazio hori subjektuak bere barne lexikoian duenarekin konparatzen du. Horrela, hitz idatzia aurkeztean bere ikusmen eta entzumen ezaugarriekin bat datozen logogenak aktibatzen dira. Hau da, "b" hizkia detektatzen bada, b hizkia duten hitz guztien entzumenezko eta ikusizko logogenak aktibatzen dira. Aktibazio maila horiek atalase-maila jakin bat gainditzen badute, logogenak abian jartzen dira eta orduan hitza ezagutzen da. Aktibazio-maila pertzepzioaren eta testuinguruko ebidentzien arabera igotzen da. Beraz, lexikora sartzea zuzena da eta aldi berekoa hitz guztientzako. Hitz bat zenbat eta gehiago aurkeztu, berari dagokion entzumen edo ikusmen logogena arinago aktibatuko da, bere logogenari dagokion atalase-maila jaisten delako.

Beraz, Irudia 2an ikus daitekeenez, logogenek hitzen ikusizko eta entzumenezko analisia egiten dute dagozkien kode fonologikoak kalkulatzuz. Sistema kognitiborako sarrera ere eragiten dute.



Irudia 2: Logogen Eredua (Morton, 1969)

Eredu honen mugarik garrantzitsuena hitz ezezagunak edo sasi-hitzak irakurtzeko mekanismorik islatzen ez duela da. Hori gainditzeko hurrengoko ereduko autoreak zeharkako bide bat proposatu zuten.

Bide bikoitzeko eredua

Logogen ereduari oinarrituta, Coltheart-ek (1981) **Eredu Duala** edo **Bide Bikoitzeko Eredua** proposatu zuen. Eredu horretan bi bide daude hitzak soinetan bihurtzeko:

- **Bide lexikoa, zuzeneko prozedura:** lexikoian gordetzen diren hitzen ezagutza globala dela suposatzen du, beraz, ohikoak diren hitzak eta erregularrak baino ezin dira bide honetatik irakurri. Hitzaren ezagutza bisuala orokorrean egiten da eta hitzaren irudikapen ortografikoa aktibatu ondoren, baita oroimeneko lexiko bisualean ditugun hitzekin konparatu ondoren, bere esanahia lortzen da sistema semantikoan. Gainera, hitz hori ahoskatu behar bada, dagokion irudikapen ortografikoa aktibatuko da lexiko fonologikoan. Beraz, bide hau erabiltzeko nahitaezkoa da hitzen irudikapen ortografikoa izatea, hortik hitz ezagunak baino ezin izatea irakurtzea bide honetatik.

Prozedura honen bitartez, hitz idatzia berehala irakurtzen da, grafema-fonemaren bihurtzea egin gabe eta irakurketa arina gauzatuz.

- **Bide fonologikoa, zeharkako prozedura.** Gure lexikoian irudikapen ortografikorik ez duten hitzak irakurtzeko erabiltzen da. Bide honen bitartez, sasi-hitzak, irregularrak eta ezezagunak diren hitzak irakurri daitezke. Horretarako, idatzitako hitz bakoitza grafemetan zatitu behar da eta grafema bakoitza fonemetan bihurtu. Hizki bakoitzaren soinu eta artikulazioaren berreskurapen hori **grafema-fonema bihurtzailea** (GFB) deritzon mekanismo baten bitartez gauzatzen da. Ondoren, fonema guztiak elkarrekin behar dira hitza ahoskatu ahal izateko. Hitza ahoskatzean eta soinuak entzutean entzumen-lexikoan dagoen ahozko irudikapenarekin konparatzen da.

Bide hau erabiltzeko beharrezkoa da grafema-fonemen artean erlazioa egotea. Gaztelania eta euskararen kasuan, hitz guztiak bide honetatik irakurri daitezke, ortografia gardeneko hizkuntzak direlako, hau da, grafema bakoitzari fonema bat dagokiolako. Baina beste hizkuntza batzuetan, ingelesa bezala, hitza ezagutu arte ezin daiteke jakin nola ahoskatzen den, grafema baten fonema ezberdina izan daitekeelako kasuen arabera.


Bide biak beharrezkoak dira irakurle guztietan eta irakurtzeko gaitasunaren edo hitzen maiztasunaren arabera bide bat edo bestea erabiliko da. Orduan, hitz bat irakurtzean bide biak hasten dira funtzionamenduan, lasterketa batetan egongo bailiran bezala. Irakurle adituentzat, bide zuzena azkarragoa izango da eta gehiengoetan lasterketa irabaziko du, hitza bide honetan azaltzen den bezala ahoskatuz. Zeharkako ibilbidea, aldiz, garaile izango da ezezagunak egiten zaizkigun hitzen aurrean gaudenean, ahoskatzeko aukera ezberdinak emanez eta ahoskatzeko zailtasuna gehituz.

Beraz, bide horietako funtzionamendu desegokiak irakurketaren zailtasunak eragiten ditu, bide biak paraleloki funtzionatu behar dutelako.

Baina bide biko ereduak kritikak ere jaso ditu. Izan ere, neuroirudiko zenbait ikerketek bide bikoitzeko ereduak zalantzan jarri dute. Horrela bada, ume gorrek irakurketaren ikaskuntzan ez dituztela zirkuitu ezberdinak erabiltzen frogatu da, nahiz eta gortasunak bide lexikoa edo zuzena erabiltzeko aukera baino ez eman (McSweeney, Waters, Brammer, Woll, eta Goswami, 2008). Gainera, txinera eta ingelesaren

ikaskuntzan zirkuitu neuronal berdinak erabiltzen dituztela frogatu da, nahiz eta txinera hizkuntza ez ortografikoa izanik, bide lexikoaren garapenean oinarritu beharko zen (Ziegler, 2005).

Aurrekoa dela eta, bide biko eredua birplanteatua izan zen **Bide Bikoitzeko Eredua Kaskadan** garatuz, non planteaturiko bide zuzena bide zuzen semantikoan eta bide zuzen ez semantikoan banatzen zen. Azken bide horrek lexiko bisuala eta lexiko fonologikoa zuzenean konektatzen ditu, lexiko semantikotik pasatu gabe (ikus Irudia 3). Gainera, eredu honen izaera modularra aldatzeko Coltheart, Rastle, Perry, Langdon eta Ziegler (2000) autoreek bide lexikoa paraleloki eta kaskadan gauzaten zela proposatu zuten, aktibazioa kaskadan ematen zela adieraziz.



Irudia 3: Bide Bikoitzeko Eredua Kaskadan (Coltheart, Rastle, Perry., Langdon eta Ziegler, 2001)

Ordezko ereduak

Bide bikoitzeko ereduaren ordezko beste eredu asko sortu dira, horien artean garrantzitsuenak **bide bakuneko** ereduak ditugu, hitz guztiak modu berdinean irakurtzen direla adierazten dutenak. Horien artean, **analogia ereduak** eta **eredu konexionistak** ezberdindu daitezke.


Analogia ereduen kasuan, hitzak beste hitz batzuekin duten antzekotasunaren arabera ezagutzen dira. Horrela bada, Kay eta Marcel-ek (1981) hitzak tamaina ezberdinetako unitateetan banatzen direla baieztatzen dute eta antzekotasuna, beste hitzekin partekatzen dituzten unitateen kopuru eta kokapenen arabera definitzen dela esaten dute. Autore horien arabera, ahoskera hitzaren irudikapen fonologikoa eta segmentu ortografikoen fonologiaren bitartez ematen da. Beraz, grafema-fonema arauak ez bezala, irudikapen fonologikoak egin ahala eratzen dira, hau da, ez daude aurretik epe luzeko oroimenean finkatuta.

Bestalde, Goswani (1988) eta Bryant (1990) autoreek, hitzen ezagutza analogikoki gauzatzen dela eta, hitz idatzia eta ahoskeraren arteko korrespondentzia hizki antzekoak edo berdinak dituzten hitzekin alderatuz lortzen dela baieztatzen dute. Ezagutza unitateak kasu honetan unitate barne-silabakoak dira, hots, hasiera eta errima. Horrela, estruktura ortografiko berdina duten bi hitz, soinu berdina partekatuko dute. Horrek suposatzen du modu berdinean letreiatuko direla, hitz ezezagunak, ezagunak eta sasi-hitzen irakurketa.

Gaztelania hizkuntzaren kasuan, Carrillo et al. autoreek (2001), analogia eredu jarraituz, haurrek hitz berriak sortzeko ezagutzen dituzten hitzen analogiak erabiltzen dituztela diote. Horretarako, haurrek hitz idatziaren eta ahoskeraren segmentuen arteko erlazioak finkatzen dituzte.


Eredu konexionisten kasuan, Seidenberg eta McClelland-ek (1989) proposaturiko ereduaren irakurketak eta mintzamenak hiru kodigo mota barne hartzen dituzte; ortografikoa, esanahiduna eta fonologikoa. Kodigo horiek konexio ezkutuan batzuen bitartez triangelu forman konektatzen dira (ikus Irudia 4), hortaz ereduaren izena; **Ered**u **Triangeluarra**.

Eredu triangeluarrean irakurketari dagokionez, ez dira bide lexikoa eta sublexikoa bereizten, hau da, sasi-hitzak, hitz ezagunak eta ezezagunak modu berdinean irakurtzen dira. Alderantziz, mintzamenean bi bide bereizten dira; bata, ortografiatik fonologiara doana, semantikatik pasata eta bestea, ortografiatik fonologiara zuzenean doana, grafema-fonema bihurtzea egin gabe. Era berean, esanahiak eskuratzean ere bi bide har daitezke; ortografiatik semantikara doana eta fonologiatik ere pasatzen den bidea.



Irudia 4: Eredu Triangularra (Seidenberg eta McClelland, 1981)

Aipatutako kodigo motak hiru mailatan banatzen dira: sarrera geruza, geruza ezkutua eta ekoizpen geruza (ikus Irudia 5). Geruza horietako unitate bakoitzak aktibazio maila bat dauka, eta unitate bakoitzak beste mailatako unitate guztiekin konektatuta dago. Hitz bakoitza unitateen aktibazio patroiz batez irudikatuta dago. Horrela, hitzen identifikazio arina, azaltzen den maiztasunaren menpe dago, unitateen konexioak sendotu egiten direlako.



Irudia 5. Seidenberg eta McClelland ereduaren geruzak (1989)

Eredua berrikusi egin zen sasi-hitzen ahoskera eta erabaki lexikoak hartzearen prozesuak hobetzeko asmoz. Horrela bada, **PMSP** ereduak sortu zen (Plaut, 1997), irudikapen ortografiko eta fonologiko motak lokalizatzen zituena.

Eredu konexionisten eta eredu dualen ezaugarriak biltzen dituen beste eredu batzuk ere badaude. Horien artean, lehen aipatutako *Bide Bikoitzeko Eredua Kaskadan* (Colheart et al., 2001) dago, non bide lexikoa ikuspegi konexionista batetik azaltzen den.

Horretaz aparte, Zorzi, Houghton eta Butterworth autoreek (1998) bide bikoitzeko eta mekanismo bakarreko eredu konexionista proposatzen dute. Kasu honetan, bide biak sare ezberdinetara abiarazten direlako ezberdintzen dira. Hau da, irakurketa prozesuaz arduratzen den sarea, bi azpi-sarez osatzen dela esan daiteke; bata bide lexikoaren papera gauzatzen du, baina Seidenberg eta McClelland-en ereduaren estruktura antzekoa jarraituz, eta besteak bide fonologikoarena, baina grafema-fonema bihurtuaren arauak jarraituz.

Aurreko ereduak berrikusiak izan dira sasi-hitzen irakurketan sortzen dituzten arazoak konpontzeko asmoz. Horrela, **Prozesatze Dual-Konexionistaren Eredua** garatu da (Perry, Ziegler eta Zorzi, 2007). Bertsio berri honetan, bide lexikoa eredu dualaren antzekoa da eta bide fonologikoak grafemen errepresentazioak biltzen ditu. Bide biak irteera fonologikoko biltegian elkartzen dira, hitzaren azken ahoskatzea lortzeko.

Eredu duala kritikatu duen beste autore bat, Erhi izan da (1992) **Eredu Bisual-Fonologikoa** proposatuz. Eredu horretan lexikora sartzeko bide bien independentzia kolokan jartzen da, eta beraien arteko erlazioa azpimarratzen da. Hau da, autore horren arabera, ezagutza bisuala ez da hitzaren esanahia lortzeko modu bakarra bide lexikoan, prozesu fonologikoek ere parte hartzen dute. Beraz, bide bisuala ez da bide fonologikoari independentea eta autonomia.

Erhi-k proposatzen duen bidea eredu dualeko bideekin konparatuz, Taula 1-ean azaltzen diren ezberdintasunak antzematen dira (Rueda, 1995):

Taula 1*Bide bisual-fonologikoa eta eredu dualeko bideen arteko konparaketa*

BIDE BISUAL-FONOLOGIKOA	BIDE LEXIKOA	BIDE FONOLOGIKOA
Lexikoi eta hitz idatziaren arteko konexioak sistematikoak dira eta hitzaren fonologiari buruzko aurre-ezagutzak aktibatzen dituzte. (konexioak iragarri daitezke)	Lexikoietan hitz idatziaren arteko konexioak arbitrarioak dira	
Ez da beharrezkoa kodetze fonologikoa egitea		Kodetze fonologikoa, grafema bakoitza bere foneman bihurtzearen ondorioz ematen da. Ondoren, soinu guztiak elkartuz lexikoian dauden hitzekin konparatzen dira, eta esanahia eskuratzen da.

Atal honetan azaldu diren eredu guztiek pertsona heldu baten irakurketa sistemaren funtzionamenduari egiten diote erreferentzia. Baina haurren kasuan, **bide bikoitzeko eredu**a da pisu gehien jaso duena. Eredu hau defendatzen duten autoreek, bide bien garapena nahiko independentea dela baieztatzen dute, horrela bide bakoitza bere erritmorik bilakatzen doalarik. Ikerketa ezberdinak dira azken hori frogatu dutenak. Adibidez, Jimeénez, Guzman eta Artiles-ek (1997)¹ autoreek gaztelania bezalako hizkuntza gardenetan bide fonologikoa nagusitzen dela frogatu dute. Hizkuntza opakuetan, aldiz, bide bisuala (Wimmer eta Goswani, 1994). Orduan, bide bat edo bestea nagusitzearen

¹ Jimenez, Guzman eta Artilesek 6-7 urteko haurreetan silaba posizioen maiztasuna ikertu zuten, maiztasun handiko hitzak arinago irakurtzen zirela egiaztatuz eta haurren maiztasun tasa hori helduenaren ezberdina zela behatuz. Azken hori kontutan hartuz eta adin horretako haurren lexiko ortografikoa garatu gabe dagoela kontutan hartuz, autore horiek adin horretako haurrek beraien erantzunak kode fonologikoaren arabera ematen zituztela adierazi zuten.

aldagaien artean hizkuntzaren gardentasun ortografikoa eta irakaskuntzan jarraitutako metodoa ere kontutan hartu behar dira.

Nahiz eta bide bikoitzeko ereduak ohiko erreferentzia markoa izan, ortografia gardena duten hizkuntzetan, gaztelera eta euskararen kasuan, irakurketa hobeto azaltzen duten ereduak errepresentazio fonologikoa eta ortografikoa aintzat hartzen dituzten ereduak dira. Beraz, bai bide bikoitzeko ereduak zein eredu konexionistak izan daitezke (Gutiérrez, 2004). Eredu analogikoen kasuan lexikora sartzea ez dago fonologiaren menpe eta bide bakuneko ereduaren kasuan bide fonologikoaren papera ez da ondo konektatzen.

Bukatzeko aipatu behar da irakurketaren jarduera zentrala hitzen ezagutza den arren, jarduera fonologiko, ortografiko eta semantikoak ere barne hartzen dituela (eredu ezberdinetan ikusi denez).

Euskararen kasuan, hitzen ezagutza nola ematen den aztertzen duen ikerketarik ez da bilatu. Baina euskara gaztelania bezalako hizkuntza ortografiko gardena dela kontutan hartuta, ikerketa honetan gaztelaniako hipotesi berdinak jarraitu dira hitzen ahoskera nola ematen den azaltzeko.

1.3. Prozesu sintaktikoak

Irakurtzen dena ulertu ahal izateko hizkiak eta hitzak ezagutu baino gehiago egin behar da, hau da, goi mailako operazio kognitiboak behar dira ere. Prozesu horiek hitzen arteko erlazioak finkatzen dituzte. Operazio horietan kokatzen dira bai prozesu sintaktikoak zein semantikoak.

Prozesu sintaktikoak hizkuntzaren oinarritzko egitura gramatikalak ezagutzea ahalbideratzen dituzten prozesuak dira, hitzen arteko erlazioak azalduz. Horretarako, lehenengo eta behin esaldia osatzen duten hitz bakoitzari etiketa bat esleitu behar zaio (aditza, subjektua,...); ondoren, esaldiaren elementuen arteko erlazioa zehaztu behar da; eta azkenik, elementuak ordenatu behar dira dagokion egitura eraikiz. Guzti hori gauzatu ahal izateko, esaldietan gako batzuk azaltzen dira; hala nola, hitzen ordena, hitz funtzionalak, hitzen esanahia eta puntuazio zeinuak (Cuetos, 2011).

Baina prozesu sintaktikoez ez dituzte esaldiaren esanahia aztertzen, beraz, beste prozesu batzuk behar izango dira irakurtzen dugun testua ulertu ahal izateko. Hain zuzen ere, prozesu semantikoak.

1.4. Prozesu semantikoak

Prozesu semantikoen bitartez, hitzen, esaldien edota testuen esanahiak uler daitezke, jasotako informazio berria aurrezagutzekin erlazionatzen dutelako. Bi azpi-prozesu barne hartzen ditu; esanahien ateratzea eta esanahien integrazioa irakurlearen ezagutzetan, hau da, memoria. Bi prozesu horien bitartez, irakurleak testuan dakarrenaren irudikapen mentala eraikitzen du. Beraz, ez du testuan dakarren informazio guztia memorizatzen, ideia batzuk baino ez, eta bere ezagutzekin batera testuaren irudikapen osoa gauzatzen du. Beraz, irakurleak aktiboki parte hartzen du.

Testuaren prozesamendu hori zikloka egiten da Kintsch eta Van Dijk autoreen ereduari jarraituz (1978) (ikus Irudia 6).



Irudia 6. Kintsch eta Van Dijk ereduaren zikloak (1978)

Azkenik, irakurketa-idazketaren prozesu espezifikoak ez den arren, lan-oroimenaren garrantzia islatu behar da. Lan-oroimena beharrezkoa da jarduera kognitiboak aurrera eramateko. Horrela, lan-oroimenak informazioa atxikitzen du informazioa berria prozesatzen den bitartean.

2. Irakurketaz jabetzeko aldez aurreko baldintza kognitiboak

Urteetan zehar, "irakurketa heldutasuna" delakoari buruz hitz egin da. Kontzeptu horren arabera, haurrek heldutasun maila bat behar dute irakurtzen ikasten hasteko. Horretan oinarritzen diren heldute-ereduek irakurketa gaitasun pertzeptibo-bisuala balitz bezala kontsideratzen dute. Horrela bada, eredu horiek irakurtzen hasteko haurrak elementu psikomotore batzuk (motrizitatea, orientazio espaziala, erritmoa, lateralitatea, gorputz-eskema, begi-eskuko koordinazioa, ...) garatuta izan behar dituela suposatzen dute (Jiménez eta Artiles, 1990).

Baina heldute-ereduen argudioak ezeztatuta gelditu dira gaitasun pertzeptibo-bisual bikainak izanik irakurketa zailtasunak dituzten pertsonak badaudelako eta alderantziz (Alegria, 2006). Gainera, irakurketa zailtasunak dituzten haurren kasuan, jarduera pertzeptiboetan oinarritzen diren esku-hartzeek ez dute eraginik izan irakurketa errendimenduan (Coalla eta Vega, 2012). Halaber, beste ikerketa batzuek irakurketaren ikaskuntzarako alderdi kognitibo eta linguistikoek iragarle bezala duten garrantzia azpimarratzen dute (Jiménez, 1990).

Orduan, irakurketaren ikaskuntza atzeratzeak ondorio negatiboak izan ditzake haurrak garatuko duen irakur-gaitasunean eta irakur-mailan (Cohen, 1982). Baina, irakurketaren bereganatzea arinegi planteatzeak ere, bere ikaskuntza eragotzi dezake eta autoestima edo motibazio arazoak sortu (Muchielli eta Bourcier, 1985). Ondorioz, haur bakoitzarentzat ahalik eta arinen den momentu egokiena bilatzen saiatu behar da eta hori irakurtzen ikasteko oinarritzko abileziak garatuta dituen izango da (Selles, Martínez eta Vidal-Abarca, 2012). Izan ere, irakurketaren lehen hastapenak Haur Hezkuntzan ematen badira, edukien sekuentziazio hobeagoa emateko, praktikarako eta norbanakoaren ezberdintasunen egokitzapenerako aukerak gehitzen direla baieztatzen dute Carrillo, Calvo eta Alegria autoreek (2001).

Hala ere, irakurmenaren ikaskuntza 6 urterekin hasteko argudio psikologiko eta garapenezkoak ez dauden arren, heldutasun neurologikoan oinarritzen diren aurre-baldintza batzuk behar direla frogatuta gelditu da ikerketa ezberdinetan (Florez-Romero eta Arias-Velandia, 2009; Gallego, 2006; Pinker, 2001; Scarborough, 2002; Slavin y Cheung, 2003). Aurre-baldintza horiek irakurketaren **iragarleak** edo **eragileak** bezala kontsideratu daitezke etorkizuneko irakurketarekin korrelazioan daudelako. Hala ere, ezin daitezke irakurketaren arrakasta eta porrotaren arazoak bezala hartu. Beraz, iragarle horietako baten defizitak ez du nahitaz etorkizuneko irakur zailtasuna azaltzen baina zailtasun horiekin erlazionatu daitekeen baldintza bezala har daiteke.

Irakurketaren iragarle edo eragileak definitzeak bere bereganatze prozesua ezagutzea ahalbideratuko du eta prozesuan azaltzen diren defizitak identifikatu eta esku-hartzeko aukera emango du, etorkizuneko irakurketa zailtasunei aitzintzeko (Beltrán, López-Escribano, eta Rodríguez, 2006).

Lan ezberdinak izan dira irakurketaren iragarleak definitzen saiatu direnak (Beltrán et al., 2006; Gallego, 2006; Greenfield, Storch, eta Fischel, 2005; Mason eta Stewart, 1990; Scarborough, 2002; Sénéchal, LeFevre, Smith, Chant, eta Colton, 2001; Shatil eta Share, 2003; Whitehurst eta Lonigan, 1998). Sellés, Martínez, eta Vidal-Abarca autoreek (2012) lan garrantzitsuenak laburbiltzen dituen taula aurkezten dute:

Taula 2

Iherketa ezberdinen arabera, irakurketaren hasierako garapenarekin erlazionatzen diren oinarritzko abileziak

<i>Irakurketaren aurreko ezagutzak Scarborough (2002)</i>	<i>Irakurketaren iragarleak eta eragileak Gallego (2006)</i>	<i>Irakurketaren aurrekari lasterrak Beltrán et al. (2006)</i>
<i>Automatizazioa errazten dituzten ezagutzak</i>	<i>Irakurketaren iragarleak</i>	<i>Iragarle biologikoak</i>
1. Kontzientzia fonologikoa	1. Ezagutza fonologikoa	1. Ikus urritasuna ez egotea
2. Printzipio alfabetikoa	2. Ezagutza alfabetikoa	2. Entzumen arazoak ez egotea
<i>Irakurmenaren ulermena errazten dituzten ezagutzak</i>	3. Izendatze abiadura	3. Hizkuntza zailtasun lasterrak ez egotea
1. Munduaren ezagutza	Abilezia eragileak	4. Arreta defizita ez egotea
2. Hiztegia	1. Ahozko hizkuntza: hitzezko ulermena, entzumen lexikoa, entzumen bereizketa	<i>Eragile lasterrak</i>
3. Sintaxia, semantika eta pragmatika	2. Maila kognitibo nahikoa	1. Kontzientzia fonologikoa
4. Hitzezko arrazonomendua	3. Oroimenaren garapena	2. Izendatze abiadura arina
5. Kultura idatziaren ingurunea ezagutzea	4. Abilezia pertzeptibo eta motorrak	3. Hiztegia
	5. Motibazio eta jokaera alderdiak	4. Esaldi eta istorioen errepikapena
	6. Gizarte aldagaiak	5. Ingurune faktoreak

Iturria: Sellés, P., Martínez, T., & Vidal-Abarca, E. (2012). Controversia entre madurez lectora y enseñanza precoz de la lectura. Revisión histórica y propuestas actuales. *Aula Abierta*, 40(3), 3-14.

Irakurketaren jabetzeaz erlazionatu diren aldez aurreko baldintza kognitiboen artean, ebidentzia zientifiko gehien jaso dutenak prozesatze fonologikoa, izendatze automatiko arina, hizkien ezagutza, abilezia linguistikoak eta oroimena daude (Savage et al., 2005).

Hala ere, irakurketaren arrakastaren iragarleez egin den ia ikerketa gehiena ingelesez gauzatu da eta horietan lortutako emaitzak beste hizkuntzetara egokitzea oso kritikatu izan da. Izan ere, Ingelesa hizkuntza opakua den heinean, kontzientzia fonologikoaren garapenak garrantzia handiagoa izango du (Share, 2008). Hori dela eta, azken urteetan egindako ikerketa ezberdinek irakurketaren iragarleen garrantzia aztertu dute hizkuntza alfabetiko ezberdinetan. Horietako bat, Caravolas et al. autoreek (2012) burutu dute. Ikerketa horretan irakurketaren bereganatzea aztertu da hizkuntza ezberdinetan (ingeleza, gaztelera, txekiera eta eslovakiera) eta irakurketaren bereganatzearen arrakastan kontzientzia fonologikoa, izendatze automatiko arina eta hizkien ezagutza faktore oso garrantzitsuak direla hizkuntza guztietan frogatu dute. Modu berean, datu berdinak lortu zituzten Vaessen et al. autoreek (2010), holandarra, frantsesa eta hungariera hizkuntzak konparatu zituztenean.

Ikerketa horien arabera, pentsa daiteke euskararen kasuan ere ez direla emaitza desberdinak bilatuko, hau da, irakurketaren iragarle arrakastatsuenak kontzientzia fonologikoa, izendatze automatiko arina eta hizkien ezagutza izango direla. Baina ez dira hori aztertu duten ikerketarik bilatu.

National Early Literacy Panel-en azken azterketan² (Lonigan, Schatschneider eta Westberg, 2008), haur hezkuntza osoan zehar garatzen diren irakurketa lasterraren gaineko abileziek etorkizuneko alfabetatzearekin erlazio zuzena dutela azpimarratzen da. Gainera, 6 aldagai aurkezten dira alfabetatze lasterraren abileziak bezala edo etorkizuneko alfabetatzearen aitzindari gisa:

1. Kontzientzia fonologikoa (ahozko hizkuntzaren soinuak identifikatzeko, manipulatzeko eta analizatzeko abilezia)
2. Kontzientzia alfabetikoa (grafiekin erlazonaturiko izenen eta soinuen ezagutza)

² *National Early Literacy Panel*, alfabetatze lasterrari buruzko ikerketak aztertzen dituen txostena da. Bizi osorako alfabetatzeari eta irakurketaren ikaskuntzari buruzko laguntza eskaintzen duen *National Early Literacy* erakunde estatu batuarrek gidatzen du eta ikerketa zientifikoetan oinarritzen da.

3. Hizki eta zenbakien izendatze automatiko arina (hizki eta zenbakien sekuentzia bat arin izendatzeko gaitasuna)
4. Objektu eta koloreen izendatze automatiko arina (objektu eta koloreen sekuentzia bat arin izendatzeko gaitasuna)
5. Oroimena
6. Grafemen idazketa (hizki isolatuak edo norberaren izena idazteko gaitasuna)

Aldagai horiek alfabetatzearekin erlazionatzeaz gain, arrakasta igartzeko balorea mantentzen dute adimen-kozientea eta estatu sozioekonomikoaren independentziaz.

Hala ere, National Early Literacy Panel-en txosten horretan, irakurketaren arrakastarekin erlazionatzen diren beste 5 aldagai ere aipatzen dira baina aldagai horien iragarle baloreak testuinguruaren arabera aldatzen dira:

- Idatzitakoaren kontzientzia (kontzientzia alfabetikoa, hizkuntza idatziaren gaineko kontzeptua eta dekodifikazio printzipioak biltzen ditu)
- Irakurketaren prestakuntza (kontzientzia alfabetikoa, idazketaren kontzeptuak, hiztegia, oroimena eta kontzientzia fonologikoa biltzen ditu)
- Hizkuntza idatziaren gaineko kontzeptuak (norabidea, liburuaren lehen orrialdea, titulua, egilea, ...)
- Ahozko hizkuntza (ahozko hizkuntza ulertzeko gaitasuna, hiztegia, oroimena eta kontzientzia fonologikoa kontutan hartuz)
- Prozesatze bisuala (bisualki aurkezturiko sinboloak ezberdintzeko gaitasuna)


Beraz, aldagai guzti horiek irakurketaren arrakasta iragartzen dute, beti ere maila eta garapen momentu ezberdinetan. Horrek irakurketa bereganatzearen konplexutasuna azpimarratzen du, haurrek mota ezberdinetako abileziak integratu behar dituztelako irakurtzen ikasteko eta automatismoa garatzeko, hau da, irakurketa modu zehatz, arin eta ia inkontzientean bilakatzeko.

Hurrengo orrialdeetan aldagai horietariko bakoitzak irakurketarekin duen erlazioa zehaztuko da.

2.1. Prozesatze fonologikoa

Irakurketa ahozko hizkuntzan oinarritzen den gaitasun psikolinguistikoa da eta bere bereganatzeak hizkuntzaren estructures elementuez hausnartzea suposatzen du. Hau da, idatzitako elementuak dagozkien ahozko hizkuntzako elementuekin erlazionatu behar dira eta horretarako beharrezkoa da gaitasun metafonologikoak garatzea. Hizkuntzaren soinuak identifikatu eta isolatzeko gaitasun hori ez da naturalki garatzen, irakaskuntza-ikaskuntza sistematikoa eskatzen duen prozesua da. Hortaz, Ezagutza Fonologikoa gaitasunaren bitartez, hitzaren edozein unitate fonologiko (fonema, errima edo silaba) identifikatu, ezagutu edo manipulatu daiteke (Ziegler eta Goswami, 2005). Gainera, silaba eta hitzei dagozkien fonemak modu ezberdinean prozesatzen direla aztertu da. Hau da, silabaren atal bakoitzarentzat kontzientzia fonologiko ezberdina dagoela ikusi da (Treiman eta Zukowsky, 1991); silabaren oldarra (hasiera), koda edo errima baino hobeto hauteman eta identifikatzen dela aztertu da; adibidez, **lan** hitzan /l/ oldarra dago besteetatik ezberdindu daitekeena, eta /an/ errima hurrei zailago egiten zaiena ezberdintzea.

Hala ere, aurrekoa lortzeko ikaskuntza prozesu zail bat burutu behar da. Horrela bada, kontzientzia fonologikoan bereganatzealdi ezberdina duten 4 maila bereiz daitezke (Herrera, Gutierrez eta Rodríguez, 2008): errima edo aliterazioa, ezagutza silabikoa, ezagutza barne-silabikoa (ONSET-ERRIMA) eta ezagutza fonetikoa (ikus Irudia 7).



Irudia 7: Kontzientzia Fonologikoaren mailak

Ikerketa ezberdinetan frogatu denez, kontzientzia fonologikoa ahalmen handiko iragarlea da irakurketaren bereganatzean (Adams, 1990; Scarborough, 1998; Erhi, 2002). Horietan ziurtatu denez, kontzientzia fonologiko egokia duten ikasleek irakurle onetan bilakatzen dira, eta kontzientzia fonologikoan zailtasunak azaltzen dituzten haurrek, ordea, irakurle eskasetan.

Hala ere, badira beste ikerketa batzuek kontzientzia fonologikoaren garrantzia irakurketa bereganatzearen etaparen menpe dagoela esaten dutenak. Horrela, Hogan, Catts eta Little autoreek (2005), kontzientzia fonologikoa eta irakurketaren arteko erlazioa, irakurketa bereganatzen den heinean banatzen doala esaten dute. Hasiera batean kontzientzia fonologikoa da irakurketan eragiten duena baina behin irakurketa bereganatu denean, irakurketa da kontzientzia fonologikoan eragiten duena. Cuetos autoreak (2011) esaten duenarekin konparatzen bada, badirudi irakurketa bereganatzeko funtsezkoa dela haurrek kontzientzia fonologikoaren 1.go eta 2. mailak garatuta izatea (errima edo aliterazioa eta kontzientzia silabikoa), hau da, irakurketaren kausa dira baina 3. eta 4. mailak irakurketarekin batera bereganatzen dira, hots, irakurketaren ondorio dira.

Guzti horrek hitzen dekodifikazioan oinarritzen den ikaskuntza prozesua nagusitzea ahalbideratzen du. Alde batetik, hizkuntzaren soinuaren ezaugarriak analizatzeko aukera ematen duelako, eta bestetik, kontzientzia fonologikoa garatzen laguntzen duelako, batez ere, azken maila so egiten bazaio. Irakurketa bereganatzearen metodologi ezberdinei dagokionez 4. atalean hitz egingo da.

2.2. Izendatze Automatiko Arina (RAN - Rapid Automated Naming)

Estimulu bisual ezagunak, hala nola, zenbakiak, koloreak, hizkiak eta objektuak, ahalik eta arinen izendatzeko gaitasunari deitzen zaio **izendatze automatiko arina** (RAN). Gaitasun hau irakurketa bereganatzearen arrakastarekin erlazionatu den abilezia da. Horrela bada, autore batzuek RANaren osagai fonologikoen kode fonologikoen bilatzen laguntzen dutela epe luzeko oroitzean frogatu dute (Savage et al., 2005). Beste batzuek ordea, RANaren osagai lexikalari eta denbora prozesatzeari erreparatu diote, RANeko zailtasunak irakurketa-jario eta ortografia zailtasunekin erlazionatuz (Roselli, Matute eta Ardilla, 2006).

Hala ere, Norton eta Wolf-ek (2012) egindako ikerketan RAN bere osotasunean aztertzen dute eta irakurketa bereganatzearen zirkuituan mikrokosmos bat balitz bezala kontzeptualizatzen dute. Ikerketa honetan azpimarratzen denaren arabera, RAN irakurketa jarioaren

iragarle hoberena da. Gainera, autore horiek beste batzuekin bat datoz (Georgiou, Parrilla eta Liao, 2008) RAN eta irakurketa jarioaren arteko erlazioa unibertetsala dela esaten dutenean, hau da, hizkuntzen kontsistentzia ortografikoari independentea dela baieztatzen dute.

Argudio horien kontra, badaude ikerketak RAN eta irakurketaren aurre-abilezien arteko korrelazioa zalantzan jartzen dutenak. (Lervåg eta Hulme, 2009)

2.3. Hizkien identifikazioa eta ezagutza

Hizkien izenen ezagutza irakurketa bereganatzearen beste iragarle indartsu bat bezala aurkeztu da aurreko lerroetan. Ezagutza horrek, hizkien izenak oroimenean irudikatzeko abilezia suposatzen du.

Hizkiak bereizi eta gogoratu ezin ditzaketen haurrek, ezin izango dute irakurtzen ikasi hizkuntza alfabetikoetan; hizkiak identifikatu eta izendatu ditzaketen haurrek, ordea, errazago ikasiko dute soinuak hizki horiekin erlazionatzen (Adams, 1990). Beraz, hizkien ezagutzak abilezia fonologikoen garapenean laguntzen du, soinu eta hizkien izenen ezagutzaren artean erlazio kausala sortzen da eta (Share, 2004). Horrela bada, Scarborough-ek (2002) irakurketaren iragarleen gaineko 61 ikerketa ezberdin alderatu zituen. Ikerketa horiek hizkien identifikazioa eta kontzientzia fonologikoa iragarle hoberenak direla diote.

2.4. Mintzamenaren kontzientzia

Irakurketaren bereganatze arrakastatsuan parte hartzen duen beste faktore bat ahozko hizkuntza da. Horrela, ikertzaileek irakurle on eta txarren arteko ezberdintasuna, esaldi barneko egituren erlazioak ulertu eta ekoizteko gaitasunen araberakoa dela esaten dute (Walker et. al., 1994). Hau da, hitzak identifikatzean haurrek berehala eman behar diote esanahia eta gainera, hitzen edo kontzeptuen arteko erlazioa modu egokian gauzatu behar dute. Beraz, ahozko hizkuntzaren osagai semantiko eta sintaktikoak modu egokian deskodetzeak, irakurketa esanahidun ekintza batetan bihurtzea suposatzen du.

Berninger, Abbott eta Thompson-ek (2002) esaten dutenez, lau hizkuntza sistemak (mintzamena, entzumena, irakurmena eta idazmena) modu gainjarrian eta paraleloan garatzen dira eta ez sekuentziazko faseetan. Hori dela eta, ahozko adierazpenean eta ulermenean izandako zailtasunek, irakurketa bereganatzearen oztopo izango dira (Scarborough, 1990).

2.5. Oroimena eta arreta.

Irakurtzeko arreta eta oroimena bezalako abilezia kognitiboak ere behar dira.

Arreta estimuluen deskodetzerako eta testuaren ulermenerako beharrezkoa da. Irakurleak arreta maila ezberdina behar izango du testuaren gaineko aurre-ezagutzen eta irakurketa abilezien arabera. Hori dela eta, irakurtzen hasten den ume baten arreta deskodetzean zentratzen da; irakurle adituan, ordea, testuaren ulermenean (Roselli et al., 2006).

Oroimenari dagokionez, irakurketaren bereganatzean oroimen mota ezberdinak eragiten dute. Eredu modala (Atkinson eta Shiffrin, 1968) jarraitzen badugu, oroimena jarduera ezberdinak betetzen dituzten osagaiez osatzen da;

- *Zentzumenen oroimena*: Estimuluen hautemate-analisia egiteko, horiek zentzumenen erregistro batzuetan denbora labur batez gorde behar dira. Hau da, estimuluak antzeman eta ezagutzeko, jasotako informazioa oroimen horretan dauden patroi batzuekin alderatu behar dira lehenengoz. Izan ere, ezinezkoa da irakurtzea aipatutako hizkien hautemate analisia egiten ez baden lehenengo eta behin.
- *Epe laburreko oroimena edo/eta Lan-oroimena* (Etchepareborda eta Abad-Mas, 2005): Lehenengo prozesatzea zentzumenen oroimenean burutu ondoren, informazioa epe laburreko oroimenera pasatzen da. Baddeley autoreak (2007) epe laburreko oroimena eta lan oroimena ezberdintzen ditu. Lehenengoan informazioa gordetzen da baina ez da manipulaziorik gertatzen. Lan oroimenean, aldiz, informazioa gorde eta manipulatzeko da, eta sistema kognitibo konplexuetan parte hartzen du. Lan-oroimenean ere hiru mekanismo bereiz daitezke: kontrolatzaile exekutiboa (eragiketa bakoitzean jarri behar den arreta erabakitzen eta kontrolatzen duena), bukle fonologikoa (hizkuntzaren bitartez aurkeztutako informazioa kodifikatu eta atxikitzen duena, baita hitzen, zenbakien, deskribapenean, ... maneian parte hartzen duena ere) eta agenda bisuoespaziala (informazio bisual eta espaziala atxikitzen duena). Aurreko orrialdeetan azaldu denez, elementu horiek beharrezkoak dira irakurketa prozesuan, entzumenezko, ahozko eta ikusizko informazioa prozesatzen eta gordetzen dutelako. Lesaux, Rupp eta Siegel (2008) autoreek eginiko ikerketan lan oroimenaren garrantzia azpimarratzen dute, bai irakurketaren ulermenean zein hitzen irakurketan.

- **Epe Luzeko Oroimena:** Epe laburreko oroimenak informazioa gordetzeko gaitasun mugatua duen bitartean, epe luzeko oroimenenean garrantzitsua den informazioa betiko gordetzen da. Lan oroimena eta epe luzeko oroimena konexioan mantentzen dira, horrela irakurtzean informazio horri buruz irakurleak dituen esperientziak eta ezagutzak kontutan hartzen dira, eta mezua hobeto uler daiteke.

2.6. Ingurugiroko aldagaiak.

Irakurketaren bereganatzean aurretik azaldutako baldintza kognitiboez gain, beste aldagai batzuk ere eragiten dute, hala nola, irakurketarekiko esposizioa eta irakurketarekiko jarrera positiboa garatzea (Roselli et al., 2006).

Familiak, eskolak, irakasleak, ... eragin nabaria dute haurren alfabetatze prozesuan baina ikerketa gehienak haurren etxe ingurua aztertzen zentratu dira. Ingurune kaltetuetan egindako ikerketetan frogatu denez, etxean ematen diren hitzezko elkarrekintzen kantitatea irakurketaren bereganatzean gehien eragiten duen aldagaia da (Beltran et al., 2006). Hau da, ingurune horietan bizi diren haurren familiak hitzezko interakzio gutxiago eskaintzen dituzte eta horrek hiztegi urriagoa garatzea eragiten du. Beraz, familiaren maila sozioekonomiko baxuak ikaskuntza zailtasunak izateko arriskua handitzen du, batez ere irakurketan. Esan denez, mintzatzeko abilezia urriagoak azaltzen dituztelako, irakurketaren bereganatzerako funtsezkoak direnak. (Lonigan, 2004).

Horretaz gain, gurasoek haurrengan dituzten itxaropenak eta sinesmenak alfabetatzearen arrakastarekin erlazionatzen dira. Itxaropen baikorrak dituzten gurasoek alfabetatze ekintzak burutzen dituzte etxean, haurrek motibazio altuagoa azalduz.

Bestalde, etxeko beste jarduera batzuk (liburuen eskaintza, liburutegira bisitak, gurasoen irakurketa, ...) haurrei hitz egiteko eta idatzitakoaren kontzientzia bereganatzeko aukera ematen die (Wasik, 2012).

3. Irakurketa prozesuaren etapa

Irakurketaren bereganatzea etapa edo fase ezberdinen bitartez irudikatua izan da zenbait teoretan.

Historian zehar, Gough-ek (1980) proposatu zituen irakurtzeko 2 bideetatik, Seymour-en (2001) ereduaren 4 etapen eredura pasatu da (ikus Irudia 8). Hala ere, teoria bakoitzak bere berezitasunak dituen arren, badirudi azken urteetako ikerketek irakurketaren bereganatzea 4 fasez osatzen dela adosten dutela.

Table 8.1 A Schematic Summary of the Approximate Relationships between Different Stage/Phase Theories of Learning to Read

Proponents	Gough & Hillinger (1980)	Mason (1980)	Marsh et al. (1981)	Chall (1983)	Frith (1985)	Ehri (1998, 1999, 2002)	Stuart & Calhoun (1988)	Seymour & Duncan (2001)
Number of Developmental Periods	2	3	4	5	3	4	2	4
1. Pre-reading	Cue reading	Contextual dependency	Rote, linguistic guessing	Stage 0: Letters/Book exposure	Logographic	Pre-alphabetic	Partial orthographic	Pre-literacy
2. Early reading		Visual recognition	Discrimination net guessing	Memory and contextual guessing		Partial alphabetic		Dual Foundation
3. Decoding	Cipher reading	Letter-sound analysis	Sequential decoding	Stage 1: Decoding, attending to letters/sounds	Alphabetic	Full alphabetic	Complete orthographic	Logographic
4. Fluent reading			Hierarchical decoding	Stage 2: Fluency, Consolidation	Orthographic	Consolidated alphabetic, Automaticity		Orthographic
								Morphographic

Irudia 8: Irakurketaren bereganatzearen teoriek azaltzen dituzten etapa ezberdinen laburpena

Iturria: Snowling eta Hulme, 2006, *The Science of reading*, 139. or.

Teoria horien artean, Ehri-k (1998, 2005) planteaturiko eredua da sostengu gehien izan duena. Autore honek proposatzen dituen faseek eredu konexionistan dute oinarria. Horrela, faseak oroimenean nagusitzen diren konexioen arabera bereizten dira; aurre-alfabetikoa, partzialki alfabetikoa, guztiz alfabetikoa eta alfabetiko finkatua.

3.1. Fase aurre-alfabetikoa

Hasierako fasea da non hitzak bere gako bisualen arabera ezagutzen diren. Haurrek oraindik ez dakite askorik sitema alfabetikoaz, beraz, irakurtzean ezin dute hizkien forma eta soinuen arteko konexiorik egin. Hala ere, ezaugarri bisualak gogoratuz hitz batzuen esanahia eta ahoskera erlazionatu ditzakete. Baina fase honetan haurrek oraindik irakurleak ez direla esan daiteke, alde batetik hitz gehienek ezaugarri bisualak ezberdintzea zaila delako eta bestetik, ortografia eta fonologiaren arteko erlaziorik ematen ez delako.

Frith-ek (1985) etapa alfabetikoaren aurretik etapa logografikoaz hitz egiten du. Etapa horretan haurrek logogramak irakurtzeko gai dira eta etapa hau beharrezkoa da alfabetoa bereganatzeko. Alabaina, ez daude datu fidagarriak hori horrela ematen dela ziurtatzeko. Ume batek alfabetikoki irakurtzen ikas dezake aurretik logograma bat ere ezagutu gabe. Logogramak ezagutzeak ez du irakurketaren ikaskuntza errazten (Alegria, 2006).

3.2. Fase partzialki alfabetikoa

Haurrek alfabetoaren hizki batzuen soinuak edo izenak ezagutzen dituztenean eta irakurtzeko erabiltzen dituztenean etapa partzial alfabetikora pasatzen dira. Hala ere, oraindik hizki eta soinu bakar batzuekin baino ez dituzte konexioak burutzen, batez ere, lehen eta azken hizkien soinuekin. Horrek hitz antzekoak nahastera eramaten die. Beraz, konexioak partzialki burutzen dituzte, hitzaren fonema guztiak banatzeko gai ez direlako. Gainera, ez dute sistema alfabetikoa ezagutzen eta horrek hitz ezezagunak deskodetzeko zailtasunak eragiten die.

3.3. Fase guztiz alfabetikoa

Haurrak fonema-grafia konexioak eginez ohikoak diren hitzak irakurtzeko gai direnean fase guztiz alfabetikora pasatzen dira. Horrek grafema-fonema korrespondentziak ezagutzen dituztela suposatzen du, hots, irakurtzen dituzten grafemekin bat egiten duten fonemak segmentatzeko gai direla.

Fase honetan, irakurleak ezezagunak diren hitzak deskodetzeko gai dira ere, fonema guztiak irudikatze grafia asma ditzaketelako eta hitzen ortografia hobeto gogoratzen dutelako.

3.4. Fase alfabetiko finkatua


Fase alfabetiko finkatua haurrak ohiko hitz gehiago gogoratzeko gai dira. Errepikatzen diren hizkien patrioiak barneratzen dituzte, grafema-fonema konexioen unitate handiagoak (errimak, silabak, hitzak) barneratuz. Horrela, konexio gutxiago behar dira hitzak oroimenean gordetzeko. Azken etapa honetan, hitz guztiak irakurtzeko gai dira eta irudikapen ortografikoei buruz daukaten ezagutzaren bitartez, hitz berrien irakurketa arinago eta zehatzago burutzen dute.

Azaldutako Erhi-ren teoria honetan faseak proposatzen dira eta ez etapak. Faseek ez dituzte etapak bezain irizpide zorrotzak, non etapa bakoitza bereganatzea ezinbesteko baldintza den hurrengo etapara pasatzeko. Erhik planteatutako faseen teoria honetan, ordea, hitzen ezagutzak fase aurre-alfabetikoan, ez du suposatzen hurrengoko faseetako hitzen irakurketaren bereganatzea. Haurrek prozesu alfabetikoa garatzen dutenean, aldiz, faseak hurrenez hurren garatzen dira. Baina hori ez da etapetan bezala gertatzen. Haurrek fase ezberdinetako konexioak erabili ditzakete ohikoak diren hitzak ikasteko, faseak erabilitako ezagutza alfabetikoaren arabera bereizten direlako. Horrela, fase guztiz alfabetikoan dagoen ume batek grafema-fonema konexioak erabili ditzake hitz bat irakurtzeko baina konexio partzialak ere egin ditzake hitz luzeak irakurtzeko.

4. Irakurketaren ikaskuntza-irakaskuntza metodoak

Eskolatzearen lehen urteak funtsezkoak dira irakurketaren garapena sustatzeko. Urte horietan irakurle trebeetan bilakatzen ez diren haurrek, zailtasunak azalduko dituzte hurrengoko urteetan (Pianta, Belsky, Vandergrift, Houts eta Morrison, 2008).

Nahiz eta haur batzuek edozein ingurunetan eta baldintzetan irakurtzen ikasi dezaketen, beste batzuek irakaskuntza zuzendua eta egokia behar dute. Irakaskuntza metodologia egoki hori zein den jakiteko ikertzaileek luzaro aritu dira aztertzen. Irudia 9an irakurketaren irakaskuntza-ikaskuntza metodo ezberdinak bereiz daitezke:



Irudia 9: Irakurketa Metodoak (Cuetos, 2011)

Metodo bakoitzak baditu bere jarraitzaileak eta gaitzesten dituztenak.

Metodo globalaren aldekoek, haurrek benetako irakurketan barneratu behar direla defendatzen dute (Goodman eta Goodman, 2008). Ikasleek beraien ezagutza eraiki behar dute, beraz, irakurketak testuaren esanahia eraikitzea suposatu behar du. Autore horien ustetan, fonemekin alderatuz gero hitzak errazago detektatzen dira eta esanahia dute. Metodo honetan lehenago hitz batzuk aurkezten zaizkie haurrei eta pixkanaka hitzak gehitzen doaz. Haur batek hiztegi bisual nahikoa garatu duenean, hitzak konbinatu ditzake zentzudun esaldiak sortzeko. Gainera hitz berriak sartzera beraien esanahia testuinguruaren

bitartez eratzen dute. Ahoskera irakasleak ematen du eta grafia eta fonemen erlazioa finkatzen saiatzen da, behin hitza haurraren hiztegian dagoenean.

Metodo fonetikoaren aldekoek metodo globalek esfortzu kognitibo handiegia exijitzen dutela esaten dute, hau da, ezinezkoa litzatekeela existitzen diren hitz guztiak memoriaz ikastea kritikatzten dute. Metodo silabikoen kasuan, ikasi beharreko unitate kopurua askoz txikiagoa den arren, konplexuegia dela ondorioztatzen dute. Metodo fonetikoan, aldiz, 30 fonema-grafemen arauak baino ez dituzte menperatu behar.

Metodo fonetikoetan, ahozko fonemen eta hizkien arteko korrespondentzia gutxi batzuk erakusten dira hasiera batean. Hizki horien konbinaketaz mota ezberdinetako hitzak eraikitzen dira. Gitxika hizki gehiago eransten dira, ondoren kontsonanteak eta bukatzeko kontsonante taldeak. Errepikapenaren bitartez, haurrak hiztegi bisuala bereganatzen doaz.

Metodo horren bitartez, hitzen ikuspegi analitikoa sustatzen da eta horrekin haurrak gai dira hitz ezezagunak ere irakurtzeko (Rayner, Foorman, Perfetti, Pesetsky eta Seidenberg, 2001).

Horren kontra esan daiteke fonemen kontzientzia bereganatzea ez dela prozesu erraza eta metodo horren praktika aspergarriak kritika ugari jaso dituela (Adams, 1990).

Metodoen konparaketa aztertu duten ikerketa ugari daude. Horietako batean, Genard, Alegría, Leibaert, Mousty eta Defior (2005) autoreek metodo global eta fonetikoaren bitartez bereganatutako irakurketa alderatu zuten. Emaitzetan ikus daitekeenez, metodo fonetikoarekin ikasi zuten haurrek emaitza hobekoak lortzen zituzten prozesu kognitiboaren exekuzioetan, erreakzio-denbora laburragoa zuten eta grafema-fonema konbertsio-arauen bereganatze lasterragoa azaltzen zuten. Hortaz, erabiltzen den metodoaren arabera irakurketaren bereganatzean aldatetarik suma daitezke.

Hala ere, emaitza horiek zalantzan jar daitezke oinarritzat hartzen den hizkuntzaren ortografiaren arabera. Ez da berdina, txineraz, ingelesaz edo euskaraz irakurtzen ikastea (Cuetos, 2011). Txineraren kasuan, logoen bitarteko sistema ortografikoa dutenez, komenigarriago izango zen metodo globala erabiltzea. Ingelesaren kasuan, aldiz, sistema ortografiko opakua dute, hau da, hitz erregularrak eta irregularrak. Hitz irregularrak ezin dira grafema-fonema konbertsio-arauen bitartez irakurri eta bere ezaugarri bereizgarrien bitartez identifikatu behar dira. Beraz, pentsa daiteke metodo global eta fonetikoaren konbinaketa hobereana izango litzatekeela. Gaztelaniaren kasuan sistema ortografiko

gardena du (euskarak bezala), non ia grafema guztiak bere fonemarekin bat egiten duten, beraz, sistema fonetikoa gomendagarriena izango litzateke (Alegria, 2006). Horrela bada, hizkuntza gardenetan, euskara edo gaztelania bezalakoetan, metodo fonetikoarekin ikasitako haurrek hobeto irakurtzen dutela azpimarratu daiteke, printzipio alfabetikoaren nagusitzekak irakurketa autonomia garatzen laguntzen dielako (Defior, 2006).

Laburbilduz, kapitulu honetan irakurketan parte hartzen duten prozesuak ezagutu dira; hautemate prozesuak, hitzen ezagutza prozesua, prozesu sintaktikoak eta prozesu semantikoak. Batez ere, irakurketaren jarduera zentrala suposatzen duen hitzen ezagutza prozesua sakondu da, hori delako dislexia duten haurretan kaltetuta azaltzen den prozesu zentrala. Horri dagokionez, badirudi Colheart-en bide bikoitzeko eredua dela pisu gehien jaso duen eredua eta ikerketa honetan aintzat hartu dena dislexia duten haurren zailtasunak ulertzeko.

Horretaz gain, haurrek irakurketaren ikaskuntza hasteko garatuta izan behar dituzten alde aurreko baldintza kognitiboak zeintzuk diren ere azaldu dira. Alfabetatzearen arrakastarekin erlazionatzen diren aldagaiak prozesatze fonologikoa, izendatze automatiko arina, hizkien ezagutza, mintzamenaren kontzientzia, oroimena eta arreta dira.

Baldintza kognitibo horien garapen egokiak etorkizuneko irakurketaren arrakasta iragartzen du. Orduan, horien zailtasunak esku-hartzeak irakurketaren arrakasta bermatzea suposatuko du.

Bestalde, irakurketaren bereganatzean Erhik (1998, 2005) planteatzen dituen fase ezberdinak azaldu dira, fase aurre-alfabetikoan, partzialki alfabetikoan, guztiz alfabetikoan eta alfabetiko finkatuan ematen diren prozesuak ezberdinduz.

Azkenik, irakurketaren ikaskuntza-irakaskuntzan landu daitezkeen metodoak ezberdindu dira eta metodo fonetikoa azpimarratu da euskaraz bezalako hizkuntza ortografiko gardenetan irakurtzen ikasteko.

Kapitulu honetan azaldutakoa beharrezkotzat jotzen da hurrengo atalean landuko den dislexia zailtasuna ulertzeko. Hau da, irakurketaren jarduera konplexua nola gauzatzen den ulertu behar dugu, dislexia duten haurrek dituzten zailtasunak ulertu eta esku-har ahal izateko. Hurrengo kapituluan dislexiaren kontzeptua argitzeaz gain, bere etiologia, ezaugarriak eta esku-hartze ereduak azalduko dira.

II. KAPITULUA

DISLEXIA

2

5. Zer da Dislexia edo Irakurketa Ikaskuntza Zailtasuna?

Ikerketa honetan esku-hartzen den zailtasuna hobeto ulertzeko hurrengoko lerroetan dislexiak izan duen garapena historian zehar eta bere gaur egungo kontzeptualizazioa berrikusiko dira.

5.1. Dislexiaren historia

Dislexia hitza nola sortu zen aztertzeko, Beaton-ek (2004) dislexia kontzeptuaren lehenengo agerpenaren eta berari loturiko baldintzen analisia burutzen du. Autore horrek islatzen duenez, Henry Broadbent izan zen zailtasun hau azaldu zuen lehena, 1872an garun-lesioen ondorioz irakurtzeko gaitasuna galdu zuten pazienteak deskribatu zituenen. Hala ere, James Hinshelwood dugu mende horretako autorerik ezagunena (1985), zeinek "hitz eta hizkien itsutasuna" deituriko kasuak azaldu zituen. Ikertzaile horrek familian ematen ziren **hitz itsutasun kongenitoei** buruzko lehen artikulua idatzi zituen.

Gaur ezaguna den dislexia bezala aurki daitekeen lehen erreferentzia zientifikoa, ordea, Morgan-ek idatzi zuen 1896an. Morgan-ek irakurtzeko zailtasunak zituen baina beste eremu akademikoetan ohiko garapena zuen 14 urteko mutila baten kasua azaldu zuen. Zailtasun horiek kalte zerebralaren ondorioa zirenean ebidentziarik ez zuenez bilatu, Morgan-ek dislexia ikusmen edo ikusi-prozesatze arazo batekin erlazionatu zuen. Bai Hinshelwood-en eta bai Morgan-en ikerketek, irakurketa zailtasunek irakurketaren abilezia kognitiboari eragiten dietela eta garapen neurologiko desegokiaren ondorio direla azpimarratu zuten.

Ikusmolde hori ohikoena izan zen Orton-ek 1928an **estrefosimbolia** kontzeptua barneratu zuen arte, ikusi-estimuluak alderantzizko irudi bezala antzematen duen nahasmen pertzeptiboari erreferentzia egiten diona. Orton-ek pausu garrantzitsu bat eman zuen irakurketa zailtasuna garun dominantziaren garapen atzerapenarekin erlazionatu zuenean; irakurketaren zailtasuna ikusi-prozesatze desegokiaren ondorioa baino gehiago bezala tratatzeko aukera eman zuelako.

Orton-en teoria horrek luzaro iraun zuen, ikusi-defizitean oinarritzen ziren beste teoria batzuen sorrera eraginez (Hermann, 1959).

Azken 20-30 urteetan, irakurketaren prozesua ikertu duten zientifiko kognitiboek irakurle ez trebeetan zentratu dira; batez ere, erdi mailako adimen koefizientea azaltzen duten, beste ikaskuntza zailtasunak islatzen ez dituzten, eta irakurketa zailtasunak aldagai arrotzen (zentzumen defizitak, baldintza sozioekonomiko baxuak, emozio arazoak edo eskola-absentismoa) ondorio ez diren irakurleetan. Gaur

egungo ikertzaile askok, **dislexia** edo **irakurketa ikaskuntza zailtasun** hitzak aurreko sintoma-patroiak deskribatzeko erabiltzen dituzte. Hala ere, ondorengo atalean dislexia eta irakurketa ikaskuntza zailtasun espezifikoren kontzeptua sakonago argitu eta definituko da.

5.2. Dislexiaren definizioa

Egungo ikerketek hizkuntza bereganatzearen prozesatze fonologikoa zein linguistikoa eta dislexiaren oinarri neurobiologikoa hobeto ezagutzeko aukera eman dute (REDIE, 2013). Horrek dislexia zer denari buruzko akordioa eragin du, Dislexiaren Erakunde Internazionalak (IDA) burutu duen definizioa akordio gehien jaso duena izanik (Lyon, Shaywitz eta Shaywitz, 2003):

“Dislexia oinarri neurobiologikoa duen ikaskuntza zailtasuna da. Hitz idatzien ezagutzaren zehaztasun eta jarioan zailtasunak islatzen dituena eta idatzitakoaren deskodetzean eta letreiatzean defizitak azaltzen dituena ere. Zailtasun horiek hizkuntzaren osagai fonologikoen defizit baten ondorio dira. Ustekabean azaltzen dira, beste gaitasun kognitiboak normaltasunez garatzen direlako eta jasotako irakaskuntza egokia delako. Bigarren mailako ondorio bezala irakur-ulermenean zailtasunak agertu daitezke eta irakur esperientziak murriztu ere, hiztegiaren eta ezagutza orokorraren bereganatzea oztopatuz.” (p. 2)

Definizio horretan gako garrantzitsu batzuk azpimarratu daitezke. Lehenengo eta behin, dislexiak jatorri neurobiologikoa duela. Hau da, irakurketaren zailtasuna dislexiatzat hartuko da baldin eta kanpo faktoreen bitartez azaldu ezin badaitekeen, beraz, pertsonaren baitan dagoen zailtasunaren ondorioa baldin baden.

Bigarrenez, emandako definizioan dislexia hitz mailan kokatzen diren zailtasunekin erlazionatzen dela adierazten da, eta ez irakurtzen denaren ulermen zailtasunekin (Vellutino et al., 2004). Gainera, prozesatze fonologikoen papera azpimarratzen da, azken ikerketek adierazten duten bezala.

Azkenik, idatzitakoaren deskodetze eta letreiatze zailtasunek testu batetako esanahia eraikitzea eragozten dutela azaltzen da. Horretaz gain, hitzak identifikatzeko ezintasunak eta irakurketa motelak irakurritakoa ez ulertzea eragiten dutela ondorioztatzen da ere.

“National Joint Committee on Learning Disabilities” erakundeak ere islatzen duenez, dislexia ikaskuntza zailtasun espezifikoa (IZE) da (NJCLD,

1994) eta ondorioz, nahasmendu heterogeneoen multzoari egiten dio erreferentzia. Hain zuzen ere, entzute, hizketa, irakurketa, idazketa, arrazoitzea eta kalkulu abilezien bereganatze eta erabilera zailtasunei. Nahasmendu horiek pertsonaren barne-faktoreen ondorio dira, nerbio-sistema zentralaren disfuntzioarenak batez ere, eta bizi ziklo osoan zehar azal daitezke.

Dislexia ikaskuntza zailtasun espezifikotzat (IZE) hartzen duten definizioez gain, badira ikuspegi klinikoa duten beste definizioak ere. Horietako bat "Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders" 5. bertsioa da, DSM-V³ (APA, 2013). Bertsio berri horretan dislexia, discalculia, disgrafia edo bestelako ikaskuntza zailtasunak ikaskuntza espezifikorako nahasmendua bezala bildu eta izendatzen dira. Horrek kritika ugari sortu ditu, diagnostikorako eta esku-hartzerako protokolo berezituak galtzen direlako (IDA 2012).

Hala ere, DSM-V-ena martxan jarri eta profesionalen artean zabalduta, oraindik DSM-IV-R (APA, 2002) bertsioa erabiltzen da, non irakurketa nahasmendua ikaskuntza nahasmendu orokorretatik ezberdintzen den, hurrengoko irizpide diagnostikoak espezifikatuz:

- a) Subjektuaren adin kronologikoa, adimen-koefizientea eta adinari dagokion eskolatzea kontutan izanik, irakurketa errendimendua espero dena baino baxuagoa da, banaka emandako doitasun edo ulermen frogen bitartez neurtzen denean.
- b) A irizpidean azaldutako arazoak errendimendu akademikoan eragiten du edo irakurketa exijitzen duten eguneroko ekintzetan.
- c) Zentzumen-defizita egonez gero, irakurketa arazoak defizit horri dagozkionak baino nabarmenagoak dira.

Kodeketa-nota: Gaixotasun medikoa (adb. neurologikoa) edo zentzumen-defizita badago, III ardatzean kodetuko da.

Era berean, CIE-10ek4 (OMS, 1992) irakurketarekin erlazionatutako arazoak eskola-ikaskuntza garapenaren nahasmendu espezifikoen

³ "Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders", Amerikako Erakunde Psikiatrikoak burututako buru-nahasmeneen sailkapena eta maila-diagnostikoen deskripzioak ematen dituen manuala da.

⁴ Osasun Erakunde Mundialak burututako (OMS) Gaixotasunen eta Osasunarekin erlazionatutako arazoaren *Sailkapen Estadistiko Internazionala* (10. berrikuspena).

barnean sailkatzen ditu. Nahasmendu horiek prozesu kognitiboen alterazioen ondorio direla azpimarratzen da, disfuntzio neurobiologikoak oinarri izanik.


Bai DSM-IV-R eta CIE-10 sailkapen klinikoek kritikak jaso dituzte adimen-koefiziente eta irakur-idazketaren errendimenduaren artean dagoen desadostasuna dela eta. Horrela bada, ikerlari askok irizpide hori dislexia definitu eta sailkatzeko alferrekotzat jotzen dute (Siegel, 92; Jiménez eta Rodrigo, 2000). Horren eredu da Tanaka et al. Autoreek (2010) egindako ikerketa, non prozesatze fonologikoa gauzaterakoan ematen den burmuineko aktibazioa neurtu zuten. Alde batetik, irakurketa gaitasun urria eta IQ (adimen koefizientea) baxua zuten haurrak irakurketa gaitasun urria baina IQ altua zuten hurrekin alderatu zituzten. Erresonantzia magnetiko nuklearra erabiliz aktibazio eredu berdina ematen zela ikusi zuten, hau da, talde bietan aktibazio maila baxuagoa zen zonalde parieto-tenporalean. Beraz, Dislexiaren diagnostikoan IQ-ren paper independentea islatu zuten.

Bestalde, definizio kliniko horien arabera, dislexiaren diagnostikoa ezin da modu fidagarrian egin umeak 8 urte izan arte, hots irakurketa bereganatzeko curriculumak bereizten duen tartea edo zikloa pasa arte, atzerapen hori oso kaltegarria suertatuz zailtasun horren esku-hartzerako.

Azkenik, dislexia beste ikuspegi batetik ere definitu daiteke, ikuspegi kognitibotik hain zuzen ere (Redie, 2012). Ikuspegi kognitiboa prozesu psikolinguistikoetan oinarritzen da eta dislexia oinarri neurobiologikoa duen ikaskuntza nahasmendu espezifikoa bezala definitzen du. Ikuspegi horren arabera, dislexia grafema-fonema korrespondentzia-arauak erabili eta barneratzeko defizitaren bitartez ezaugarritzen da, baita prozesatze-fonologikoaren defizitak eragiten duen hitzen ezagutza jarioetasun faltaren bitartez ere. Motibazio falta, emozio nahasteak, zentzumen defizitak edota aukera faltak ere ager daitezke.

Hiru ikuspegiak (dislexia IZE bezala, nahasmenduaren ikuspegi klinikoa eta ikuspegi kognitiboa) gaur egun elkarrekin bizi dira eta zientifikoaren artean hirurak onartzen dira.

Hala ere, badugu *ikuspegi integratzailea* ere, Frith-ek 1997an proposatu zuena hain zuzen ere. Ikuspegi horretan dislexia maila kognitibo, konduktual eta biologikotik deskribatzen da eta ingurugiroaren eragina maila guztietan hartzen da kontutan (ikus Irudia 10).



Irudia 10. Frith-en dislexiaren eredu kausalaren irudikapena (1997).

Iturria: Serrano, F., & Defior, S. (2004). Dislexia en español: estado de la cuestión. *Revista Electrónica de Investigación Psicoeducativa y Psicopedagógica*, 2(2), 13-34.

5.3. Dislexia motak


Orain arte hitz egin den dislexia, **dislexia ebolutiboari** egiten dio erreferentzia, hau da, jaiotzatik azaltzen den, eta karaktere ebolutiboa baita garatzeko aurre-joera ere duen irakurtzeko zailtasunari. Baina bada dislexia garatzeko beste modu bat, **dislexia hartua** deiturikoa (Beaton, 2004). Dislexia hartua pertsona batek irakurtzen ikasi ondoren garatzen duen ikaskuntza zailtasuna da eta orokorrean garuneko trauma baten ondorioz gertatzen da. Dislexia ebolutiboak, ordea, ikaskuntza abilezien garapenean sortzen diren irakurketa zailtasunei egiten dio erreferentzia.

Dislexia mota bi horietan azpi-sailkapenak ere azaltzen dira. Zabalduen dagoen sailkapena dislexia hartua duten helduekin egindako ikerketetatik ondorioztatzen da. Horren arabera, Dislexia hartuan **azaleko dislexia** eta **dislexia fonologikoa** bereizten dira. Lehengoan, sasi-hitzak deskodetzeko eta zehaztasunez irakurtzeko gaitasuna mantentzen da baina hitz irregularrak irakurtzeko ezintasuna azaltzen da, prozesamendu lexikoko garun-zonaldeetako kalteak direla eta. Bigarrean, hitz errealak irakurtzeko gaitasuna dago baina sasi-hitzak irakurtzeko ezintasuna azaltzen da, prozesamendu azpi-lexikoko garun-zonaldeetako kalteak direla eta.

Modu berean, Dislexiaren bereizketa hori ere bilatu da irakurketa zailtasunak garun kalteengatik azaldu ezin diren kasuetan, hots, dislexia ebolutiboan.

Horrela bada, Dislexia ebolutiboan, Colheart-ek (2005) bide lexiko eta azpi-lexikoarekin erlazionatzen diren azpi-mota bi bereizten ditu ere (ikus Irudia 11). Bide azpi-lexikoan (hitzak identifikatzeko dekodifikazioa erabiltzen duen bidea) zailtasunak islatzen dituzten haurrak hitz arruntak deskodetzeko gai dira baina ez hitz ezezagunak. Zailtasun honi **dislexia fonologikoa** deritzo.

Bide lexikoan (hitza identifikatzeko ezagutza bisuala erabiltzen duen bidea) zailtasunak islatzen dituzten haurren kasuan, ordea, deskodetzeko gaitasun egokiak dituztenez hitz erregularrak eta sasi-hitzak irakurtzeko gai dira. Baina patroi irregularra dituzten hitzak irakurtzeko ezintasuna azaltzen dute. **Azaleko dislexia** deitzen zaio zailtasun honi.



Irudia 11: Dislexia motak Colheart-en arabera (2005)

Beste autore batzuek, Spafford eta Grosser-ek (2005) bezala, dislexiaren hiru azpi-mota bereizten dituzte. Autore horien arabera, lehenengo azpi-mota Colheart-en dislexia fonologikoaren kasukoa da baina **disfonetiko bisualaren** izenpean, eta deskodetzeko arazoak dituzten dislexikoei egiten die erreferentzia. Bigarren mota, **diseidetikoak** dira eta Colheart-en azaleko dislexikoen parekoak lirateke, hots, ortografia irregulardun hitzak irakurtzeko zailtasunak dituztenak. Azkenik, hirugarren mota aurreko bi moten konbinaketa da, **disfonetiko - diseidetiko**, bi moten zailtasunak islatzen duena.

Hiru mota horien izenak aldatuz doaz ikerlarien arabera baina guztiek mantentzen dituzte ezaugarri komunak eta gehienak Colheart-en hitzen ezagutzaren bide bikoitzeko ereduari oinarritzen dira (ikus Taula 3).

Taula 3

Dislexia motak autore ezberdinen arabera

<i>Lovett, 1984</i>	<i>Rayner, 1988</i>	<i>Bakker, 1992</i>	<i>Spafford eta Grosser-ek (2005)</i>	<i>Colheart (2005)</i>
Dislexiko zehaztugabea	Dislexia auditibo - linguistikoa	L motako dislexikoa	Disfonetiko bisuala	Dislexia fonologikoa
Dislexiko geldoak	Dislexia bisuo-espaziala	P motako dislexikoa	Diseidetikoak	Azaleko dislexia
Dislexiko mistoak			Disfonetiko - Diseidetikoak	Dislexiko mistoak

Azken urteetan dislexiaren sailkapen horiek zalantzan jarri badira ere, sintomak identifikatzeko eta kaltetuta dagoen azpi-prozesua zein den zehazteko baliogarriak izaten jarraitzen dute. Ia autore gehienek ume batek dislexia mota baten sintomak soilik islatzea oso arraroa dela zehazten dute, ohikoagoa da dislexia mota bien sintomak azaltzea baina larritasun maila ezberdinarekin. Izan ere, Sprenger-Charolles, Siegel, Jiménez eta Ziegler (2011) autoreen arabera, mota bien arteko ezberdintasunak sakonago analizatuz azaleko dislexiaren existentzia zalantzan jartzen dute, dislexia fonologikoaren sintomek "per se" dislexia ebolutiboa deskribatzen dutelako. Kasu horretan, sintoma batzuen edo beste batzuen agerpena haurraren irakurketa etaparen, irakurketa

metodoaren eta hizkuntzaren gardentasunaren arabera izango zen (REDIE, 2013).

5.4. Prebalentzia

Zaila da dislexiaren prebalentzia zein den jakitea. Alde batetik, ez daudelako erakunde publikoak eginiko erregistro zehatzik eta bestetik, irizpide ezberdinak erabiltzen direlako bere diagnostikorako. Gainera, manifestazio oso heterogeneoak dituen nahasmendua da eta hizkuntzen arteko kode alfabetiko ezberdinek dislexian eragiten dute (Miles, 2004).

Zailtasun guztiak kontutan hartuta, hizkuntza opakoetan dislexiaren prebalentzia %5ean kokatzen da (IDA, 2008) eta ia populazioaren %20ak dislexiarekin erlazionatzen diren ezaugarriak azaltzen ditu, hala nola, ortografia arazoak, irakurketa geldoa edota akasduna.

Gaztelera edo euskara bezalako hizkuntza gardenetan azken ikerketak %3.2an kokatzen dute dislexiaren prebalentzia (Jiménez, Guzmán, Rodríguez y Artiles, 2009). Horretaz gain, ikaskuntza zailtasun espezifikoen (IZE) artean dislexia ohikoena dela baieztatzen dute, 5 IZE kasuetatik 4 dislexia izanik.

Bestalde, % 60-80 bitartean gizonezkoak dira eta familia predisposizioaren ondorioz, prebalentzia handiagoa da lehen mailako senideen artean (REDIE, 2012)

6. Dislexia duten haurren ezaugarriak

Orokorrean dislexia duten haurren ezaugarriak deskribatzen direnean, aurreko atalean egin den bezala, ageriko ezaugarriak baino ez dira aipatzen baina badira ikusten ez diren berezitasunak ere. Hori dela eta, hurrengo paragrafoetan portaeraren nahasmenduak ez-ezik, nahasmendu kognitiboak eta neurobiologikoak ere azalduko dira.

6.1. Nahasmendu neurobiologikoak

Gaur egungo neuroirudi tekniken bidez, dislexia duten pertsonen garuneko alterazioak aurkezten dituztela frogatu da. Hortaz, burmuineko zonalde tenporalean ez da ohikoa den asimetriarik aurkitu, lobulu tenporalek neurri berdina aurkezten dutelako burmuin-hemisferio bietan (Eckert, 2004). Bestalde, lobulu tenporal horietan substantzia gris dun kantitate gutxiagoa eta desantolatua goa azaltzen da, hipoaktibitatea eragiten duena (Silani et al., 2005).

Horretaz aparte, neuroirudiaren bidez bestelako alterazioak ere antzeman dira, esaterako, gorputz kailukarreko eta zerebeloko nahasmenduak. Zerebeloa da bietatik gehien ikertu dena, irakurketan eta dislexian paper garrantzitsua jokatzen duela frogatu delako (Baillieux et al., 2009). Orokorrean esan daiteke, dislexikoen zerebeloak disfunzioa islatzen duela aktibitate mailan, portaeran, metabolismoan eta anatomian (Ramus, 2003).

Hala ere, literaturan kaltetuta dauden garun zonaldeei buruzko desadostasunak daude. Adibidez, ikerlari batzuek dislexikoen kortex frontalean aktibitate maila altuagoa antzeman dute eta konpentsazio mekanismoen ondorioz jo dute (Grunling et al., 2004). Alabaina beste ikerketa batzuek ez dute hiperaktibitate hori aurkitu (Eden et al., 2004) edota aktibitate maila txikiagoa antzeman dute (Shaywitz et al., 2002). Maisog, Einbinder, Flowers, Turkeltaub eta Eden autoreek (2008) egindako ikerketen analisisian, desadostasun horiek laginaren ezaugarrien eta erabilitako teknika ezberdinen ondorio direla azpimarratzen dute.

Aipatutako egitura-alterazioen ondorioz, nahasmendu funtzionalak ere sortzen dira dislexikoen burmuinean. Horrela, dislexia duten haurren burmuinean, alde batetik aktibazio maila baxuagoa suma daiteke ezkerreko hemisferioan, batez ere prozesamendu fonologikoaren arduraren duen ezkerreko zonalde parieto-temporalean. Beste alde batetik, eskuineko hemisferioaren aktibazioa altuagoa dela sumatzen da. Gainera, aktibatzen diren zonaldeak ez dira zehatz-mehatz lengoaiari

dagozkionak. Beraz, esan daiteke dislexia duten haurrek irakurtzeko zirkuitu neuronal ezberdinak erabiltzen dituztela (Shaywitz et al., 2002).

Aipatutako nahasmendu neurobiologikoak dislexia diagnostikatuta duten haurretan aurkezteaz gain, arrisku egoeran dauden haurretan ere azaltzen dira. Hau da, familiako aurrekariak edo 7. puntuan aipatuko diren ezaugarri aurre-dislexikoak azaltzen dituzten haurrek, dislexia izateko hautagaiak diren heinean alterazio neurobiologikoak azaltzen dituzte (Cuetos, 2009).

6.2. Nahasmendu kognitiboak

Dislexia duten haurrek azaltzen duten nahasmendu kognitiborik azpimarragarriena prozesamendu fonologikoarena da. Horren arabera, zailtasunak dituzte fonemak manipulatzeko, hitzak fonemetan zatitzeko, hitz baten fonemak ez-ikusi edo aldatzeko, sasi-hitzak errepikatzeko eta hitzak letreiatzeko (Defior eta Serrano, 2011). Prozesamendu fonologikoan arazoak izatea grafemak fonemetan bihurtzearen ezintasuna eragiten du, hortaz, irakurtzeko zailtasuna.

Defior, Serrano eta Marin-Cano ikerlariak (2008) egindako ikerketa batetan prozesamendu fonologikoa neurtu zuten espainiar dislexiko eta ez dislexikoen artean. Emaitzetan behatu zutenaren arabera, gazteleradun dislexikoen jarduera guztietan defizitak azaltzen zituzten eta beste hizkuntza batzuekin konparatuz, abiadura arazoek zehaztasun arazoak baino garrantzitsuagoak ziren.

Dislexia duten pertsonen beste ezaugarri kognitibo bat koloreak, marrazkiak, hizkiak eta zenbakiak izendatzea eskatzen duten jardueretan denbora gehiago behar dutela (Araújo et al., 2011) eta akats gehiago egiten dituztela da (Jones, Branigan eta Kelly, 2009). Hala ere, ez dago adostasunik zailtasun horien jatorria lexikora sartzeko abiadura falta den edo prozesamendurako moteltasuna. Gainera, autore batzuek prozesatze automatikoaren abiaduraren neurria dela esaten duten bitartean, beste autore batzuek kode fonologikoa berreskuratzeko abiadurari egiten diola erreferentzia esaten dute.

Aipa daitezkeen bestelako ezaugarri kognitiboen artean, hizketa hautemateko azaltzen dituzten arazoak daude (Tallal, 1980). Tallal autoreak zailtasun hori prozesatze tenporalaren defizitaren ondorioa zela uste bazuen ere, ondorengo ikerketek defizit fonetikoaren ondorioztat jo dute (Studdert-Kennedy, 2002). Hizketaren pertzepzio eta dislexiaren arteko erlazio hori kolokan jarri den arren, erlazioa kritikatzeko ikerketek egoera errealak erabiltzen ez dituztela azpimarratu daiteke, eta gainera hizketaren pertzepzioa isiltasunean neurtu dutela. Horrela bada,

hizketa egoera arruntetan ematen den zaratarekin neurtua izan denean, dislexia duten pertsonak hizketa modu egokian prozesatzeko zailtasunak dituztela frogatu da (Ziegler, Pech-Georgel, George eta Lorenzi, 2009).

Dislexia duten haurretan lan-oroimenaren arazoak ere identifikatzen dira. Zailtasun fonologikoarekin erlazionatuta epe laburreko hitzezko oroimen arazoak islatzen dituzte (Gathercole eta Alloway, 2008). Horretaz gain, badira ikerketak lan-oroimenaren defizitak osagai fonologikoetan ez-ezik, objektu bisual eta informazio bisuoespaziala prozesatzean ere eragiten duela ere esaten dutenak (Menghini, Finzi, Caelesimo eta Vicari, 2011)

Azkenik, Cuetos-ek (2011) adierazten duenez, irakurketa bizkorra lortzeko zailtasuna dislexiaren beste ezaugarri kognitibo bat da. Zailtasun hori hizki eta fonemen arteko konexioak egiteko ezintasunaren ondorioa da. Horrek hitzak memorizatzeko estrategia konpentsatzaileak garatzea suposatzen du, baina oroimena mugatua denez eta dauden hitzek kopuru eta zailtasun maila handia dutenez, irakurketaren bizkortasuna kaltetzen da.

6.3. Portaeraren nahasmenduak

Jokabidean antzeman daitezkeen ezaugarriak haurrek irakurketa-idazketaren ikaskuntza hasterakoan ematen dira.

Dislexia duten haurrek azaltzen dituzten arazo fonologikoen ondorioz, hitzak soinu bitartez eratzen direla ulertzeko arazoak dituzte. Hau da, hizketaren soinu (fonemak) eta horiek irudikatzen dituzten hizkiak erlazionatzeko zailtasunak dituzte, beraz, grafema-fonemen konbertsioak egiteko (Redie, 2012). Zailtasun horiek sasi-hitzen irakurketan azaltzen dira batez ere, sasi-hitza ez dituztelako aurretik oroimenean gordeta eta ondorioz ezin dituztelako estrategia konpentsatzaileak erabili. Modu berean, hizki luzeak eta ez-ohikoak irakurtzeko arazoak islatzen dituzte (Davis, Lindo eta Compton, 2007).

Adina eta eskolatzearekin batera, irakurketa arazoak mantentzen dira, bizkortasun falta eta errore-tasa altua izanik. Ohikoak diren akatsen artean, hitzen identifikazio desegokia dago, hitz-zatien gehitzea, ezikusia edo aldaketa giten dutelako, irakurritakoa behin eta berriz errepikatuz.

Orduan, dislexia duen haur batek irakurtzen ari den testua ulertzeko ahalegin handiak egin behar ditu. Hitzak identifikatzen denbora luzea ematen duenez, aurretik irakurritakoa ahaztu eta esanahi orokorra galtzen du. Beraz, hitzak identifikatzeko zailtasuna irakurritakoaren ulermenean eragiten du. Horrek ez du esan nahi ulermen estrategia desegokiak dituenik, beste norbaitek testua boz-goran irakurtzen

dionean arazorik gabe ulertzen du eta. Hala ere, haur dislexikoek irakurketan dituzten arazoan ondorioz, lexikoa gehitzeko eta ulermenean sakontzeko ezagutzak bereganatzeko aukera gutxiagoa dute.

7. Irakurketa zailtasunak aurkezteko arrisku faktoreak

Goian aipatutako ezaugarri gehienak ezin dira detektatu haurra irakurtzen hasi arte. Gure Curriculumean hori ez litzateke lehen hezkuntzako lehenengo ziklora arte izango, atzerapen hori kaltegarria suertatuz zailtasunen esku-hartzerako.

Hala ere, irakurtzen ikasteko zailtasunen lehen zeinuak haur hezkuntzan azaltzen dira. Hau da, irakurketaren bereganatzea eta dislexia izateko arriskua prozesu etengabeak direnez, haur baten arrisku aldagaiak neurtu daitezke eta maila definitu irakurtzen hasi baino lehen (Lonigan, 2006). Zeinu horietatik bereizgarrienak kontzientzia fonologikoan ematen dira (Jiménez y Venegas, 2004; Bridges y Catts, 2011), etorkizuneko irakurketa abileziaren iragarletzat hartzen dena (Bravo-Valdivieso, Villalón eta Orellana, 2006). Baina horretaz gain, badira beste arrisku zeinu batzuk ere; izendatze arinaren abiadura, printzipio alfabetikoa, hitzeko oroimena, hartze-adierazpen hizkuntza eta idatzitakoaren kontzientzia (Catts et al., 2001; Bowey, 2008).

Beraz, dislexia azaltzeko arrisku-zeinu horien identifikazio eta esku-hartze lasterrak irakur-idazketaren garapen egokia izateko aukerak areagotzen ditu (Hidson, 2005; Hulme y Snowling, 2009).

Dislexia izateko arriskuaren gainean egin diren ikerketetan, goian aipatutako zeinu lasterrez gain familia-arriskuak (gurasoren bat edo neba-arrebaren bat dislexia badu) ere kontutan hartu dira. Dislexiaren **herentzia-oinarriek** arriskuan dagoen ume bat identifikatzeko aukera ematen dute eta ikerketa ezberdinetan islatu denez, guraso edo neba-arreba dislexikoak dituzten haurretan dislexia izateko arriskua %30 eta %50 bitartekoa (Puolakanaho et al., 2007; McBride-Chang et al., 2011).

Ildo berean, ikerketa ezberdinek, jaiotzean izandako pisuak eta prematuritateak ikaskuntzan eragin negatiboa dutela frogatzen dute, batez ere, irakurketa-idazketaren bereganatzean (Fernández Batanero 2011; Bhutta, 2002)

Beraz, aipatu denez dislexia izateko arrisku egoeran dauden haurrak identifikatzeko haur hezkuntzan ematen diren hizkuntza arazoaren zeinu lasterrak identifikatu behar dira.

Hindson et al. (2005) eta Lonigan (2006) autoreek haur hezkuntzako haurrek zailtasunak hiru alderdietan aurkez ditzaketela baieztatu dute: prozesatze fonologikoan (kontzientzia fonologikoa eta epe laburreko oroimen fonologikoa), hizkuntzaren ahozko abilezietan (hiztegia eta sintaxia) eta idatzitakoarekin erlazionatutako prozesuetan (idatzitako hitzak eta hizkiak edo esaldien ulermena).

- **Prozesatze fonologikoa**

Ahozko hizkuntzaren garapen-zailtasunen artean ere **nahasmendu fonologikoak** (hizketaren soinuen bereizketa eta erabilerari dagozkionak) dira irakurketa urriarekin zuzenki erlazionatzen direnak (REDIE, 2012). Nahasmendu fonologikoak zenbat eta larriagoak izan irakurketaren emaitzak txarragoak izango direla frogatu da (Snowling, 2008). Hiztegi egokia bilatzeko, errimeez ohartzeko, hitzak oroitzeko, berbaldia egituratu edota antolatzeko zailtasunak eta, ahoskera akatsak antzematen dira hain zuzen ere.

Ikerketetan frogatu denez zailtasun fonologikoak eta metafonologikoak dira ondorengo dislexiaren iragarle sendoenak (Pennington eta Lefly, 2001, Hindson, 2005).

Bestalde, kontzientzia morfologikoaren arazoei irakurketa zailtasunak iragarri ditzaketela frogatu da ere (McBride-Chang et al., 2005). Kontzientzia morfologikoa prozesatze fonologikoarekin eta hiztegiaren bereganatzearekin erlazionatzen den arren, independenteki garatzen da.

- **Hizkuntza ahazko abileziak**

Kontzientzia fonologikoa gain, badira beste zeinu goiztiar batzuk dislexiarekin erlazionatzen direnak. Hau da, zailtasun fonologikoen "per se" ez dute irakurketa urriaren azalpen osatua ematen. Gainera azterlan ezberdinek dislexia hizkuntza arazo orokorra bezala jotzen dute, denboran zehar bere adierazpenak aldatuz doana (Nation eta Snowling, 2004; Scarborough, 2005). Bide berean, dislexia garatu duten haurrek aurreko urteetan hiztegia, ahazko ulermena eta abilezia sintaktiko urriagoak azaltzen zituztela ikusi da (Gallagher, Frith eta Snowling, 2000). Gainera, azterketa prospektibotan ahazko hizkuntza eta hizketaren pertzepzio gabeziak nabaritu dira aurrerantzean dislexia garatu duten haurretan (Lyytinen, Ronimus, Alanko, Poikkeus eta Taanila, 2008; Snowling, Gallagher eta Frith, 2003).

- **Idatzitakoarekin erlazionatutako prozesuak**

Kontzientzia fonologiko eta ahazko hizkuntza arazoez gain, dislexia izateko arriskua duten haurrek bikote elkarketak egiteko arazoak ere azaltzen dituzte, batez ere, hitzezko-ikusizko asoziazioei dagozkienak burutzeko (Hulme, Goetz, Adams eta Snowling, 2007). Arazo honen ondorioak izan daitezke hizkiak izendatzeko zailtasunak eta izendatze automatiko arinaren emaitza urriak. Izan ere, ikerketa batzuek frogatu dute, kontzientzia fonologikoko zailtasunek soilik ez dituztela

irakurketa zailtasunak iragartzen baldin eta izendatze arinaren abilezia urriekin batera ez badatoz (Bishop, McDonald, Bird eta Hayiou-Thomas, 2009). Scarborough-ek (2005) idatzitakoaren kontzientzia eta hizkien ezagutza irakurmenaren iragarle hoberenak direla adierazi du, beraz, abilezia horietako zailtasunak dislexia garatzeko arrisku aldagaiak izan daitezke.

Aurrekoarekin bat datoz azken urteetan egin diren ikerketa ezberdinak. Horietako batean, hain zuzen ere dislexia izateko familia arriskua zuten haur finlandiar batzuekin egindako luzetarako ikerketa batean, izenen ezagutza, izendatze arina, morfologia eta kontzientzia fonologiko aldagaiak dislexia izateko iragarleak direla frogatu da (Torppa, Lyytinen, Eklund eta Lyytinen, 2010). Catts et al. (2001) ikerlariek egindako beste azterlan batean, 5 urteko haurrek islatzen zituzten hizkien ezagutza, esaldien imitazioa, kontzientzia fonologikoa, izendatze arina eta amaren hezkuntza, irakurketa zailtasunak iragarri zituztela frogatu zuten. Modu berean, Puolakanaho et al. (2007) autoreek dislexia izateko probabilitatea neurtu zuten; familia-arriskua, kontzientzia fonologikoa, hizkien ezagutza eta izendatze automatiko arina aldagaiek 3'5 urteko haur batean dislexia izateko arriskua detektatzea ahalbideratzen dutela frogatu zuten.

Beraz, ikerketa ezberdinek dislexia izateko iragarleetan bilakatzen diren zeinu komun batzuk aurkezten dituzte. Zeinu horien detekzio goiztiarrak ikerketa honetan aurkezten den esku-hartzeak aurrera eramateko funtsezkoak dira.

8. Dislexia azaltzen duten hipotesiak eta teoriak

Irakurketa zailtasunen historian bere etiologia azal dezakeen teoria baten bilaketak desadostasun handiak sortu ditu ikerlarien artean. Dislexiaren definizioarekin azaldu diren kontraesan guztiak, irakurketa beraren konplexutasunak eta medikuntza edo psikologia bezalako zientzia ezberdinetatik egin diren ikerketa independenteak, dislexiaren jatorriaren gaineko hipotesi ugari sortzeak eragin dute.

Gaurko hipotesiek dislexiak jatorri neurologiko eta genetikoa duela esaten dute baita kognitiboki prozesatze fonologiko desegokiaren ondorio dela ere. Baina oraindik zalantzan jartzen da prozesatze fonologikoaren nahaste hori bakarra baden edo beste nahaste kognitibo batzuekin batera ematen den.

Horrela, lau teoria nagusik azaltzen dute egungo corpus zientifiko garrantzitsuena eta lau teoriak lan ildo ezberdin bitan bereiz daitezke; batetik, dislexia defizit kognitibo bakar eta espezifikoa batek eragiten duela dion ildoak, eta bestetik, defizit kognitibo horiek beste defizit orokorrago baten ondorio baino ez direla esaten duen ildoak (Soriano, 2004).

8.1. Defizit espezifikoa oinarritutako teoriak

Ikuspegi honetatik teoria bi izan dira dislexia ebolutiboaren azalpena ematen saiatu direnak; **fonologia defizitaren hipotesia** eta **prozesatze abiaduraren hipotesia**. Baina bada hirugarren teoria bat aurreko biak integratzen saiatu dena ere; defizit bikoitzaren hipotesia.

8.1.1. Nahaste fonologikoaren hipotesia

Ikerlarien artean akordio gehien lortu duen hipotesia dislexiaren oinarrian nahaste fonologikoa dagoela baieztatzen duena da. Honen arabera, hurrek berbaldia kode linguistikoetan bilakatzeko arazoak azaltzen dituzte, baita kodeak lan-oroimenean manipulatzeko eta epe luzeko oroimenean gordetzeko eta berreskuratzeko (Vellutino, Fletcher, Snowling eta Scanlon, 2004).

Irakurketaren ikaskuntzan printzipio alfabetikoa eta fonema-grafema korrespondentzia bereganatzeko funtsezkoa da kontzientzia fonologikoa. Izan ere, kontzientzia fonologikoaren nahasteak grafema-fonemaren deskodetzea eragozten du eta ondorioz hitzen ezagutza. Horrela, grafema-fonema bihurtze-arauen ikaskuntza horretan, fonemen ordezkariak bilatzeko zailtasunak azaltzen dira (Bishop eta

Snowling, 2004), eta lexiko mental ortografikoaren garapena oztopatzen da, bide lexikoaren erabilera ere mugatuz (Mody, 2003). Beraz, nahaste fonologikoaren hipotesian arazo nagusia hitz idatziak ezagutzeko zailtasuna dela esan daiteke (López-Escribano, 2007).

Nahaste fonologikoaren hipotesia kritikatu izan da, batez ere, fonologia-defizita irakurketa ikaskuntzaren etapa soil batekin erlazionatzen delako. Baina ikerketa ezberdinek kontrakoa frogatu dute. Horrela, irakurketa errendimendu baxua duten ikasleek adin berdineko ikasleekin (irakurketa errendimendu berdindunak) eta irakurketa maila berdineko haur gazteagoekin alderatu dira eta lehenengoek abilezia fonologiko eskasagoak azaltzen dituztela frogatu da (Cuadro eta Marín, 2007). Beraz, fonologia-defizita dislexia duten haurretan baino ez da ematen, eta ez da irakurtzen ikasten ari diren haurren ezaugarria.

Maila neuropsikologikoan neuroirudi tekniken garapenak garunaren anatomia eta funtzionamendua aztertzeko aukerak zabaldu ditu. Ikerketa horietan jardura fonologikoak egiterakoan haur dislexikoek garun aktibazio patroia anormala azaltzen dutela frogatu da. Aktibazio maila baxuagoa islatzen dute ezkerreko hemisferioko zonalde perisilbianoan eta aktibazio altuagoa eskumako hemisferioko zonalde perisilbianoan (Shaywitz et al., 2003). Gainera, anormaltasun neuroanatomikoak aurkitu dira zonalde perisilbiano horietan, ektopiak eta displasiak bilatuz (Galaburda, Sherman, Rose, Aboitiz eta Geschwind, 1985).

8.1.2. Prozesatze abiaduraren nahaste hipotesia

Hurrengo hipotesia objektu, hizki edo zenbakien izendatze automatiko arinaren inguruan sortu den eztabaidan du oinarria, hau da, Dencla eta Rudel autoreek (1976) sortu zuten RAN (*Rapid Automated Naming*) teknikak biltzen dituen prozesuen eztabaidan. Eztabaida horretan, autore batzuek izendatze automatiko arina kode fonologikoak berreskuratzeko zailtasunen neurria dela esaten duten bitartean, beste batzuek, prozesatze abiaduraren neurria ematen duela esaten dute. Hala ere, argi dagoena teknika horrek hainbat azpi-prozesu biltzen dituela da. Besteak beste;

- Estimuluekiko arreta
- Hizkien identifikazioa, diskriminazio bisuala eta ezaugarri fisikoen detekzioaz arduratzen diren prozesu bisualak.
- Informazio bisualaren integrazioa
- Informazioa fonologikoaren integrazioa

- Etiketa fonologikoaren berreskurapena
- Informazio semantikoaren integrazioa
- Artikulazio mugimenduen aktibazioa

Izan ere, prozesu guzti horiek irakurketaren errepresentazio txiki bat direla esatera eraman die autore batzuei (Ortiz, 2004). Horrela, irakurketa zailtasunak dituzten hurrek prozesatze abiaduraren nahasteak islatzen dituzte, hots, izendatze automatiko arinean ematen diren azpi-prozesuetan zailtasunak azaltzen dituzte (Dencla eta Rudel, 1976). Gainera izendatze abiaduraren nahastea hizkuntzaren ortografia ezaugarrien independentziaz ematen da. Ortografia erregularretan, euskara edo gaztelera bezalakoetan, izendatze abiadura irakurketa zailtasunen arrisku adierazle hoberenean bilakatuz (Wolf eta Bowers, 1999).

Hipotesi honek izendatze automatikoaren abiadurak patroï ortografikoen ezagutzan parte hartzen duela proposatzen du. Baina prozesatze horren geldotasunak hizkien identifikazioan eragiten du, hizkien patroïak ezagutzea oztopatuz. Patroï fonologiko eta ortografikoen arteko erlazioak zailtasunez burutzen direnez, oroimenean errepresentazio ortografiko gutxiago gordetzen dira eta praktika gehiago behar izango da patroïak identifikatzeko. Hori dela eta, izendatze abiadura arina duten hurrek arinago erantzuten dute ezagutzen dituzten patroïen aurrean; izendatze abiadura geldoa dituztenak, ordea, ez diote familiaritate horri erantzuten (Lemoine, Levy eta Hutchison, 1993).

8.1.3. Defizit Bikoitzaren hipotesia

Aurreko hipotesien argudioak erlazionatuz, Wolf eta Bowers (1999) autoreek Defizit Bikoitzaren hipotesia proposatzen dute. Hipotesi horretan bai kontzientzia fonologikoaren defizitak zein prozesatze abiaduraren defizitak irakurketa zailtasunak modu independentean azaltzen dituztela esaten da eta defizit bien agerpenak irakurketa zailtasun larriak eragingo dituela baieztatzen da. Hipotesi honetatik ondorioztatu daiteke kontzientzia fonologikoan arazoak dituzten baina izendatze abiadura egokia duten dislexikoak egon daitezkeela, alderantziz, izendatze abiaduran zailtasunak baina kontzientzia fonologiko egokia duten dislexikoak eta abilezia bietan arazoak dituzten dislexikoak.

Beraz, hipotesi honetan kontzientzia fonologiko eta izendatze abiadura zailtasunak irakurketa arazoen iturri ezberdin bidez jotzen dira.

Ondorioz, aipatutako hiru dislexia motak identifikatzen dituzte; dislexia fonologikoa, azaleko dislexia eta dislexia mistoa.

Hala ere, hipotesi honen jarraitzaileek irakurketa zailtasunen oinarritzko arrazoitzat ez dute izendatze abiadura hartzen. Dislexia beste prozesu batzuen gaitzen ondorio dela azpimarratzen dute, batez ere, automatizazio arazoen ondorio. Hau da, maila baxuko prozesuen geldotasunak izendatze abiadura defizita eragiten du eta horrek irakurketa jarioetasunaren zailtasuna (Bower eta Swanson, 1991).

8.2. Defizit Orokorrean oinarritutako teoriak

Defizit orokorrean oinarritutako teorien arabera dislexia ebolutiboa lehen mailako defizit baten ondorio da, zentzumen defizit batekin edo disfuntzio zerebelarrarekin erlazionatzen dena. Teoria horiek ez dute ezeztatzen fonologia defizita ematen denik baina horien ustetan dislexia defizit sentsorimotor orokorrago baten ondorioa da. Azken urteetan teoria horiek batu egin dira dislexiaren *teoria magnozelular orokorra* sortzeko (Stein, 2001). Azken teoria horren arabera, irakurketa zailtasunak defizit fonologiko eta bisualen ondorioz ematen dira. Baina defizit fonologiko eta bisual horiek oinarri biologikoa duten entzumen eta ikusmen ezgaitasun orokorragoekin erlazionatzen dira. Ezgaitasunek bide sentsorialeko zeluletan ematen den disfuntzio magnozelularrean dute oinarria eta zerebelora ere zabaltzen dira, defizit motorrak sortuz. Beraz, teoria magnozelularrean arabera dislexia defizit sentsorimotor zabala da.

8.2.1. Zentzumeneren defizita

Irakurtzeko defizitaren jatorria estimuluen aurkezpen-frogetan aurkitu ziren prozesamendu auditibo eta bisualen zailtasunetan dago (Tallal, Miller eta Fitch, 1993). Modu berean, aurrekoarekin bat egiten duten ikerketa neuroanatomikoak ere bilatu dira, prozesamendu sentsorial horiekin erlazionatzen diren zonaldeetan anormaltasunak bilatu dutelarik. Hain zuzen ere, Galaburda, Menard eta Rosen autoreek (1994) prozesamendu bisualarekin erlazionatzen den alboko nukleo genikulatuak eta prozesamendu auditiboarekin erlazionatzen den Erdiko nukleo genikulatuak tamaina txikiagoa zutela ikusi zuten.

Teoria honetan azpimarratzen denez, prozesamendu bisualak sistema magnozelularrekin erlazionatzen dira. Sistema magnozelularra eta sistema parbozelularra erretinatik kortexera doazen oinarritzko bide bisualak dira. Sistema magnozelularra estimulu laburrez,

mugimenduaz eta kontraste edo frekuentzia baxudun estimulazioaz arduratzen den bitartean, sistema parbozelularra, koloreen prozesamenduaz eta kontraste edo frekuentzia altudun estimulazioaz arduratzen da.

Dislexia duten hurrek estimulu arteko mugimendu-abiadura detektatzeko zailtasunak islatzen dituzte eta estimulu arteko denbora luzeagoa behar dute ezberdinak direla identifikatzeko (Stein, 2001). Hala ere, kontraesan ugari azaldu dira ikerketetan eta badirudi oraindik defizit bisualaren hipotesi magnozularra zalantzan jartzen dela (Ramus, 2003).

Entzumen prozesamendu defizitari dagokionez, lehen urratsak Tallal-ek (1980) egin zituen. Zehazki, entzumen defizit horiek estimuluak aurkeztean azaltzen ziren hautemate zailtasunekin erlazionatu zituen. Ondoren, frekuentzia, intentsitate eta soinuak zarartetatik bereizteko zailtasunak bilatu ziren dislexikoetan (McArthur eta Bishop, 2001). Beraz, ikerketa horietan entzumen hautemate zailtasunek (bereziki arin eta jarraian azaltzen diren estimuluak prozesatzeko) ordezkapen fonologikoa gauzatzea eragozten dutela baieztatzen da. Hau da, entzumen hautemate zailtasunek defizit fonologikoa eragiten dutela onartzen da.

Hala ere, defizit bisualekin gertatzen den bezala, azken urteetan kontraesanak agertu dira (McArthur eta Bishop, 2001). Batez ere, zailtasun fonologikoekin konparatuz bere intzidentzia baxua kritikatzan da. Izan ere, soilik dislexikoen %45ak aurkezten ditu entzumen edo ikusmen arazoak (Ramus, 2003).

8.2.2. Defizit zerebelarra


Dislexikoez zerebeloak kudeatzen dituen abilezia ezberdinak automatizatzeko arazoak azaltzen dituzte. Horretan oinarrituta, Nicolson eta Fawcett-ek (1990) automatizatzeko defizit orokorra defizit zerebelarraren ondorioa dela eta irakurketa bizkorra eragozten duela baieztatzen dute. Zerebeloa gaitasun motorrak kontrolatzearen arduraduna da baita abilezien ikaskuntza eta automatizazioa burutzeko arduraduna ere. Beraz, bere disfuntzio batek irakurketaren automatizazioan eragin dezake.

Hortaz, ikerketa batzuetan dislexikoez oreka mantentzeko, mugimen-sekuentziak ikasteko, hariztatzeko edota esku bien koordinazioa eskatzen duten ariketetan arazoak islatzen dituztela frogatu dute (Fawcett eta Nicolson, 1999). Gainera, zailtasun berberak bilatu dira ere dislexiko helduetan (Stoodley eta Stein, 2006).

Neuroirudiko ikerketek aurrekoarekin bat egiten dute, dislexikoen garunetan zerebeloaren aktibazio urriagoa deskribatzen dutelako. Gainera, konpentsazio-estrategien ondorioz, zonalde frontaletan aktibazio maila altuagoa azaltzen da (Nicolson eta Fawcett, 1999).

Neuroanatomikoki ere berezitasunak bilatu dira. Irakurle normalen zerebeloa asimetrikoa den bitartean (ezkerraldean materia gris gutxiagoa islatuz), dislexia duten pertsonetan hemisferio-arteke simetria azaltzen da (Eckert, 2004).

Nicolson eta Fawcett-ek (2004) zerebelo-alterazioak zailtasun fonologikoekin eta irakur-idazketa ikaskuntza arazoekin erlazionatzen dituzte, 12. irudian azter daitekeenez,.



Irudia 12. Defizit zerebelarraren hipotesia (Nicolson eta Fawcett, 2004).

Beste ikerketa ezberdin batzuk ere defizit zerebelarraren eragina islatzen dute. Ramus et al. (2003a) autoreek eginiko ikerketan adibidez, aztertu zituzten dislexikoen %59ak lan zerebelarratan zailtasunak azaltzen zituzten eta %77ak defizit fonologikoa islatzen zuten. Chaix et al. (2007) ikerlariak antzeko portzentajeak bilatu zituzten. Hala ere, kasu horien %75ak arreta arazoak ere aurkezten zituztela azpimarratu zuten, hori dela eta zalantzan jartzen da koordinazio eta mugimendu zailtasunak arreta arazoaren ondorio badiren.

8.3. Hipotesi genetikoak

Hipotesi genetikoa familia-historiari eta bikiei buruz eginiko ikerketetan du oinarria. Horrela, azken urteetan burutu diren genetika kuantitatiboaren ikerketek dislexiaren heredabilitateari buruzko datu fidagarri asko eman dituzte. Horietako ikerketa batzuetan, guraso dislexikoen %37ak irakurketan zailtasunak dituen seme-alabaren bat dutela frogatu da. Aldiz, irakurtzeko zailtasunak ez dituzten gurasoek haur dislexikoa izateko %5eko probabilitatea baino ez dute (Grigorenko et al., 2003). Beraz, guraso dislexikoen seme-alaben kasuan dislexia izateko probabilitatea ia 8 aldiz handiagoa dela esaten daiteke (Grigorenko, 2001).

Bestalde, biki berdin-berdinen (gemelos) eta biki ezberdinen (mellizos) arteko ikerketek ere hipotesi genetikoa bermatzen dute. %85-100 bitarteko karga genetikoa duten biki berdinen kasuan, batek dislexia badu beste bikiak dislexia izateko probabilitate oso handia du ere; baina biki ezberdinen kasuan, probabilitatea ez da hain argia, %30eko karga genetikoa baino ez dutelako partekatzen.

Aurreko ikerketek genetika molekularreko azterlanak abian jartzea eragin dute. Horietan 9 suszeptibilitate-loci⁵ aurkitu dira 8 kromosoma ezberdinetan (Benitez-Burraco, 2007). Baina irakurketa gure garunean programatuta ez dagoenez, ezin daiteke esan dislexiaren gene bakarra aldatua dagoela dislexian. Beraz, gene ezberdinen nahasmenduaren ondorio dela esan daiteke, zehazki, irakurketan parte hartzen duten funtzio linguistiko oinarritzkoen arduradunak diren gene multzoena (REDIE, 2013).

Dislexiaren gene arduradunen artean 6. kromosoman kokatzen den DCDC2 genea izan da azpimarragarriena eta ikertuena. Hala ere, animaliekin eginiko ikerketetan frogatu denez, badira beste gene batzuk ere garun-azalaren garapenean eta neuronon kortexerako migrazioan parte hartzen dutenak; DYX1C1, KIAA0319, DCDC2 eta ROBO1, hain zuzen ere. Beraien alterazioek dislexikoen garuneko neurona migrazio patroia berdinak islatzen dituzte (Fisher eta Francks, 2006).

Beraz, dislexia duten pertsonen garunetan hizkuntzarekin erlazionatzen diren zonaldeek ezberdintasun morfologiko eta metabolikoak azaltzen dituzte. Ezberdintasun horiek haurdunaldian gertatzen dira eta badirudi aldagai genetikoak direla irakurketaren

⁵ Gene baten posizio finkoa kromosoma batetan

prozesamendua burutzen duten garun-egiturak aldatzearen
arduradunak.

9. Ikaskuntza Zailtasunen esku-hartzea

Historian zehar, Ikaskuntza Zailtasunak eredu teoriko ezberdinetatik aztertu dira eta horietako bakoitzaren printzipioen arabera, ebaluazio eta esku-hartze ezberdinak garatu dira. Horrela, hurrengo lerroetan hiru eredu teoriko nagusien ekarpenak birpasatuko dira (Ortiz, 2004).

9.1. Ikaskuntza zailtasunen esku-hartzea eredu ezberdinen arabera

9.1.1. Ikaskuntza zailtasunen esku-hartzea Prozesuen Ereduen arabera

Oinarrizko eskola-ikaskuntzak garatzeko behar diren prozesu eta funtzio pertzeptibo-motorrak zein linguistikoak aztertzen ditu, ondoren, ikaskuntza zailtasuna azaltzen duen hipotesi neuropsikologikoa garatuz.

Beraz, zeharkako esku-hartzea planteatzen da, garapen pertzeptibo-motorra eta linguistikoaren normalkuntza bilatzea helburu duena.

Eredu honetan "heldutasuna" kontzeptuaren garrantzia azpimarratzen da, non, ikaskuntza berri bat barnertzeko haurrak behar dituen abilezien garapen-momentu egokia itxaron behar den.

Prozesuen ereduan oinarritutako esku-hartzeen artean, Frostig, Horne eta Miller-rena (1972) dugu, hautemate bisuala ikaskuntzarako gakoa dela esaten duenak eta esku-hartzea koordinazio bisomotorran, irudia eta atzeko planoaren bereizketan, formaren egonkortasunean eta espazioaren erlazioen berreskuratzean oinarritzen dena. Beste esku-hartze eredu bat Kirk eta McCarthy-rena (1961) izango zen; hizkuntzaren prozesatzean parte-hartzen duten mekanismo neuropsikologikoa azaltzen saiatzen dena. Eredu horren arabera, kanpo estimuluaren eta ikusten den erantzunaren artean barneko erantzun bat dago, hain zuzen ere esanahia ematen diona estimulari. Ideia horretan oinarrituta ITPA ebaluazio-froga (*Test de Habilidades Psicolingüísticas de Illinois*, 1968) garatu zuen subjektuaren profil psikolinguistikoa ematen duena eta horren araberako esku-hartzea definitzen duena. Azkenik, aurreko autoreen ekarpen biak biltzen dituen Valett-en lana dago (1984).

Hala ere, 70.eko hamarkadan prozesuen ereduak kritika ugari jaso zituen, esku-hartzearen eraginkortasun urriagatik eta onura bakarrak eskolako ekintzetara orokortzeko ezintasuna zela eta (Hammill eta Larsen, 1974; Ysseldyke eta Salvia, 1974).

9.1.2. *Ikaskuntza Zailtasunen esku-hartzea Eredu Konduktualaren arabera*

Eredu honetan ebaluazioa eta esku-hartzea behatu daitezkeen jokaeretan zentratzen dira, hain zuzen ere, hezkuntza jokaeretan. Beraz, curriculumean burutzen da ebaluazioa, ikaslea berari dagozkion helburuak bete dituen ala ez ebaluatuz. Hortaz, esku-hartzea ikaslearen errendimenduari egokia den curriculum-maila jartzean datza.

Eredu honetan **zereginen analisisia** ebaluazioaren eta esku-hartzearen elementu gakoa da. Zeregin bakoitza osagai ezberdinetan banatzen da eta ikasleak osagai horietako batean zailtasunak islatzen baditu, osagai hori beste osagai sinpleagoetan banatu behar da. Ondoren osagaiak hierarkikoki ordenatzen dira ebaluazioa eta esku-hartzea diseinatzeko.

Instrukzio zuzena inplikatzan duen eredu hau irakaskuntza ereduetatik eraginkorrenetarikoa dela frogatu da (Swanson, 1999). Hala ere, kritikak ere jaso ditu, batez ere, esku-hartutako jokaeretan ikasitakoa entrenatu ez diren jokaeretara orokortzeko ezintasunagatik (Lyon eta Moats, 1997).

9.1.3. *Ikaskuntza Zailtasunen esku-hartzea Eredu Kognitiboaren arabera*

Prozesu kognitiboen esku-hartzea, adituek edo ikasle eraginkorrek nola ebazten dituzten arazoak behatzean datza. Beraz, gogoeta ozenki eginez eta modelaketaren bitartez, ezagutzak bereganatzeko, arazoak ebazteko edota zeregin bat burutzeko behar diren prozesu kognitiboak bideratu nahi dira.

Eredu honetan, ikaskuntza zailtasunak dituzten haurrek jarduera zehatzak egiterakoan estrategia eta prozesuetan azaltzen dituzten arazoak ebaluatzen dira. Horren arabera, esku-hartzea zailtasun horien entrenamenduan datza, abilezia kognitibo, metakognitibo eta eskola oinarrizko ikasketak esku-hartuz.

9.2. **Irakurketa Zailtasunen (IZ) esku-hartzea**

Ondoren azalduko diren esku-hartzeak ikerketen emaitzetan oinarritzen dira. Horrela bada, egun jakina da irakurtzeko zailtasunak dituzten haurrek ezintasun linguistikoa eta ez motorra dutela. Hortaz, esku-hartzea bereganatu ez dituzten irakur sistemaren osagaietan zentratu behar da, esku-hartzea ezberdina izanik berreskuratu behar diren prozesuen arabera.

Hala ere, egun burutzen diren esku-hartze askok ikerketetan oinarria badute ere, horietatik haurrentzako egokiena zein den aukeratu behar da. Horretarako, lehenengo eta behin nahasmenduaren kausak hausnartu behar dira (Snowling, 2013), kaltetuta dauden prozesuak ezagutzeak esku-hartzearen edukia eta diseinua egituratzeko bidea zehaztuko duelako. Horren ildora, Carrillo, Alegria, Miranda eta Sanchez (2011) autoreek dislexia ebolutiboa eta IZ detektatzeko erreminta aurkeztu dute. *DIS-ESP* erreminta teoria fonologikoan oinarritzen da eta kaltetuta dauden irakur-mekanismoak analizatzen ditu. Bere barne hartzen dituen frogek irakurmenaren eraginkortasuna, hitzen identifikazioa (maila fonologikoan eta ortografikoan) eta prozesu fonologikoak aztertzen dituzte. Erremintak iragarpen fidagarriak egiten dituela eta, irakurmen atzerapena eta dislexia ebolutiboaren arteko diagnostiko diferentziala egiteko gai dela demostratu da (Luque, Carrillo, Alegria, Bordoy eta López-Zamora, 2012)

Bigarrenez, esku-hartzearen printzipioak eta umearekiko egokitasuna aztertu behar dira. Snowling eta Hulme-ek (2011) esku-hartze ezberdinak aztertu ostean, esku-hartzeak sistematikoak, ondo egituratuak eta sentsorial-anitzak izan behar direla ondorioztatzen dute. Horretaz gain, esku-hartze egokiak kontsolidatzeko denbora eta berrikusketa jarraitua mantendu behar dutela diote. Autore horien ikerketan frogatzen denez, dislexiaren esku-hartze eraginkorrak, hizkien izenen entrenamendua, fonemen kontzientzia eta irakurketa/idazketaren bitarteko fonema-hizkien erlazionatzea gaineratzen ditu. Aitzitik, ulermen arazoak dituzten umeek bestelako beharrianak dituztenez, ahozko lengoian trebatzea, batez ere, hiztegia, izango litzateke onuragarriena (Clarke, Snowling, Truelove eta Hulme, 2010). Hala ere, badira dekodifikazio eta ulermen arazoak dituzten haurrak ere, eta horien kasuan bi esku-hartze moten nahasketa egitea gomendatzen dute. Azken eredu hori jarraitzen da MEC-ek (REDIE, 2012) dislexia duten haurrei erantzuteko eginiko gidan. Horretan esku-hartzeak bost alderdi barne hartu behar dituela diote; kontzientzia fonologikoa (kontzientzia fonemikoa bereziki), grafema-fonema korrespondentziak, irakurketa jariotasuna, hiztegia eta testuen ulermen estrategiak.

9.2.1. Prozesu ezberdinen esku-hartzea

Hurrengo lerroetan irakurketa zailtasunetan parte hartzen duten prozesuak berreskuratzeko aurrera eraman daitezkeen jarduerak zehaztuko dira. Horretarako, aintzat hartuko da dislexia duten hurrek

prozesu lexikoan zailtasunak dituztela eta prozesu lexikoa Colheart-en eredu dualaren (Colheart, 1978) arabera ulertzen dela.

- *Prozesatze fonologikoen berreskurapena*: Hitza zehaztasunez eta behar den abiaduran irakurtzeko, hitza egoki ezagutu behar da. Dislexia fonologikoa duten haurren kasuan, Colheart-en ereduaren bide azpi-lexikoa ez dute ondo garatuta eta horrek hitzak ezagutzeko zailtasunak eragiten diete (Cuetos, 2011). Hau da, grafema-fonema konbertsio-arauak ikasteko zailtasunak dituzte, beraz, lehen pausua prozesamendu fonologikoan azaltzen diren arazoak esku-hartzea da, grafema-fonema arauak automatizatzea, hain zuzen ere. Horretarako, fonemen bereizketa silabatan, fonemen bereizketa hitzetan, hitz bikoteen kategoriazioa, fonemak isolatzea, hitzak fonemetan banatzea, fonemak aurkeztuta hitzak sortzea eta fonemen ez-ikustea hitzetan bezalako jarduerak burutzea proposatzen dira Ortiz, García eta Guzmán-en (2002) esku-hartze programan. Programa horretan kontzientzia fonemikoaz gain, hizketaren pertzepzioa eta ahozko lan-adimena ere lantzen dira.

Hitza egoki irakurtzea lortzen bada eta hitz hori irakurketetan sarritan azaltzen bada, hitz horren irudikapena berez sortuko da lexiko bisualean. Beraz, bide lexikoa hobetzeko modurik hoberena grafema-fonema arauak bereganatzea izango da (Cuetos, 2011). Hala ere, badaude hitzak ondo irakurrita, hau da, grafema-fonema konbertsioak zuzen burututa, hitzen patroio ortografikoak memorizatzeke arazoak dituzten haurrek, gainazaleko dislexia edo dislexia mistoa duten haurrek hain zuzen ere. Haur horien kasuan prozesatze ortografikoaren esku-hartzea ere aurrera eraman behar da.

- *Prozesatze ortografikoaren esku-hartzea*: Eredu dualaren arabera, hitzak irakurtzeko automatikotasuna bide bisualaren bitartez lortzen da eta automatikotasun hori lortzeko beharrezkoak dira ohiko patroio ortografikoak ezagutzea eta hitzaren esanahia automatikoki berreskuratzea.

Gainazaleko dislexia eta dislexia mistoa aurkezten dituzten haurrek abilezia horietan azaltzen dituzte zailtasunak. Zailtasun horien esku-hartzerako hiztegi ortografikoa garatzeaz gain, hitzen esanahia arin berreskuratzeke gaitasuna ere hobetu behar da.

Lehenengo kasuan, hau da, hiztegi ortografiko minimoa garatzeke, RAVE-O (Wolf, Miller eta Donnelly, 2000) esku-hartze programan, patroio ortografiko arrunt bat duten hitzak

aukeratzeko jarduerak, patroï ortografiko antzekoa duten hitzak bereizteko jarduerak eta atal ortografikoak barneratzeko jarduerak proposatzen dira. Lehenengo eta behin, jarduerak zuzen burutu behar dira; ostean, patroï ortografikoak ezagutzeko abiadura eta automatikotasuna lantzeko denbora mugatzen da.

Bigarren kasuan, hots, hitzen esanahien berreskurapen arina lortzeko, hitz polisemikoekin erlazionatutako esanahien kopurua areagotu eta esanahiak eskuratzeko bideak gehitu behar dira (Kellas, Ferraro eta Simpson, 1988).

- *Irakurketa jariahortasunaren esku-hartzea:* Irakurketa jariahortasuna, idatzizko lengoia automatikoki ulertzeko behar den irakurketa gaitasun mailari egiten dio erreferentzia (Ortiz, 2004). Horretarako, beharrezkoa da idatzizko zeinuen dekodifikazioa automatizatu eta koordinatzea, estrategia kognitiboek ulermena bezalako prozesuak burutzean zentratuz. Hori lortzeko, irakurketa errepikatuen metodoa da (Samuels, 1979) aitzitik jariahortasuna lantzeko erabili den programa. Hala ere, metodo horrek kritikak jaso ditu, batez ere, lortutako emaitzak beste testu batzuetara orokortzen ez direlako (Stevenson eta Frederik, 2003) eta ulermena eta hitzen ezagutza (Vallalely eta Shriver, 2003) hobetzen ez delako. Hori dela eta, **irakurketa azeleratuen** metodoa garatu da (Brennitz, 2006), non programa informatiko baten bitartez irakurketa bizkortzea lortzen den.
- *Irakurketaren ulermen zailtasunak esku-hartzen:* Ulermena hobetzeak, hitzen ezagutzan parte hartzen duten prozesuak automatizatzea eta informazioaren prozesatze semantikoan parte hartzen duten estrategia kognitiboak garatzea suposatzen ditu. Azken horretarako, Vidal-Abarca (2000) autoreak printzipio batzuk zehazten ditu; estrategia eta bere xedearen irakaskuntza esplizitua, modelaketa, aurkezten diren testuen eta jardueren mailakatzea, askotariko praktika eta auto-erregulazioa. Autoreak irakurmena hobetzeko gomendatzen dituen jardueren artean, aurrezagutzak abian jartzea, irakurketa gidatua egitea (irakurketa zatitua eta irakurketa errepikatua burutu irakaslea eredu izanik) eta ulermen estrategiak (ideia nagusia bilatu, hiztegia landu, testuaren egitura aztertu eta, inferentziak eta iragarpenak egitea) burutzea daude.

9.2.2. *Esku-hartze lasterra*

Dislexiak oinarri neurobiologikoa duen heinean, esku-hartze eraginkorrek garun-funtzionamenduen aldaketak sortzen dituztela frogatuta da (Escribano eta Bermejo, 2008). Modu horretan, ikerketa ezberdinek dislexiaren esku-hartzeek sortzen dituzten garun-aktibazioak aztertu dituzte neuroirudi tekniken bitartez; Simos et al. (2002) autoreek prozesatze fonologikoan oinarritzen den hezkuntza esku-hartzea jaso eta gero, garun aktibazioa normalizatu egiten dela frogatu dute. Temple et al. (2003) ikerlariak entzumen entrenamenduan oinarritzen den esku-hartzearen ondorioak aztertu dituzte. Horrela, prozesatze fonologikoarekin erlazionatzen den kortex tenporoparietalaren aktibazioa gehitu egiten dela ikusi dute. Shawitz et al. (2004) autoreek esku-hartze fonologikoa irakurmen jariakortasuna hobetu egiten duela eta era berean, ezkerreko hemisferioaren aktibazioa gehitzen dela behatu dute. Simos et al. (2007) ikerlariak garun aldaketak bilatu dituzte irakur jariakortasuna eta dekodifikazioa lantzen duen esku-hartzea burutu ostean. Azkenik, Richards eta Berninger-ek (2008) esku-hartze intentsiboa izan eta gero garuneko zonaldeen arteko konektibitatea hobetu daitekeela demostratu dute.

Ondorioz, ikerketa horiek irakurketaren sistema neurologikoa plastikoak direla eta hezkuntza eta esperientziaren bitartez aldatu daitezkeela frogatzen dute (Escribano eta Bermejo, 2008). Beraz, haurren lehen urteetako garun plastizitate hori kontutan hartuz, zenbat eta arinago hasi esku-hartzea, emaitza hobekoak eta aldaketa neuronal nabarmenagoak emango direla esan daiteke.

Arazoa orduan dislexiaren diagnostikoa 7 edo 8 urte arte ezin dela egin izango litzateke. Hori dela eta, dislexia duten haurren zailtasunak hobetzeak, esku-hartze lasterra egin beharra suposatzen du, diagnostikoa egin arte itxaron gabe (Snowling, 2013; Torgesen, 2002; Soriano, 2013). Beraz, NICHD erakundeak (2005) gomendatzen duen bezala, esku-hartzea ahalik eta lasterren hasi eta epe luzean iraun behar du.

Esku-hartze horrek detekzio goiztiarra egin beharra suposatzen du baina oraindik ez daude dislexia azaltzeko arriskua duten haurrak identifikatzeko instrumentu-iragarle zehatzik. Izan ere, zenbait ikerketek instrumentu horien iragartzeko gaitasuna, irakasleen iritziekin parekatzen dituzte (Taylor, Anselmo, Foreman, Schatschneider eta Angelopoulos, 2000; Snowling, Duff, Petrou, Schiffeldrin eta Baley, 2011).

Beraz, nahiz eta irakurketa zailtasunak iragartzen dituzten abilezia kognitiboen identifikazioan aurrerapauso garrantzitsuak egin diren,

horien gaineko iragarpen zehatzak egitea instrumentu bakar baten bitartez zaila da (Puolakanaho et al., 2007; Snowling, 2013).

Zailtasun horiek gainditzeko, azken urteetan detekzio eta esku-hartzerako eredu berri bat jarri da martxan; *Erantzunean oinarritutako esku-hartzea*.

9.2.2.1. *Erantzunean oinarritutako esku-hartzea*

Orain dela gutxi arte, dislexia duten haurren identifikazioa "AK⁶ eta errendimendu arteko desadostasun irizpidearen" arabera burutu izan da. Hau da, AK altua duten irakurle atzeratuek eta AK baxua duten irakurle atzeratuek profil kognitibo eta neurologiko ezberdina aurkezten dutela pentsatu izan da. Izan ere, irizpide hori da gaur egun ere DSM-Vean abian dagoena eta aditu batzuek jarraitzen dutena. Baina irizpide honen erabilerak eztabaida ugari sortu ditu (Siegel, 2003). Ez dago ebidentzia zientifikorik ezberdintasun horiek frogatzen duenik (Jiménez eta Rodrigo, 2000). Alderantziz, ikerketa ezberdinek AKren eragina independentea dela frogatzen dute. Adibidez, Ordenagailuz Lagundutako Ikaskuntza (OLI) jaso eta gero bai AK baxuko zein altuko dislexikoek hobekuntza berdina lortzen dutela ikusi da (Jiménez et al., 2003). Gainera, Jiménez et al. (2007) autoreek eginiko beste ikerketa batetan, dislexiko eta irakurle normalen irakurketaren prozesu kognitiboak ebaluatu zituzten, beraien arteko ezberdintasuna AKri independentea zela bilatuz.

Beraz, frogatutako AKren erlazio ezak eta ikaskuntza zailtasun espezifikoez hezkuntza legedian txertatzeak, irakurketa zailtasunak identifikatzeko eta esku-hartzeko irizpideak zehaztea ahalbideratu dituzte. Irizpide horien bitartez, eskoletan irakurketa zailtasunak ekiditeko eta esku-hartzeko programak jarri dira martxan. Ebidentzia zientifiko gehien jaso duen programa **Erantzunean Oinarritutako Esku-hartzea (EOE)** izan da. Esku-hartze mota horren helburuak detekzio goiztiarra eta esku-hartzearen egokitasuna bilatzea dira. Ebaluazio jarraitua erabiliz, eskoletan hezkuntza erabakiak hartzea bideratzen ditu, esku-hartzearen intentsitatea eta baliabideak egokituz.

EOE programan lehenengo eta behin, ikaslearen ebaluazio goiztiarra gauzatu behar da, ikaskuntza zailtasunak azaltzeko arriskua duen ala ez zehazteko. Bigarren, ikerketa zientifikoan oinarrituriko prebentzio-esku-hartze programak jarri behar dira martxan eta hirugarren,

⁶ AK: Adimen Koizientea

ikaslearen garapena esku-hartze osoan zehar ebaluatu behar da (Jiménez et al., 2011).

Erantzunean oinarritutako esku-hartze ereduari hiru esku-hartze maila ezberdintzen dira (Davis et al., 2007; Fletcher eta Vaughn, 2009); 1.º mailan gelako haur guztiei zuzendutako irakurketaren ikaskuntza-irakaskuntza espezifiko bideratzen da. Maila honetan haur guztiak ebaluatzen dira eta ikaskuntza zailtasunak izan ditzaketen haurrak identifikatzen dira. Haur horiei jarraipena egiten zaie epe labur batean (5 asteetan adibidez) arrisku egoera onartu ala ezezteko. Arrisku egoera mantentzen dela ikusten bada haurrak 2. mailako esku-hartzea jasotzera pasatzen dira. Bigarren mailan haurrek esku-hartze espezifiko jasotzen dute, non abilezien garapena eta praktika gehigarria lantzen den. Haurrek 2. mailako esku-hartzearekin hobekuntza nahikorik ez badute azaltzen 3. mailako esku-hartzea jasotzera pasatzen dira. Azken maila horretan esku-hartzea intentsiboa da, haurren beharrei pertsonalizatua eta orokorrean bakarka gauzatzen da (Gilbert, Compton, Fuchs eta Fuchs, 2012).

Orduan, erantzunean oinarritutako esku-hartze ereduak haurrek eskolan azaltzen duten errendimendu baxuan jartzen du arreta, irakaskuntza-ikaskuntza baldintzak egokitzeko asmoz eta esku-hartze programa abian jartzeko. Egindako esku-hartze pertsonalizatuarekiko erantzuna ahula baden haurrak ikaskuntza zailtasunak dituela esan nahi du (Fuchs eta Fuchs, 2006).

Orduan, EOE ereduaren oinarrian **Prebentzioa** dago. Horrek suposatzen du ikasle askok programa horien bitartez zailtasunak hobetu eta eskolako martxa jarraitzea lortzen dutela.

Hala ere, gutxiengo batek ez du aurrerapenik egiten, hain zuzen ere, dislexia ebolutiboa duten haurrek. Orduan, zailtasun kognitibo larriagoak dituzten haur horientzako esku-hartze programa espezifikoak jarriko dira martxan.

Aurreko ikerketak aintzat hartuta, txosten honetan azaltzen den ikerketan esku-hartze laster bat proposatzen da, goian azpimarratzen den bezala, garunaren plastizitatea kontutan izanik emaitza hobekoak eta aldaketa neuronal nabarmenagoak lortzen direlako. Beraz, dislexia diagnostikatu aurretik eginiko esku-hartze bat proposatzen da, prebentzioan oinarria duena eta erantzunean oinarritutako esku-hartzearen irizpideak kontutan hartzen dituena. Hau da, dislexia izateko zeinuak azaltzen dituzten haurrei eta irakasleen bitartez arrisku egoeran identifikatutako haurrei zuzendutako proposamena da.

III. KAPITULUA
TEKNOLOGIA ETA IRAKURKETA ZAILTASUNAK

3

10. Teknologiaren integrazioa curriculumean

10.1. Teknologia Hezkuntzan integratzeko aurrera eraman diren hezkuntza-politiken bilakaera

Informazio eta Komunikaziorako Teknologiek (IKT) gehien eragin duten arloetariko bat hezkuntzarena izan da. IKTek dituzten ahalmenak informazioa komunikatzeko, gordetzeko, prozesatzeko, berrantolatzeko eta formatu ezberdinetan irudikatze, hezkuntza eraldatzeko tresna egoki batzuetan bihurtu dituzte (Ion et al., 2011). Hori dela eta, IKTek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen eta hezkuntza instituzioaren aldaketa bideratu dute, plan ezberdinen garapena bultzatuz azken 30 urteetan.

Espainiaren kasuan, 80. hamarkadan hasi zen teknologia berriak hezkuntza instituzio guztietara integratzeko prozesua. Lehenengo bolada horretan, ordenagailuen orokortzea bilatzen zen hezkuntzan. Horrela, informatikarekin erlazionatutako irakasgaiak gehitu, tresna informatikoak eskuratzeko diru-laguntzen programak bideratu, hezkuntza programa informatikoak sortu eta irakasleen formakuntzarako ekintzak burutu ziren (Area, 2006). Garai honetan teknologiak hezkuntzaren berrikuntza pedagogikoa bultzatuko zuela espero zen.

Beraz, Teknologia Berriak hezkuntzarako baliabide didaktiko bezala kontsideratzen hasi ziren eta horrekin hezkuntza informatizazio planak jarri ziren martxan. Lehenengo, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak Atenea Proiektua deituriko plan bat bultzatu zuen eta horren ondoren, "Plan de Nuevas Tecnologías de la Información y Comunicación", "Aldea Digital",... proposatu zituen. Horrez gain, autonomia erkidego bakoitzak bere plan propioak sustatu zituen (Euskadin: Hezkuntza Informatikaren Euskal Plana (H.I.E.P.), Kanariar Uharteetan: "Abaco"; Andaluzian: "Zahara"; Galizian: "Abrente"; Katalunian: "Plan de Informática Educativa",...)

90. hamarkadan, aurretik egindakoaren berrikusketa egin zen eta espero zen berrikuntza pedagogikoa ez zela eman ondorioztatu zen. Gainera, krisialdi ekonomikoaren eraginez, hezkuntza politikan beste lehentasun batzuk aurkitu ziren, aurretik martxan jarritako planak eta diru-laguntzak bertan behera utziz. Horrela azaldu zen LOGSE lege berria aplikatu zenean, hezkuntzari aplikatutako informatika edo teknologia berriek lehentasuna izaten utzi zutelarik.

XXI. mendearen hasieran, telefono mugikorren, telebista digitalaren, interneterako sarbidearen, komunikazio online zerbitzuen, ... orokortzearekin, IKTen zabalkundearen eta **informazioaren gizartearen**

garapenaren bolada dela esan daiteke. Halaxe, Europan **e-Europe** programaren bitartez, informazioaren gizartea bultzatu nahi izan da. Horrek, **e-Learning** programa hezkuntzan martxan jartzea ekarri du, non eskoletan interneterako sarbiderako laguntzak eta irakasleen formazioa bideratu diren.

Espanian, *e-Learning* programaren helburuak, "Informática XXI" eta "Internet en el Aula" planen bitartez lortu nahi izan dira. Hala ere, garai honetan azpimarratzekoak dira autonomia Administrazioetatik IKTak gure eskoletan ezartzeko bultzatutako programak (Euskadin: Premia Programa, Kanariar Uhartetan: "Medusa proiektua"; Andaluzian: "Averroes"; Galizian: "SIEGA"; Katalunian: "ARGO programa", ...)

Beraz, milenio berriaren hasieran, bigarren aldiz daude ikasgelak teknologia berriez hornitzeko planak, baina gabezia asko ikusi daitezke. Hala nola, autonomia erkidego bakoitzean plan desberdinak daudela eta ez dagoela beraien arteko parekotasunik; koordinazio falta gobernu zentrala eta autonomikoen artean ...

Beraz, beste herrialdeetan gertatu den bezala, politika aldaketa horietatik lortu diren emaitzak ez dira izan horren onak. Horrela, IKTen erabilera eta eragina ikertu duten nazioarteko txostenen arabera, bai azpiegitura eta baliabide teknologikoetan gastatu den dirua, bai irakasleen formazioan gastatu dena, irakasleen zereginetan islatu da baina ez irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen berrikuntzan (Area, 2008a).

Orduan IKTen integrazioaren arrakastarako burutu diren politika neurriez gain, bestelako aldagaiak funtsezkoak dira. Horietako aldagai garrantzitsu bat irakaslearen papera da (Aguaded, 2007). UNESCO-k (2008) azpimarratzen duenez, hezkuntza prozesuetan IKTak modu jarraian eta eraginkorrean erabiliz gero, ikasleek teknologia berriak erabiltzeko gaitasuna bereganatzeko aukera izango dute. Baina gaitasun horien bereganatzean irakasleak paper garrantzitsuena du; ikasteko aukerak diseinatzea eta IKTak erraz erabiltzeko giroa sortzea. Hori dela eta, funtsezkoa da irakasleak aukera horiek emateko prest egotea. Xede horrekin, *ECD-TIC* proiektuak (Unesco, 2008) IKTen gaitasuna berrikuntza pedagogikoarekin, ikasketa planekin eta eskola antolakuntzarekin konbinatzea bilatzen du.

Beraz, egungo garai honetan ematen ari den garapenaren helburua ez da teknologia berriak ikasgelan sartzea ezta irakasleriak horiekin gelan jorratzeko jarduerak prestatzea ere (egin beharreko gauza bat den arren, ez da bakarrik hori egin behar); transformazio prozesuan aurrera egitea eta eskola informazioaren gizartera egokitzea da egun dagoen erronka.

Aurreko erronka horrekin, gure ingurune hurbilean martxan dagoen proiektua Eskola 2.0 da. *Escuela 2.0* Gobernu Zentraleko proiektua aurrekari duena. EAEan dugun Eskola 2.0 programaren helburuak ohiko ikasgelak ikasgela digitalak bilatzea, irakasleak IKT-dun gaitasunetan trebatzea, ikasgeletako metodologia aldaketari laguntzea, eten digitala murriztea eta lan dinamikoa, parte-hartzailea, beste ikastetxeekin lankidetzan eta sarean sustatzea dira. Eskola 2.0 programan Web 2.0-ko baliabideak hezkuntza jardueretan erabiltzea bultzatzen da, ikasleen gaitasun digitala garatzeko eta horren bitartez beste oinarritzko gaitasunen garapena sustatzeko ere. Ondorioz, ikasleen ikasketa emaitzak hobetuko direla espero da.

Horretaz gain, Eusko Jaurlaritzak HEZIBERRI 2020 plana garatu du, Euskal Herriko ikasleen emaitzak hobetzeko orientabideak ematen dituena. 2015-2016ko ikasturtean martxan jarri nahi den plan horretan, Oinarritzko Hezkuntza amaitzen duen ikasleak konpetentzia digitala eta mediatikoa eduki behar duela azpimarratzen da, hau da, egungo herritarrek eskatzen duten alfabetizazio edo trebakuntza funtzional osoa garatu behar duela. Beraz, Oinarritzko Hezkuntza amaitzean, ikasle guztiek eduki behar dute **PLE** delakoa (Norberaren Ikaskuntza Ingurunea), hau da, norberak erabiltzen dugun tresna, zerbitzu eta konexioen multzoa, konpetentzia berriak eskuratzearekin lotutako helburuak lortzeko eta bizian zehar ikasteko.

Abian dugun azken neurriekin, ikastetxeen zaharberritze teknologikoan beste pausu bat ematen da, irakasleen eskuetan informazio eta komunikaziorako gizarteak eskaintzen dituen baliabideak jarriz (Franco eta Gomez, 2011).

10.2. IKTak hezkuntza prozesuaren baliabide didaktikoak

Aurreko puntuan islatzen denez, instituzionalki ahalegin handiak egin dira ikastetxeak teknologiaz hornitzeko, beraz, gaur egun ezin daiteke esan bere eskuragarritasuna erabiltzeko traba denik.

Hala ere, oraindik IKTak hezkuntza helburuaz erabiltzen diren, ikasleengan duten eragina edota iraka-ikaskuntza prozesuan hobekuntzak sortzen badituzten ikertzen jarraitzen da. Horrela, txosten ezberdinek azaltzen dutenez, baliabide teknologikoen presentzia eskoletan altua den arren, horrek ez du eragiten irakasleen hezkuntza praktikaren aldaketarik. Ondorioz, badirudi ohiko hezkuntzaren eredu tradizionala ez dela asko aldatzen (Balanskat, Blamire eta Kefala, 2006; BECTA, 2007). Irakasleek IKTen erabiltzaileak diren arren, teknologiaren erabilpena antolakuntza zereginetara eta informazioa transmititzera

mugatzeko dute (Plan Avanza, 2007). Beraz, benetako berrikuntza pedagogikoa eman dadin baliabide teknologikoak berritzeaz gain, materialen funtzio didaktikoak eta ikasleei eskatzen zaizkien jarduerak ere berritu behar dira. Areak (2008) aipatzen duenez, irakasleek planifikatzen dituzten IKT jarduerak gaurko hezkuntza eredua jarraitu behar dute; Eskola Berria eta Modernoaren printzipioetan oinarritu behar dira (esperientzian oinarritutako ikaskuntza, ezagutzaren eraikuntza gogoetatik abiatuta, talde-lana, bizitzako arazoaren ebazpena, inguruko materialen erabilera,...), baita Piageten konstruktibismo eta Vigotsky-ren ikaskuntza eredu soziokulturalaren ekarpenetan, zein Freire-ren alfabetizazio ereduaren ere. Hala ere, printzipio eta teoria horien ekarpenak gaurko errealitateara moldatu behar dira eta hori biltzen duen eta IKTetan oinarritzen den hezkuntza praktika eredu berritzea eragin behar dute. Horretarako hezkuntza eredu berri horrek hurrengoko ezaugarriak izan behar ditu (Area, 2008):

- Gaurko gizartean, ikasleek komunikabide ezberdinetatik jasotzen dituzten informazioa berreraikitzeke eta esanahia eman ahal izateko hezi behar dira. Baita, informazio hori modu argi, kritiko eta etikoan erabiltzeko gaitasunak garatu behar dituzte ere.
- Liburua ezagutzaren iturri bakartzat hartzen duen iraka-metodologia zalantzan jarri eta teknologi ezberdinetatik lor daitezkeen informazio biltzetak bultzatu behar dira. Baita, jasotzen diren datuen gogoeta eta iritzi erkatzea sustatu ere.
- Interesdun eta esanahidun proiektuak planteatu behar dira, ikasleek teknologiak erabiliz lan-planak eta jarduerak egokiak gara ditzaten eta baliabide teknologiko ezberdinen bitartez komunikatzen ikas dezaten.
- Gela berdineko zein toki ezberdinetako ikasleen arteko ikaskuntza kooperatiboa eskatzen duten jarduerak prestatu behar dira.
- Irakaslearen papera ikas-jardueren antolatzaile eta ikuskatzailea dela onartu behar da, eta ez informazioaren igorlea.

Ondorioz, hezkuntza berrikuntzaren ardatza teknologia den arren, garrantzitsuena horren erabilpenean aintzat hartzen den hezkuntza eredu da. Hezkuntza eredu horretan ikasleen ikaskuntza ikerkuntza prozesuen bitartez burutzen da eta IKTak informazio ezberdina eskuratzeko atean bilakatzen dira, momentu eta leku ezberdinetako komunikazio fluxuak bultzatzen dituztelarik eta, laneko ekoizpena eta zabalkundea ahalbideratzen dituztelarik. Beraz, IKTak irakasleek gaur

egun dituzten baliabide didaktiko indartsuenetarikoak dira hezkuntza eredu berria aurrera eramateko.

10.2.1. Hezkuntza softwarea

Ikerketa ezberdinek curriculum-eremuarekin erlazionatzen diren multimedia-materialak gero eta presentzia gehiago dutela geletan frogatzen dute (Marqués, 2006; Pérez, Sola eta Murillo, 2006).

Izan ere, multimedia-baliabideak irakasleek IKTen integrazioarako erabiltzen dituzten erreferentziazko materialetan bilakatu dira (Granados, 2007). Granados autoreak (2007) arrazoi ezberdinak ematen ditu material horien erabileraren nagusitzea argudiatzeko; alde batetik, ikasleen arteko onarpena dutelako (erakargarritasun audiobisuala eta eskola-jarduerak ludikoagoak egiteko ahalmena dela eta). Eta bestetik, irakaslea softwarearekin trebatzean beste jarduera batzuk egiteko erabiltzen dituelako.

Multimediaz hitz egitea modu ezberdinetan komunikatzea suposatzen du, mezu bat transmititzeko edo informazioa aurkezteko medio (hardware eta software) eta formatu (testu, irudi, bideo, audio edota animazio) ezberdinak barneratuz (Area, 2009; Smaldino, Russell, Heinich eta Molenda, 2006)

Arearen (2009) aburuz, sistema multimediak dokumentu berean testu, animazio, irudi, audio eta bideoak konbinatzen dituen erreminta da, zinetan ordenagailu edo dispositibo bat da koordinatu, ekoiztu, kontrolatu eta azaltzen duena. Konbinazio horrek produktu erakargarri eta eraginkorrek sortzea ahalbideratzen ditu.

Hala ere, hezkuntzara aplikatzen den sistema multimediak ezaugarri bereizi batzuk ditu. Gutierrez-ek (2002) hezkuntza sistema multimedia hori, erreminta, medio eta baliabide teoriko-praktikoen konbinazioa bezala definitzen du, erabiltzailearen ikaskuntza eragingo duen giroa diseinatu eta ekoiztuko duena. Gainera, ikaskuntza teoria ezberdinak jarraitzen dira bere diseinuan.

Horrela bada, Bartolome-k (1994) hezkuntza programa multimedia ezberdinak bereizten ditu jarraitzen duten ikaskuntza teoriaren arabera:

1. Teoria konduktistan oinarritutako ikaskuntza

Ordenagailuz Lagundutako Ikaskuntza (OLI) Skinnerren konduktismoan du oinarria. Ikuspegi honetan edukiak linealki (derrigorrezko sekuentzia jarraituz) edo adarkatuta (hierarkia baten barruan nabigatzeko aukera ezberdinak emanez) azal daitezke. Izan ere, edukiak pixkanaka eta gradualki azalduz, arreta eta motibazioa indartu,

edukiak hobeto barneratu, jarduerak errepikatu, esfortzuak kontrolatu eta ikaskuntza sekuentzia antolatzea lortzen da (Morgado, 2010).

Teoria honen oinarria dute hurrengo programak:

- Ejerzitazioa: Jarduerak mailakatuta, progresiboki, askotarikoak eta ikaskuntza erritmoa errespetatuz azaltzen dira. Praktika eta errepikapenaren printzipioak jarraitzen dira eta irakaskuntza printzipio horietan oinarritzea soilik ezinezkoa den arren, ikaskuntza zailtasun espezifikoek kasuan, zailtasunak modu arin eta eraginkorrean esku-hartzea ahalbideratzen dute.
- Tutorialak: Ikasleak bere ikaskuntza prozesua gidatzea ahalbideratzen du, informazioa eta jarduerak eskainiz. Bide bakarra ala ezberdinak jarraitu ditzake, bere erantzunak feedback moduan funtzionatzen dutelako, bidea aukeratzeko lagunduz. Eduki konkretuak bereganatzeko egokiak dira eta kontzeptu sinpleen ulermena errazten dute.
- Multimedia liburuak: Programa linealak dira, eszena ezberdinez osatuak non eszena bakoitzean ikasleak objektuekin elkar-aritu daiteke. Eszena ordena aukeratu daiteke ere. Ikaskuntza praktikaz eta asoziazioak burutuz bereganatzen da baina aurreko programak ez bezala, multimedia liburuetan ikasleak esploratu egiten du.

Hala ere, ikuspegi konduktistan ezagutzaren bereganatzea objektiboa da eta ikaslearen esperientziatik at dago. Ondoren azaltzen den ikuspegi konstruktibistan, ordea, beharrezkoa da ikaslearen ingurunea kontutan hartzea (aurrezagutzak, garatu beharreko gaitasunak, ebaluazio motak...). Ikaskuntza ezagutzaren eraikitzaile bezala

Arazo edo kasuetan oinarritutako programak eta informazio-programak bereiz daitezke oinarri konstruktibista dutenen artean.

- Informatzeko diseinua duten programak: entziklopediak eta horietatik garatutakoak.
- Hipermedia: multimedia programen diseinu mota bat da non informazioa esanahi osoa duten paketeetan antolatuta dagoen. Paketeek zailtasun maila ezberdina dute, pakete ezberdinetatik nabigatzea ahalbideratzen duten estekak dituzte eta ildo logiko bat jarraitzen dute. Pakete bakoitzak informazio grafikoa, audiobisuala, idatzia, ... integratu dezake eta euskarri ezberdinak erabili daitezke nabigatzeko.
- Kasu eta arazoen ebazpena: programa mota hauetan arazo edo kasu erakargarri bat planteatzen da eta ikasleek ebazpena

bilatu behar dute. Horretarako, programak informazioa, simulazioak, tutorialak edota jarduerak eskaini ditzake.

2. Eredu anbigualentea: simulazioak eta bideojokoak

Simulazioan egoera bat aurkezten da non aldaketak ematen diren edo eman daitezkeen. Bere errealismo maila erabilitako bideo eta interfazearen arabera izango da. Simulazioan erabiltzaileak hartutako erabakiek ondorioak eragiten dituzte eta egoeraren aldaketa dakartzate. Beraz, ikaskuntza egoeraren bitartez garatzen diren gaitasunekin erlaxionatuta egon daiteke, edo egoeran ematen diren kontzeptuak ulertzearekin erlaxionatuta. Baina erabakiak hartzeko behar diren abileziak garatzeko helburua ere izan dezake.

Bideojokoek gratifikazio hirukoitza eskaintzen dituzte; sentsoriala (estimulu bisual eta auditiboetatik), mentala (fantasia eta alegiatatik) eta psikikoa (identifikatu eta proiektatzeko aukeretatik). Bideojokoek simulazioaren diseinu antzekoa izan dezakete (egoera bat non aldaketak eman daitezkeen eta non erabiltzailearen erabakiak halaber aldaketak sortarazten dituen) eta mota askotakoak izan daitezke (abenturak, abileziak, istorioak,...). Eragiten dituzten onuren artean, erreflexu eta pertzepzio bisualen garapena eta, bizi errealeko antzeko egoerak interpretatzeko eta erreakzionatzeko gaitasunen garapena daude.

3. Testuinguru-ikaskuntza

Aurreko programak testuinguru-ikaskuntza ereduaren arabera diseinatu daitezke. Eredu honetan ikaslea testuinguru konkretu batetan barneratzen da baina jokoak aurrera egin ahala testuingurua ingurune oso batetan bilakatzen da. Horrela, hiztegi, pertsonai eta egoera konkretu batzuekin trebatzen da, ikaskuntza aurreko ezagutzetan oinarria izanik.

4. Talde-ikaskuntza

Bideojokoak eta simulazioak ere taldean lan egiteko diseinatu daitezke, bai jarduerak banatuz zein hipotesiak kontrastatuz helburu komuna bilatzeko. Aipatzekoa da, internetek taldean lan egiteko aukerak asko zabaltzen dituela.

Beste alde batetik, sistema multimedialak betetzen dituzten funtzioak kontutan hartzen badira, Irudia 13an azaltzen den bezala Areak (2009) 4 kategori ezberdintzen ditu:

Formakuntzara zuzenduak	<ul style="list-style-type: none">• Ikaskuntza sarean (Moodle) eta multimedia interaktiboak (CD) azpimarra daitezke.• Helburua: gaitu, irakatsi, hezi eta ikaskuntza bultzatzea.
Komunikaziora zuzenduak	<ul style="list-style-type: none">• Aurkezpenak sortzea (prezi, ppt), interakzio sinkroniko eta asinkronikoa (foroak, txatak), norabide biko eta anitzeko elkarrizketa (MSM, Skype) errazten dutenak• Helburua: Erabiltzaileen arteko interakzioa errazten dute
Entretenezko zuzenduak	<ul style="list-style-type: none">• Bideojoko interaktiboak, simulazio programak, filmak.• Helburua: jolasteko elementuak azaltzea hezkuntza inguruetan.
Informatzeko zuzenduak	<ul style="list-style-type: none">• Informazio iturriak sortzea ahalbideratzen dituzten aplikazioak (liburuak, aldizkariak,...), erreferentzia-sistemak (entziklopediak edo hiztegi birtualak), bilatzaileak (webquest, wikipedia,...)• Helburua: informazioa aberastu eta erakargarri aurkeztea.

Irudia 13. Multimedia-sistemen funtzioak (Area, 2009)

10.2.2. Egile-tresnak

Engungo eskola inklusiboan, irakasleek curriculum-materialak ikasleen beharrezan erantzuteko moldatu behar dituzte. Baina horiek moldatzeko behar dituzten abilezien zailtasunaz gain, tresna teknologikoak dituzten moldatzeko zailtasunak ere (softwarearenak) gehitu behar zaizkie. Beraz, ikasleen dibertsitateari erantzuteko moldagarriak diren hezkuntza softwareak behar dira, batez ere, HPBak (Hezkuntza Premia Bereziak) dituzten haurrei erantzuteko.

Merkatuan dauden hezkuntza softwareak kalitate tekniko altuko programak diren arren, beti ez dituzte irizpide pedagogiko koherenteak jarraitzen eta sarritan ez dituzte aukerarik ematen curriculum lantzeko. Ondorioz, nahitaezkoa da tresna egokiak bilatzea IKTen onurak hezkuntza sistemaren erabiltzaile guztiei heldu daitezen. Egoera horri erantzuteko aipatzekoa da gaur egun irakasleek multimedia programak diseinatzeko dituzten aukerak. Horien artean programa multimedialak sortzeko erremintak daude; **egile-tresnak**. Egile-tresnek multimedia formatuko jarduerak, materialak eta baliabideak sortzea ahalbideratzen dituzten programak dira. Horretarako, egile-lengoaia erabiltzen dute non alde batetik hiztegia sinplifikatzen den eta bestetik, ohikoak diren lan

espezifikoean hiztegia aberasten den. Egile tresnek hezkuntzarako funtsezkoa den ezaugarria dute; irakasleek bere helburu, ikasketa plan eta ikasleen ezaugarrietara egokia dena sor dezakeela. Beraz, irakasleek ikasleen ezaugarrietara egokitutako material eta baliabideen diseinuan paper garrantzitsua izango du (Cabero, 2001).

10.3. Irakasleen papera IKTen integrazioan

Informazio eta Komunikazio Teknologiak hezkuntzan integratzerakoan, irakasleek funtzio sozializatzaile berriak betetzeaz gain, beste irakasle zereginak ere gaurko gizartearen erronketara egokitu behar dituzte. Guzti horretarako, irakasleriak estrategia berriak garatzen ezinbestekoa da.

Carlos Castañón (2003) irakasleek izan behar dituzten estrategia eta gaitasun horiek 3 arloetan bereizten ditu:

Taula 4

IKTak integratzeko irakasleek behar dituzten gaitasunak

Gaitasun teknologikoa
<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko abileziak menperatu, tresna sortzaileak (testu prozesadoreak, kalkulu orriak, multimedia aplikazioen diseinatzaileak, egile-tresnak, ...). - Internet aplikazioak (posta elektronikoa, eztabaida gunea, txata, ftp,...).
Gaitasun Didaktikoa
<ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntza formatu berrietara egokitzeko aukera. - Ikasleen auto-zuzentzea eta auto-erregulazioa eragiten duen hezkuntza giroa diseinatu. - Baliabide anitzak erabili. - Materialak sortzeko eta lan adierazgarriak sortzeko gaitasuna.
Tutoretza Gaitasuna
<ul style="list-style-type: none"> - Komunikatzeko abilezia - Erabiltzaile ezberdinen baldintzei eta ezaugarriei egokitzeko gaitasuna. - Proposamenak, iradokizunak eta berregokitzeak onartzeko pentsamoldea. - Ikaslearen aurrerapenak jarraitzeko jardueretan lan egiteko eta jarraitasuna mantentzeko ahalmena, berehalako feedback-ka ematea.

Orduan, teknologiak erabiliz eta integratuz irakaslea ez da baliabideen kontsumitzaile hutsa, ikerketa eta gogoetaren bitartez

edukien sortzailea eta informazioa eskuratzeko bideratzailean bilakatzen da (Tello eta Aguaded, 2009).

Baina gaitasun horien bereganatzean formazioa ezinbestekoa da. Izan ere, Gimeno esaten zuenez (1982), formazioa hezkuntza sistema berritzeko nahitaezko kantoï-harria da.

Azken hezkuntza eta erreforma legetan irakasleen etengabeko formazioa azpimarratzen da, bi eguneratze prozesu nagusi ezberdintzen direlarik; eduki berriak eta belaunaldi berrien ezaugarriak eta beharrak.

Horrela bada, LOGSEren 56. artikuluan argi eta garbi geratzen da irakasleen formazioaren garrantzia. LOPEGCEn (1995) irakasleen formazioaz gain, ikastetxearen antolakuntzaz arduratzeko zuzendaritza taldeak izan behar duen formazioa ahalbideratzen da. LOCEk (2002) kalitatearen kontzeptua sartzen du eta lekualdatze lehiaketarako formazioaren bidez lortutako merituen balioa jasotzen du. LOEn (2006), egungo gizartearen beharrak kontutan hartuta, formazioaren egokitzapena bideratzeko oinarriak zehazten dira. Kalitatearen kontzeptua mantentzen da ere eta Administrazioak formazio programen medio TTBBen (Teknologi Berrien) erabilera irakasle guztietan bultzatuko duela aipatzen da.

LOMCEn (2013) IKTak hezkuntza kalitatearen hobekuntza lortuko duen metodologi aldaketa emateko funtsezkoak direla aipatzen da. Bestalde, irakasleen formazioan IKTak nahitaezko baliabide direla ere azaltzen da baina horien erabilpena formazioa eta eginkizun pertsonal edo laboralak partekatzeke dela zehazten du. Ez da irakasleen formazioaz gehiago aipatzen eta LOEn ez bezala, ez dio atal berezirik dedikatzen irakasleen funtzioei, formazioari eta errekonozimenduari.

Beraz, argi geratzen da irakasleen formazioa ezinbestekoa dela. Horrela, Caberok (2004) bi argudio sendo ematen ditu irakasleek IKTetan formazioa izan behar dutela azpimarratzeko; alde batetik, IKTek betetzen dituzten funtzio anitzak, eta bestetik, IKTen eragina ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren aldagai kritikoetan, horien artean, irakaslearen rolean.

Irakaslearen rolan zentratuz, gaurko irakasleek funtzio ezberdinak bete behar dituzte egungo gizartearen beharretara erantzuteke. Beraz, berrikuntza teknologikoak irakasle profil berria dakartza, hurrengoko funtzioak betetzen dituen (Cebrián, 2003):

- Autoikaskuntzan aholkatu eta gidatu.
- Baliabide ezberdinak bideratu eta motibatu.
- IKTen ikaskuntza-gune berriak diseinatu.
- Materialak moldatu euskarri ezberdinak erabiliz.

- Material didaktikoak sortu euskarri ezberdinak erabiliz.
- Gune horietan sortzen diren prozesuak ebaluatu
- Etengabeko autoikaskuntzan oinarritutako hezkuntza ikuspegia izan.

Funtzio horiek bat datoz Castañok (2003) planteatzen dituen roleekin. Gisbert-en lanean oinarriturik (1999), Castañok ezagutzaren gizartean jarduten duten irakasleek hurrengoko rolak bete behar dituztela azpimarratzen du:

- Informazioaren aholkulariak
- Taldeko kolaboratzaileak
- Langile bakartiak
- Ikaskuntzaren eragileak
- Kurtso eta materialen diseinatzaile eta sortzaileak
- Ikaskuntzaren gainbegiraleak

Ondorioz, irakasleek eragile eta bideratzailearen papera bete behar dute, erakusle hutsaren papera gaindituz (Cabero, 2004). Horretarako, ezinbestekoa da IKTen gaineko ezagutzak bereganatzea eta horiek integratzeko gaitasunak eskuratzea, hain zuzen ere, formazioaren bidez baino lortzen ez diren gaitasunak.

11. Teknologia Haur Hezkuntzan

11.1. IKTen papera Haur Hezkuntzan

Informazioaren gizartean, kultura digitalaren ondorioz, haurrak **natibo digitaletan** bilakatu dira eta horrek haurrak IKTek eskaintzen dituzten abantaila guztiak aprobetxatzeko prestatu behar direla suposatzen du. Bere garapenerako funtsezkoa izango den prestakuntza hori haurtzaroan hasi behar da eta bai familian zein eskolan eman behar da (Rodríguez, 2011).

Haur hezkuntza jokaera eta elkarbizitza ohiturak bereganatzen diren etapa da baina baita, garapen intelektualean aldaketa nabariak ematen diren, organo sentsozialak garatzen diren, aldaketarako joera eta plastizitatea lortzen den etapa da ere (Romero, 2006). Izan ere, plastizitatearen printzipioa kontutan hartzen bada, Haur Hezkuntza 0 urtetik ulertu behar da, printzipio horrek haurraren garapenean ondorio baikorrenak eragingo duelako (Sánchez, 2008). Hori dela eta, garai horretan ematen den hezkuntza jarduera etorkizuneko garapen ebolutiborako funtsezkoa dela esan daiteke.

Beraz, argudio horiekin ulertzekoa da IKTen integrazioa haur hezkuntzan hastea eta, abileziak eta gaitasunak eskuratzeko beste baliabide bat bezala hartzea. Teknologia Berriek kreatibitatea akuilatzen dute eta, esperimentatzeko eta manipulatzeko forma ezberdinak aurkezten dituzte baina ikaslearen erritmoa errespetatuz. Gainera, talde lana, sozializazioa, kuriositatea eta ikertzeko grina bultzatzen dute (Romero, 2006).

Baieztapen horiek bat egiten dute Urbina-k (2002) 3 urteko gelan eta Rodríguez-ek (2011) Nafarroako haur hezkuntza eskoletan eginiko ikerketekin. Esperientzia horietan txokoetan antolatutako geletan ordenagailua integratzea erraz egiten dela frogatzen da. Baina baliabide pertsonal gehiago behar direla behatzen dute, batez ere, hasierako unean. Hau da, beraien ondorioetariko bat, inplementatze aldian, ordenagailu txokoa tutorizatzeko hezitzaile bat behar dela da. Gainera, beste hezitzaile bat behar dela ere zehazten dute klaseko dinamika ohikoa jarraitzeko. Modu horretan, ikasleek tutorizazio horietan arauak ikasteko, kideak errespetatzeko eta sagua maneiatzeko lehen pausuak ikasiko dituzte. Bestalde, motibazioaren eragina azpimarratzen da ikerketa bietan. Ordenagailuak motibazio altua eragiten duela azaltzen da, baina baldin eta jarduerak gehienez 10-15 minutu irauten baduten, monotonoak ez badiren, eta horien arrakasta erraz lortzen baden. Azkenik, ikerketa bien emaitzetan haurrek trebetasun sozialak bereganatzen dituztela frogatzen da; txandaketa, kooperazioa eta laguntza eskatzea.

Baina Haur Hezkuntza derrigortasun ezaren ezaugarria du, nahiz eta Cohen (1983), Piaget (1952) edo Vigotskyk (1978) bezalako autoreek ikaskuntzarako etaparik hoberena dela defendatu. Horrek zenbait traba suposatzen ditu; alde batetik, teknologia integratzeko egon diren eta dauden proiektu instituzionalak (10.1. puntuak zehazten direnak, hain zuzen ere) ez direla haur hezkuntzan ezarri, horrela, teknologiaz hornitzeko egon diren diru-laguntzak Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan zentratu dira batik bat. Bestetik, eta lehenengo traba horretatik eratorrita, formazioa Lehen eta Bigarren hezkuntzako irakaslerian zentratu da, horiek bai dira geletan teknologia erabiltzeko aukera gehien dituztenak eta. Beraz, formazioak ez du Haur Hezkuntzako irakasleak dituzten beharrak asetzen, ondorioz irakasleek baliabide teknologikoak erabiltzeko interes eza azaltzen dute (Rodríguez, 2011).

Orduan, IKTen papera Haur Hezkuntzan ondo ikertuta eta argudiatuta dagoen arren, oraindik bidea dago instituzionalki baliabideak eskaini daitezen etapa horretan. Modu berean, irakasleriak bere etapari egokitutako formazioa behar du, hortik hasten baita IKTen integrazioa emateko beharrezkoa den pentsaera aldaketa.

11.2. Euskal Autonomi Erkidegoko Haur Hezkuntza Curriculumak eta gaitasun teknologikoa

LOMCEk hezkuntza-sistema eraldatzeko hiru arlo nabarmentzen ditu; informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, eleaniztasuna eta Lanbide Heziketaren modernizazioa. Beraz, legearen xedapenean azaltzen denez, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak funtsezko osagaiak izango dira hezkuntzaren kalitatearen hobekuntza eragingo duen aldaketa metodologikoa emateko.

LOMCE LOE legearen erreforma da, beraz, LOE legean dakarrena mantentzen da indarrean, baldin eta LOMCEren lege proiektuak aldaketarik aipatzen ez badu. Horrela bada, LOMCEk ez du haur hezkuntzako bigarren zikloari buruzko aldaketarik azpimarratzen; helburu orokorrak (borondatezko izaera, gurasoen elkarlana, ...), egitura (bi ziklo), printzipio pedagogikoak eta 2. zikloko doakotasuna mantentzen dira. Hala ere, LOMCEn 0-3 urteko zikloa ez da aipatzen eta oraindik ikusteko daude aipu eza horrek ekarriko dituen ondorioak, diru laguntzen eta proiektuen murrizketari batuta.

Orduan, LOE legean oinarritu behar da teknologia berriek Haur Hezkuntzan duten tratamendua aztertzeke. EAEan abian dagoen curriculumak kontutan hartzen badugu, Hizkuntzaren eremuan garatu behar diren hizkuntzen artean Informazio eta Komunikazio Teknologiak

beste hizkuntza bat direla zehazten da, hortaz hezkuntza tratamendua eman behar zaiola ondorioztatzen da. Hezkuntza trataera horren bidez, haurrak ikus-entzunezko mezuak interpretatzen eta ulertzen has daitezten eta modu egokitan eta sormenez erabil ditzaten lortu nahi da.

Hala ere, EAeko Haur Hezkuntzako curriculuma zehazten duen dekretuan azaltzen diren edukiak teknologia berriak integratzeko oztopoan bilakatzen direla uste da.

- *Tresna teknologikoak erabiltzen hastea; besteak beste, ordenagailua, unitate periferikoak, soinu- eta irudi-errepuzitzaileak edo kamerak, irakaskuntza eta komunikazioa errazteko tresna baitira.*
- *Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak behar bezala eta modu esanguratsuan erabiltzeko beharraz jabetzen joatea.*
- *Ikus-entzunezko ekoizpenak ikustea, hala nola filmak, bideoak edo irudien aurkezpenak. Horien edukiei eta estetikari buruzko balioespen pertsonala egitea.*
- *Errealitatea eta ikus-entzunezko adierazpena bereizten ikastea pixkanaka.*
- *Ikus-entzunezko ekoizpenak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea bi hizkuntza ofizialak finkatzeko eta atzerriko hizkuntzara hurbiltzeko.*

Eduki horiek ez dituzte pedagogi berrien eranstea ahalbideratzen. Ordenagailuaren erabilera informazioa eskuratzera, jarduerak burutzera, edota curriculum-edukiak osatzera mugatzen da, ordenagailua tresna hutsa izanik. Hortaz, ordenagailuak eta interneta gelan izateak ez du esan nahi ohiko irakaskuntza-ikaskuntza ereduaren eraberritzea emango denik (Coll, Mauri eta Onrubia, 2008; Area, 2010).

Horrenbestez, azken urteetan gelak ordenagailuz eta internetez hornitzeko burutu diren programak garrantzitsuak izan diren arren, gaur egun horien integrazioa bultzatuko dituzten planak behar dira; Premia, Eskola 2.0, PESI 2010 bezalakoak. Ondorioz, aurrera eramaten diren plan horiekin bat egiten duen curriculuma planteatu beharko zen ere.

Aurreko oztopoetatik IKTen inklusioak ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren hobekuntza ekarriko duela ezin daiteke esan (Coll, Mauri eta Onrubia, 2008), baina curriculuma aldatzeak gelan aldaketak ematea suposatuko duela ere ezin daiteke bermatu (Tondeur, Van Braak eta Valcke, 2007). Berrikuntza pedagogikoa emateko beharrezkoa da bestelako dimentsio batzuk ere aztertzea; irakasleen jakintza maila, formazio teknikoa eta planteamendu pedagogikoak (Sigales, Mominó eta Meneses, 2009), 10.3 puntuan aztertu denez.


Bestalde, dokumentu instituzionaletan gaitasunen tratamendua Haur Hezkuntzan aipatzen ez den arren, ezagutza arlo eta blokeetan inplizituki barneratuta azaltzen da (Vietes, 2009). Izan ere, Haur Hezkuntzako edukiak, ikuspegi metodologikoa eta hezkuntza-praktika gaitasunekin bat egiten dute. Horrela, gaitasunetan oinarritzen den hezkuntzan haurra bere ikaskuntza prozesuaren protagonista da eta bere ide, interes eta gaitasunetatik abiatzen da.

Gaitasunak, Europako Legebiltzarrak (2006) ematen duen definizioaren arabera, *"testuinguruari egokitutako ezagutza, gaitasun eta jarrearen konbinazio bat dira. Gaitasunak pertsona guztiek behar dituzten garapen eta errealizazio pertsonalerako, hiritar aktibo izateko, gizarteratzeko eta lana lortzeko giltzarri dira"*.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasunari dagokionez, zehar-izaera duela azpimarratzen da. Hala ere, maila bereko garrantzia ematen zaie oinarrizko gaitasun guztiei, horietako bakoitza lagungarri izan daitekeelako norberak jakintzaren gizartean arrakasta izateko. Gainera, aintzat hartu behar da gaitasun horiek guztiak elkarrekin lotuta daudela, eta arlo batean funtsezkoak diren alderdiak beste gaitasun bat bereganatzeko lagungarri izan daitezkeela ere.

Orduan, IKTen bitartez burutzen diren jarduerak azken xedetzat oinarrizko gaitasunen garapena izan behar dute baina batez ere, alfabetizazio digitalaren gaitasuna garatzen laguntzeko planifikatu behar dira.

Alfabetizazio prozesu horretan 3 gaitasun-esparru kontutan hartu behar dira (informazioa eskuratzen ikasi, komunikatzen ikasi eta, informazioa sortzen eta zabaltzen ikasi) baliabide digitalak erabiliz ikas-jarduerak burutu ahal izateko (Area, 2008b) (ikus Irudia 14).



Irudia 14. Alfabetizazio digitalaren prozesuko gaitasun-esparruak (Area, 2008b)

Baina informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna, beste gaitasunak bezala, hezkuntza etapetan zehar bereganatu eta hobetzen da eta bizitza osoan zehar jasotzen den ikaskuntza jarraituaren oinarria da (Muñoz, 2009). Beraz, Haur Hezkuntza etorkizuneko ikaskuntzetarako aurre-baldintzak modelatzen diren etapa izanik, ezinezkoa da ulertzea Haur Hezkuntzako curriculumean Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna ez lantzea. Horretarako lagungarri izango zen gaitasunen tratamendua Haur Hezkuntzako curriculum aurreratuaren dekretuan modu esplizituan azaltzea.

12. Teknologia eta dibertsitatea

12.1. IKTak hezkuntza berdintasunean eta ekitatean

Azken boladan **eskola inklusiboaren** kontzeptua berebiziko garrantzia hartu du hezkuntzan. Bere xedea ikasle bakoitzak bere ezaugarriekin bat datorren kalitatezko hezkuntza jaso dezala da. Beraz, inklusioaren filosofiak guztiontzako hezkuntza eraginkorra defendatzen du, non hezkuntza komunitateak ikasle guztien premiak bete behar dituen, ezaugarri pertsonalak, psikologikoak edo sozialak edozein izanda ere (Arnaiz, 2003).

Beraz, dibertsitatean hezteak ez du esan nahi hezkuntza premia bereziak dituzten haurrentzako neurri bereziak hartzea. Baizik eta, ikasleek beraien dibertsitatean ikas ditzaten errazten duen curriculum-eredua kontutan hartzea (Torres, 2000).

Eskola inklusiboaren ikuspegia kontutan izanik, IKTak metodologia aberatsagoa eskaintzen du, multimedia elementuek banan-banako ikaskuntza izateko aukera ematen dutelako, edukiak modu dinamiko, erakargarri eta pertsonalizatuan aurkeztuz (García, 2007).

Hala ere, disgaitasunak dituzten hurrek oraindik hainbat oztopoei aurre egin behar diete eskolan (Echeita eta Ainscow, 2011). Horrela, oztopoak izan ditzakete arkitektonikan, komunikazioan, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan, maila sozialean, maila psikologikoan... Horietariko zenbaitetan IKTek aldaketak eragin ditzakete, bai pertsonaren garapena errazten dutelako, bai inguruarekiko erlazioa hobetzen dutelako.

Beraz, arrazoi ezberdinak daude baliabide teknologikoak hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonekin erabiltzeko; zailtasun espezifikoak gainditzeko posibilitateak ematen dituzte, ingurunearekin komunikatzeko ereduak eta aukerak zabaltzen dituzte eta, ezagutzaren gizartean barneratzea eta lanera gizarteratzea ahalbideratzen dute. Hau da, inguruarekin erlazionatzeko aukerak zabaltzen dituzte, bizi-kalitatea hobetuz, bai afektiboki, pertsonalki, laboralki zein profesionalki (Cabero, Córdoba eta Fernández, 2007).

Cabero, Córdoba eta Fernández autoreek (2007) IKTen abantaila orokorrak zehazten dituzte hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako:

- Disgaitasun kognitibo, sentsorial eta motorretatik eratorzen diren mugak gainditzeko laguntzen dute.
- Ikasleen autonomia bultzatzen dute, ikasleen beharrianetara egokitze aukera emanez.

- Beste ikasle eta irakasleen komunikazio sinkroniko eta asinkronikoa bultzatzen dute.
- Abilezia eta gaitasunen bereganatzean denbora aurrezten dute.
- Ikasleen diagnostikoa bultzatzen dute.
- Komunikazio eta formazio eredu sentsorio-anitza bermatzen dute.
- Banan-banako formazioa bideratzen dute.
- Eten digitala eta marjinazioa ekiditen dute
- Gizarteratze laborala errazten dute.
- Aisialdiak eskaintzen dituzte.
- Abilezia eta gaitasunen barneratzean denbora aurrezten dute.
- Mundu zientifiko eta kulturalera hurbiltzea errazten dute, eguneko ezagutzen jakinean egotea bideratzen dutelako.
- Porrot akademiko eta pertsonala sentitzea murrizten dute.

Abantaila horietaz gain, orokorrean multimedia eta telematikak hezkuntzari eskaintzen dizkioten abantailak gaineratu behar dira (Cabero, 2008):

- Motibatze botere altua.
- Sistema sinboliko ezberdinak barneratzen dituen ingurunearen sorrera, inguru dinamiko eta erakargarriak eratzea ahalbideratzen duena.
- Komunikatzeko inguruen malgutzea.
- Informazio eta jardueren errepikapena.
- Pertsonen banan-banako ezaugarriei egokitzeko aukera.

Ondorioz, ohiko hezkuntza-baliabideez baliatzeko oztopoak dituzten pertsonen kasuan, bai ikaskuntza zailtasunak edota ezgaitasun egoeran izateagatik, teknologiak aukera berdin gehiago izateak ahalbideratzen du (Soto eta Fernández, 2007). Izan ere, baliabide teknologikoen dibertsitatea errespetatzen dute pertsona bakoitzaren beharrezanetara egokitzeko ahalmena dutelako, ezberdintasunak gutxituz, curriculum betetzea erraztuz edota komunikazioa bideratuz. IKTek ikasleen dibertsitateari erantzuteko baliabide bezala, paper garrantzitsua izan dezakete komunikazioa, autonomia edota arlo sozialean garatu behar diren pertsonetan, batzuetan aukera bakarra izanik (Scandell, Rodríguez eta Cardona, 2004). IKTek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan aukera berriak eskaintzen dituzte, HPB dituzten haurren arretan potentzialtasun handiak azaltzen dituztelako.

12.2. **IKTak eta Erabilerraztasuna**

LOGSE legea abian jarri zen unetik, agerian gelditu da hezkuntza sistemak duen ahalmena HPB dituzten ikasleei hezkuntza normalizatua eta kalitatezkoa emateko (Marchesi, 1994). Modu berean, aukera berdintasunaren printzipioa eraginkor bilakatzen da lege horren ondorioz.

LOE legearekin kontzeptu berriak barneratu dira, horrela, hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duen ikasletzat hartzen da eskolatze-aldi batean edo eskolatze osoan arruntak ez diren hezkuntza-arreta zehatzak behar dituenak (Art. 71.2.). Ikuspegi honetatik hezkuntza premia berezien kontzeptua aldatu egiten da; ezgaitasunak edo jokabide-nahaste larriak eskolatze-aldi batean edo eskolatze osoan izateagatik, berariazko hezkuntza-laguntzak edo hezkuntza-arretak behar dituzten ikasleak dira hezkuntza-premia bereziak dituztenak. (HLO, 73. artikulua).

Testuinguru honetan, eskolak aniztasunaren trataerarako neurriak hartu behar ditu, hots, ikasleen berariazko hezkuntza-premiei erantzun behar dizkio, ikasleek curriculumean jasotako oinarrizko gaitasunen gutxieneko mailak eskuratu ditzaten. Horrez gain, neurri horiek ingurune normalizatu eta inklusibo batean eman behar dira.

Baina, IKTen erabilera desegokiak eskuragarritasunaren arazoa nabarmendu dezake zailtasunak azaltzen dituzten pertsonentzat. Hori salbuesteko, ikaskuntza berdina eskuratzeko estrategia ezberdinak sortu behar dira, eta IKTek paper garrantzitsua bete ditzakete norbanakoen ezberdintasunen erantzun horretan (Scandell, Rodríguez eta Cardona, 2004). Beraz, informazio eta ezagutzaren gizartean funtsezkoa da **diseinu inklusibo** eta **erabilerraza** bultzatzea (Pina eta Gea, 2013).

Ildo horretan, erabilerraztasuna modu ezberdinetan defini daiteke:

- Produktu bat bezala (zerbitzua, testuinguru edota instalazioa); gaitasun ezberdinak dituzten pertsonen kopuru handienak erabiltzeko gai izan dezaten ezaugarria duena, zehaztutako helburuak eraginkortasunez, efizientziaz eta gogobetetasunez lortuz, erabilera-testuinguru batean (ISO 16071, 2000).
- Testuinguru, produktu edo zerbitzu batek izan behar dituen ezaugarrien multzoa bezala; pertsona guztiek (batez ere, desgaitasunen bat dutenak) konfort, segurtasun eta berdintasun baldintzetan erabili ditzaten (Alonso, 2003).

Ikuspuntu teknologiko batetik erabilerraztasuna bultzatzeko, Gisbert autoreak (2000) dibertsitateari erantzuteko modu ezberdinak aipatzen ditu:

- Pertsona talde handi batek erabili ahal izateko produktu eta zerbitzuak diseinatu, behar ezberdinei erantzuten dietenak eta moldapenak behar ez izateko beste malguak direnak.
- Interfaze estandarrak sortu, zailtasunak dituzten pertsonentzako diseinatutako produktuekin bateragarri egin.

Horrela bada, instituzionalki ere erabilerraztasuna bermatzeko ekintza-plan ezberdinak garatu dira. Administrazio Zentralaren kasuan, "I Plan Nacional de Accesibilidad 2004-2012" jarri zuen martxan 51/2003 legea betetzen zela ziurtatzeko, non desgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasuna, diskriminazio eza eta erabilerraztasun unibertuala zehazten zen. *eEurope 2005* ekimenari dagokionez, *guztiantzako informazioaren gizartea* azpimarratzen du. Ekimenaren helburuen artean, zerbitzu publiko telematiko modernoak eta Administrazioaren eratu (*e-government*), ikaskuntza elektronikoko zerbitzuak bultzatu (*eLearning*) eta banda zabaleko sarreratze masiboa prezio lehiakorretan jartzea daude. Bestalde, desgaitasuna duten pertsonentzat zuzentzen diren aplikazio informatikoen gaineko araudi espezifikoak ere azaldu dira, *UNE 139803:2004* bezalakoa. Araudi horretan, ahalik eta pertsonen gehien erabili ahal izateko (desgaitasuna dutenak barne) web-edukiek izan behar dituzten baldintza eskuragarriak zehazten dira (Pina eta Gea, 2013).

Ondorioz, hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonen arretan funtsezkoa da erabilerraztasun arkitektonikoez gain, IKTen erabilerraztasuna ere sustatzea. IKTek formazioan, autonomian eta diseinu inklusiboen eraketan paper garrantzitsua bete ditzakete eta.

13. Teknologia irakurketa zailtasunen esku-hartzean

Irakurketa zailtasunen eremuko profesionalek esfortzu handiak egiten dituzten arren, ikaskuntza zailtasunen portzentajeak mantendu ez ezik, zailtasun batzuen kasuan portzentajea igo egin da ere. Hori dela eta, eredu tradizionaleri aurre egingo dieten esku-hartzeko eredu berriak behar dira, esku-hartzeko ikuspuntu berriak emango dituztenak. Gaur egun, teknologia berriak eredu tradizional horien bide aldizkakoa suposatzen dute (Bernardo et al., 2005).

Horrela bada, Soto Pérez autorearen (2008) aburuz, IKTak hezkuntza eta formazioaren gako bilakatzen dira irakurketa zailtasunak dituzten ikasleen eguneroko lanetan.

- Ia eduki kurrikular guztiak landu daitezke.
- Ikaskuntzen indibidualizazioa errazten dute.
- Ikasle bakoitzaren beharrizan eta erritmoetara egokitu daitezke.
- Programa espezifikoen bitartez, eremu ezberdinetako abilezia, trebetasun eta ezagutzen bereganatzea bideratzen da.
- Motibatzeke ahalmen handiagoa dute.
- Jokaera eta jarrera arauak errazten dituzte (txandak errespetatu, materialen zainketa, ...).
- Zentzumen-anitzadun komunikazioa bideratzen dute, informazioa kanal eta kode ezberdinetatik heltzen delako.
- Irakaslearentzat materialak eta baliabideak sortzeko iturri agortezina da.

Dislexia duten haurrentzat ordenagailuek praktika, errefortzua, irakaskuntza indibidualizatua eta berehalako feedbacka izatea ahalbideratzen dute. Horrela, Ordenagailuan Lagundutako Irakaskuntza (OLI) bezalako metodologiak hitzen ezagutza eta idazketa automatizatzeko praktika biziagotu eta motibatzen du. Batez ere, metodologia horrek dituen egitura, estrukturazio eta formatu erakargarria dela eta (Soriano, 2004).

Ordenagailuaz Lagundutako Irakaskuntza (*Computer Assisted Instruction*) definitzerako orduan autoreen arteko adostasun eza nabarmentzen da (Everett, 1995; Alessi eta Trollip, 1985; Cotton, 1990). Alessi eta Trollip autoreek (1985) *Computer Assisted Instruction* sistema, ordenagailua hezkuntzako funtsezko tresnatzat jotzen dituzten programa ezberdinen multzoa dela esaten dute. Hau da, *Computer-Based Education*, *Computer-Based Instruction*, *Computer-Managed Instruction* eta *Computer-Enriched Instruction* programa ezberdinen multzoa dela

ondorioztatzen dute. Cotton-ek (1990) egindako definizioen azterketan, ordea, adostasun gehien duena hurrengoa litzateke; *Computer-Based Education* eta *Computer-Based Instruction* metodologiak kontzeptu zabalagoak dira eta hezkuntza eremuko ordenagailuaren edozein erabilerari egiten diote erreferentzia. Ordenagailuaz Lagundutako Irakaskuntza (*Computer Assisted Instruction*) metodologia, aldiz, kontzeptu espezifikagoa da eta errefortzu eta praktika jarduerak, tutorialak eta simulazioak biltzen ditu.

Ikerketa askok CAI sistemak dislexiaren esku-hartzean duen eragina frogatu dute. Horrela, CAI metodologiaren esku-hartzea, irakaslearen esku-hartzearekin eta esku-hartze konbinatuarekin konparatu da. Ikerketa horietatik efekturik hoberena jaso dutenak esku-hartze konbinatua erabiltzen dituztenak dira (Wise, Ring eta Olson, 2000; Torgensen, Wagner, Rashotte, Herron eta Lindamood, 2010; Saine, Lerkkanen, Ahonen, Tolvanen eta Lyytinen, 2011).

Beraz, Teknologia Berriak eskolako ikaskuntzan eragiteko egokiak dira, irakur eta idazteko aukera anitzak ematen dituztelako eta informazio iturri zabala eskaintzen dutelako, eskolako beharrezkoak direnak (MacArthur eta Karchmer-Klein, 2010). Baina Teknologia Berriek Dislexia duten haurrentzat aukera berriak eskaintzeaz gain, hesi berriak ere suposatzen dituzte. Batez ere, informazioa bilatzeko behar diren abileziak eta informazioaren garrantzia edota kredibilitatea ebaluatzeko behar diren estrategiak oztopo bihurtu daitezkeelako (Swanson, Harris eta Graham, 2013)

Azken urteetan, Teknologia Berriek gizartean izan duten eragina jarraituz, dislexia duten haurrei zuzendutako software eta hardware ezberdin asko sortu dira ere. Ezinezkoa den arren guztiak aipatzea maila internazionalen arrakasta gehien izan dutenak eta gure ingurune hurbilean erabili daitezkeenak azalduko dira hurrengo lerroetan.

13.1. Dislexia duten pertsonentzat lagungarri diren Softwareak

Dislexia duten pertsonen zuzenduta edo zuzendu gabe baina lagungarri diren hamaika software daude merkatuan. Hurrengo lerroetan, *British Dyslexia Association*, *The National Center for Learning Disabilities (NCLD)* eta *Dislebi* erakundeak gomendatzen dituzten programak biltzen dira:

Taula 5.


Dislexia duten haurrei zuzendutako softwareak

Erantzuten duten zailtasuna	Softwarea
Idazmenerako lagungarriak diren softwareak: oinarritzat boz-gorako irakurketa, zuzentzaile ortografikoak, hitz iragarleak edota ahotsa ezagutzeko eta testu idatzian bilakatzeko gaitasuna dutenak.	<i>iWordQ, Clicker apps, ClaroCom, CapturaTalk, DragonDictation, DiLet</i>
Irakurketarako lagungarriak diren softwareak, non irakurleak ordenagailuko edo dispositibo batetako pantailan dakarrena irakurri beharrean software batek boz-gora burutzen du irakurketa.	<i>Voice Dream Reader, iBooks, Blio, ClaroPDF, Instapaper, Adilko, Adapro, SpecialWords, DiText</i>
Buru-mapak: pantailan azaltzen diren ideiak antolatzea errazten dute.	<i>SimpleMind+, Inspiration, iThoughts, MindMeister</i>
Erabilerraztasuna bideratzen duten programak: letra-tipoa, testua, tamaina, kolorea ... aldatzeko aukera ematen duten programak dira.	<i>Kindle, EyeReader</i>
Hezkuntza-softwareak: dislexia duten ikasleei zuzendutako hezkuntza-softwareak	<i>Sight Words, Dyseggxia, Katamotz, Tradislexia, Alphabet zoo, Writing machine, CognitivaPT, Pizarra Dinámica de lecto-escritura</i>

Ikus daitekeenez, irakurketa eta idazketarako lagungarri diren aplikazio asko daude. Horietako aplikazio batzuk erabiltzailearen lehentasunak zehaztea zilegitzen dute, adibidez, koloreak, letra tipoa, tamaina, etab. Gainera ahotsa ezagutzeko, grabatzeko eta oharrak idazteko erremintak gaineratu ditzakete.

Hala ere, norberaren beharrianak asetzeko **app** egokia bilatzea denbora eta esfortzu handia exijitzen du. Hori dela eta, hori errazten duten sailkapenak azaldu dira azken urteetan.

Dislexiarako lagungarri diren *app-en* sailkapen bat *CALL Scotland (Communication, Access, Literacy and Learning)* erakundeak (2014) burutu du (ikus Irudia 15). Horrela, dislexia duten ikasleei zuzendutako iPad aplikazioen "gurpila" argitaratu du. Horretan bisualki ezberdindu daitezke egungo aplikazio baliogarri batzuk.



Irudia 15. Dislexia duten haurrei zuzendutako iPad aplikazioak

Aplikazioen gurgil hori aurretik sorturiko beste app irudikapenetan du oinarri. Hain zuzen ere, *Pedagogy Wheel* (Carrington, 2012), *Mobile Learning with Bloom's Taxonomy & the Pedagogy Wheel* (Pickering, 2012) eta *Apps for Students with Autism Spectrum Disorders* (Mark Coppin, 2012). Izan ere, guzti horien aitzindaria Allan Carringtonek (2012) sorturiko Pedagogiaren gurgila izango zen. Autoreak hezkuntzarako baliogarriak diren 62 Ipad aplikazio sailkatzen ditu, horretarako Bloom-en taxonomia digitala (Churches, 2009) oinarri hartzen duelarik.

Bestalde, ikerketa ezberdinek dislexia duten haurrei zuzendutako softwareen efikazia ebaluatzen jardun dute.

Rello, Bayarri, Otal eta Pielot (2014) autoreek eginiko ikerketan, *DysEggxia* Ipad-aplikazioa ebaluatzen dute. *Dysegxia* dislexia duten haurren ortografia hobetzeko joko da. Ikerketan lagina 48 haurrez osatzen zen eta horietako haur batzuk *Dysegxia* jokoarekin jolasten aritu ziren 4 asteetan zehar eta beste batzuk *Word Search* jokoarekin.

Dysgexxia jokoarekin jolastu zuten haurrek idazketa akats gutxiago egiten zituztela frogatu zuten.

Beste ikerketa batean, arrisku egoeran zeuden haurren alfabetatzea hobetzeko Ipad aplikazio ezberdinak ebaluatu ziren (Brown eta Harmon, 2013). Ikerketan lorturiko datu estatistikoak esanguratsuak ez baziren ere, datu praktikoez ezagutza alfabetikoa eta zenbakien kontzeptua hobetzen zela erakusten zuten.

Testuen irakurketa errazteko software ezberdinak ere sortu eta ebaluatu dira. Santana, Oliveira, Almeida eta Ito (2013) autoreek web orriak pertsonalizatzeko *Firefixia* erreminta sortu dute eta Dislexia duten pertsonen pertsonalizazioa ahalbideratzen duen erreminta hori modu baikorrean estimatzen dutela frogatu dute. Ildo berean, dislexia duten haurren begi mugimenduak aintzat harturik, testua pertsonalizatzeko erremintak ere sortu dira. Horietako batzuk, Web-orriak egokitzeko *Text4All* (Topac, 2012), liburu elektronikoak irakurtzeko Android-en *IDEAL* (Kanvinde, Rello eta Baeza, 2012) eta iOS *DysWebxia Reader* (Rello, Bayarri eta Gorriz, 2012) dira.

Beraz, ikus daitekeenez gero eta gehiago dira dislexia duten haurren zailtasunak konpentsatu eta esku-hartzeko sortzen ari diren aplikazioak. Gainera, garrantzitsua da aplikazio horien efikazia ebaluatzeko ikerlariak egiten ari diren esfortzua, aplikazioak aukeratzeko orduan kontutan hartu behar den irizpidea izan behar delako. Baina zailtasunak konpentsatzeko orduan toki garrantzitsua bete dute ere azken urteetan asmatutako hardwareak, hurrengo puntuan azalduko denez.

13.2. Dislexia duten pertsonentzat lagungarri diren Hardwareak

Gaur egun dislexia duten pertsonen bizimodua erraztu dezaketen hardware aukera anitzak daude. Horren isla dira:

Agenda elektronikoak: antolatzeko eta gauzak gogorarazteko bidea ematen dute, batez ere epe labur zein luzeko oroimen zailtasunak dituzten dislexikoei. Agenda formatu asko daude, dispositibo mugikorreko aplikazio bezala azaltzen direnak edo aspaldiko teknologia altuko PDAk.



Irakurketa boligrafoak (Reading Pen): dislexia duten pertsonentzat sortuak, irakurketa boligrafoak testua eskaneatzen dute eta hitzak formatu handiagoan irudikatzeaz gain, boz-goran irakurtzen dituzte. Hitzen definizioak ere gaineratu ditzakete. Hala ere, momentuz ingelera soilik irakurtzeko gai dira.



Eskuko zuzentzaile ortografikoak (Handheld Spellcheckers and Dictionaries): idatzizko eta ortografia zailtasunak dituzten haurrei zuzenduta, zuzentzaile ortografikoa eta hiztegi portatila eskaintzen dizkiete. Dispositibo honek hitzaren hurbilketa batetik hitz aukera ezberdinak ematen dizkio ikasleari eta ozen esan ditzake ere.



Diktafonoak eta soinu-grabatzaileak: idatziz arintasunez jaso ezin diren hitzaldiak, bilerak, aurkezpenak ... grabatzeko eta ondoren horien berrikusketa egiteko aukera ematen dute. Gaur egun badaude ahozko edukiak transkribatzeko programak ere.



Orduan, egun ditugun erremintak, alde batetik IKTak erabiltzeko oztopoak saihestu egiten dituzte eta bestetik, zailtasun horien esku-hartze programetan bilakatzen dira.

13.3. Irakurketa-idazketa zailtasunak esku-hartzeko estatu mailako programak

13.3.1. Cognitua PT (Manuela Torres, 2004)

Cognitua PT estimulazio kognitiboa eta irakur-idazketa nahastean esku-hartzea helburuak dituen programa da. Ikuspuntu neuropsikologikoa du, beraz, irakur-idazketan parte hartzen duten prozesu guztiak aintzat hartzen ditu; prozesu pertzeptiboak (bisualak eta auditiboak), prozesu fonologikoak, kontzientzia fonologikoa, prozesu lexikoak, prozesu sintaktikoak eta prozesu semantikoak.

Profesionalek ikaslearen adin eta zailtasunei egokitzen zaion programazioa eratu dezakete, programak datu-base zabalak, egituratuak eta jarduera anitzak eskaintzen dituelako.

Cognitiva PT bi eremutan erabili daiteke; batetik, irakur-idazketaren errehabilitazio eta berreskurapenean, eta bestetik, irakur-idazketan parte hartzen duten prozesu kognitiboen indartzean.

Programak eskaintzen ditu:

- Prozesu bakoitza modu independentean lantzeko aukera.
- Ikaslearen beharretara malgutasuna eta egokitzapena.
- Interaktibitatea.
- Emaitzen ezagutza eta akatsak berehala zuzentzeko modu automatizatua.
- Emaitzen kontrola, saioen garapen-txostenak eratzeko aukerarekin.
- Erabilera errazten duen diseinu estetiko eta funtzionala.
- Autonomia maila altua.

13.3.2. *Tradislexia eta Sicole-R (Jiménez et al., 2007)*

Tradislexia dislexia duten hurrek aurkezten dituzten prozesu kognitibo urriak entrenatzeko bideojokoa da. Ordenagailuan oinarritutako banakako esku-hartzea eskaintzen du eta Lehen Hezkuntzako azken ziklotik Bigarren Hezkuntza 4. mailara arteko ikasleei zuzentzen da. Bideojoko honetan dislexian azaltzen diren prozesu pertzeptibo, fonologiko, ortografiko, sintaktiko eta semantiko urriak entrenatzen dira. Horretarako, esku-hartze jarduerak jokoaren eszenatoki ezberdinetan lantzen dira eta agente pedagogiko baten laguntzaz azaldu eta gidatzen dira. Bideojokoa amaitzean (40 minutuko 15 saio gutxi gora behera) ikaslearen entrenamendu-txostena eta profila eskuratu daitezke, puntuazioak eta erantzun zuzenen portzentajea adierazten duena. Txosten eta profilean puntuazioen interpretazioa emateaz gain, eskuratutako edo esku-hartu behar diren prozesu kognitiboak zehazten dira.

Dislexia duten haurren irakurketa hobetzeko *Tradislexiak* duen eraginkortasuna frogatuta gelditu da ikerketa ezberdinetan (Jiménez et al, 2007; Jiménez eta Rojas, 2008; Rodríguez eta Guiberson, 2011)

Bideojoko honekin batera, La Laguna unibertsitateko ikertzaileek *Sicole-R* dislexia diagnostikatzeko erreminta informatikoa sortu dute (Jiménez et al., 2007). *Sicole-R* LH eta BHko ikasleen irakurmena eta irakurketan parte hartzen duten prozesu kognitiboak ebaluatzeko programa da. Programa honen bitartez, *Tradislexia* jokoan entrenatu diren prozesuak hobetu badiren frogatu daiteke.

13.3.3. *Pizarra dinámica de lecto-escritura, PDLE (Herrera, 2008)*

Irakur-idazketan parte hartzen duten bide kognitibo bien ikaskuntza eta automatizazioa errazten duen online-softwarea da. Ordenagailuko pantailan testuekin lan egitea errazten du, letrak koloreekin nabarmenduz, hitzei mugimendua emanez edota irakurmen-abiadura egokituz.

Lan egiteko aukera bi ditu:

- Bide fonologikoa menderatzeko; silaba, hitz eta sasi-hitzen zerrendekin lan egitea ahalbideratzen du, ondorengo akatsak zuzentzeko batez ere;

- Ezaugarri edo soinu antzekoa dituzten hizkien erratzea (b-d, p-t)
- Silaba konplexuen alderantzikatzea (traba- tarba)
- Moteltasuna hitz berriak irakurtzean

- Bide lexikoa menderatzeko; testuekin lan egiteko aukera ematen du. Irakurmen-abiadura bereganatzea eta irakurtzerakoan hitzen asmatzea ekiditea ahalbideratzen ditu.

Eduardo Herrera autoreak, *Irakurketa Digitalak eta Begizorrotz baliabideak* ere baditu irakurketarekin erlazionatuta. *Irakurketa Digitala (2008)*, irakurketa eta idazketa euskaraz irakasteko helburua duen arbel digitalerako baliabide hezitzailea da. Irakurketa Digitalak irakasleari lagundu egiten dio testuak eta irudiak proiektatzen eta, letrak mugimenduekin, koloreekin eta audioekin irudikatu daitezke, irakurketa eta idazketa erakargarriagoak izan daitezten. Idazkeraren trazu zuzena lantzeko ariketak ere baditu baita grafia eta irakurketarako fitxak sortzeko aukera ere.

Begizorrotz silabiko eta globala (2007) baliabidearen kasuan, irakurtzen ikasten hasteko programa hezitzailea da. Fonema-grafema asoziazioa eta hitz arrunten ezagutza lantzen ditu.

13.3.4. *DiTres eta Lexia (Rehasoft, 2003)*

DiTres, DiTex DiDoc eta DiLet programak biltzen dituen software paketea da. Jatorri daniarra du eta zentzumen-anitzen ikaskuntzan oinarritzen da. Programa horien xedea ordenagailuak, ahots sintetiko bat medio, testu mota guztiak irakurtzeko gai izan dadila da. Horrela, dislexia duen pertsonak testuak entzuterakoan eduki guztia barneratu dezake, zentzumenen beste kanal bat irekitzerakoan idatzitakoa ulertu eta

asimilatu dezakeelako. Beraz, programaren bitartez, irakurri eta entzun egiten da alda batera, zentzumen-anitzen ikaskuntza aplikatuz.

Ikasleek autonomikoki lan egitea lortzen dute, irakurmen-abiadura hobetzen da (eta ondorioz irakurritakoaren ulermena), ortografia akatsak gutxitzen dira eta idazketaren antolakuntza eza oneratzen da.

DiTres programaren bitartez egin daiteke:

- Eskaneatutako edozein liburu, aldizkari, testu irakurri.
- Edozein dokumentu elektronikoa irakurri (Word, Excel, PowerPoint, PDF, Web-orriak, E-maila)
- Ordenagailuan idazten den guztia irakurri
- Arinago idatzi hitzen iragarlearen bitartez.
- Ortografia akatsak zuzendu, entzundako errore-zuzentzailea erabiliz.

Rehasoft enpresak irakurketa hobetzeko *Lexia* programa du ere. Ikuspuntu neurolinguistikoa izanik, esku-hartzearen denbora gehitzea du helburu, ikaskuntza eta errehabilitazioa eraginkorragoa izateko. Irakurketa trebatu, hitz eta esaldien ulermena entrenatu eta hizkuntzaren alde sintaktiko eta semantikoak lantzen ditu.

13.3.5. *Dysegxia (Rello, Bayarri eta Gorriz, 2012)*

Dislexia duten haurren idazketa-irakurketa hobetzeko mugikor-aplikazioa da. Programaren jarduerak idazketaren errore analisisian oinarritzen den metodologia linguistikoa jarraitzen dute. *Dysegxia* edo *Piruletras* jokoak 3 zailtasun maila ditu, hitzen maiztasuna, letra kopurua eta beste hitzekin duen antzekotasuna kontutan izanda. Gainera, maila bakoitzean 5 motatako jarduerak berezitu daitezke; tartekatzea, ez-ikustea, ordezkapena, hitzen banaketa eta eratorpena.

Autoreek Bartzelonako eskola batetan 6tik 11 urte bitarterako 48 haur dislexikoekin *Dysegxia* frogatu ondoren, hurrek egiten zituzten erroreak gutxitzen zirela frogatu zuten (% 42 gutxiago) (Rello, Bayarri eta Gorriz, 2012).

13.3.6. *Adapro (Instituto Tecnológico de Energías Renovables, S.A., 2012)*

Adapro ikaskuntza zailtasunak edo bestelako dibertsitate funtzionala duten pertsonen zuzendutako testu-tratamenduko programa da. Bere interfaze egokitua, gardena eta konfiguratu daitekeena, erabiltzailearen arreta mantentzea ahalbideratzen du.

Alde batetik interfazea egokitua da, dislexia duten hurrek edozein testu "Sarakanda" letra tipora aldatu dezaketelako (karaktereen nahaste bisuala ekidatuz), eta autismoa duten hurrek testua edo piktogramak txertatu daitezkeen teklatu birtualak dituztelako.

Bestetik gardena da, dokumentu fitxategiak desagertu egiten direlako eta dokumentu bakoitza piktograma batekin erlazionatu daitekeelako, dokumentuen kudeaketa erraztuz. Horretaz gain, saioa hasteko erabiltzaile bakoitzak abatar bat du, programaren sartzeari erraztuz.

Azkenik, editatzeko interfazea eta teklatu birtualak guztiz konfiguratu daitezke.

Adapro Europar Batasuneko FEDER (Fondo Europeo de Desarrollo Regional) proiektua da, Açores-Madeira-Canarias (PCT-MAC) nazioz gaindiko lankidetzaren programan kokatua.

13.3.7. Binding (Llorenc eta Sopena, 2013)

Zailtasunak dituzten haurren irakurketa maila hobetzeko sortu den softwarea da eta oinarri zientifikoa duen irakurtzeko metodologia berritzailea jarraitzen du. *Binding* metodologiaren bitartez, irakurketa bereganatzeko garrantzitsuak diren prozesuak entrenatzen dira, hala nola dekodifikazioa, lan oroimena, morfologia, lexikoa.

Bi ardatz nagusi ditu:

- Irakurmena garunean nola egituratzen den badakite; ikertzaileek arlo horretan garatzen dituzten aurrerapauso guztiak oinarrian dituzte.
- Response to Intervention esku-hartze eredu jarraitzen dute; gelako haur bakoitzaren norbanako garapena jarraitzen dute, horrela, zailtasunak sumatzen badituzte arreta egokitua emanez.

Binding programaren bidez, abiadura maila eta ulermena hobetzen dela frogatu dute.

13.3.8. Katamotz (Uriarte, 2011)

Irakurketa zailtasunak esku-hartzeko *Windows* eta *Linux* sistemetan erabili daitezkeen software askea da. Bide fonologikoa eta lexikoa lantzen ditu eta euskaraz zein gazteleraz dago.

Azaltzen den testuaren abiadura kontrolatu daiteke, hizkiak koloreztatu eta irakurketa paragrafoetan zatitu.

Azken urteetan *Katamotz Hizkiak*, hitzak ebakitzeko, eta *Katamiro*, ipuinak eta komikiak sortzeko programak garatu ditu autoreak.

Aurreko lerroetan aurkeztutako programak alderatuz (ikus Taula 6) ohar daiteke, ia programa guztiak 6 urtetik gorako ikasleei edo irakurketaren bereganatzea hasi duten haurrei zuzentzen direla. Gainera, programa horien efikazia ez da kasu guztietan frogatu, soilik *Tradislexia*, *Dyseggxia* eta *Binding*-en jokoek frogatu dute horien egokitasuna finkatutako helburuak lortzeko.

Taula 6

Irakurketa-idazketa zailtasunak esku-hartzeko estatu mailako programen konparaketa

Programa	Helburua	Zer esku-hartzen du	Nori zuzendua	Eraginkortasuna frogatua
Cognitiva PT (Torres, 2004)	Estimulazio kognitiboa eta irakur-idazketa nahasteen esku-hartzea	Prozesu pertzeptiboak, prozesu fonologikoak, prozesu lexikoak, prozesu sintaktikoak eta prozesu semantikoak	6 urtetik gorako haurrei	Ez da ikerketarik bilatu
Tradislexia (Jiménez, et al., 2007)	Dislexia duten haurrek aurkezten dituzten prozesu kognitibo urriak entrenatzea	Prozesu pertzeptibo, fonologiko, ortografiko, sintaktiko eta semantikoak	LHko azken ziklotik BHko 4. Maila-arteiko ikasleei	BAI. Ikerketa proiektua izanik, dislexiaren esku-hartzerako aukera egokia dela frogatu da
PDLE (Herrera, 2008)	Irakur-idazketan parte hartzen duten bide kognitibo bien ikaskuntza eta automatizazioa erraztea	Irakurketaren ikaskuntza, irakur zahaztasuna eta irakur abiadura	HHko 3 ziklotik aurrera	Ez da ikerketarik bilatu
Lexia (Rehasoft, 2003)	Esku-hartzearen denbora gehitzea, ikaskuntza eta errehabilitazioa eraginkorragoa izateko.	Suediako bertsoan; ezagutza fonologikoa, fonikoa, hizkuntza egitura, jarioatasuna, hiztegia eta ulermena Espainiako bertsoan;	Suediako bertsoan 4 urtetik aurrera Espainiako bertsoan 6 urtetik aurrera	Lexia programaren eraginkortasuna Suediako biztanlerian frogatu da. Baina programa hori eta Rehasoft enpresak eskaintzen duena ezberdina dela egiaztatzen da

	Irakurketaren garapena, hitz eta esaldien ulermena eta hizkuntzaren alde sintaktiko eta semantikoak.		da ikerketa honetan.
Dysegxia (Rello et al., 2012)	Dislexia duten irakurketaren ortografikoa erraztea	haurren bereganatze	Prozesu fonologikoak, ortografikoak, morfologikoak eta lexikoa
		6 urtetik haurrei	Bai, irakurketa gaztelera bereganatzeko joko eraginkorra dela frogatu da.
Adapro (ITEER, 2012)	Ikaskuntza zailtasunak bestelako dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat egokitzen ditu	haurren kasuan	Ez da ikerketarik bilatu
		6 urtetik haurrei	
Binding (Llorenc, et al., 2013)	Zailtasunak dituzten irakurketa maila hobetzea	haurren	Bai, irakurketa akatsak gutxitu eta irakurketa abiadura hobetzen dela egiaztatut dute
		6 urtetik haurrei	
Katamotz (Uriarte, 2011)	Irakurketa zailtasunetan kaltetuta azaltzen diren bide fonologikoak eta lexikoa lantzea, euskaraz .	haurren	Ez da ikerketarik bilatu

Beraz, egun estatu mailan ez ditugu haur hezkuntzako ikasleek azaltzen dituzten dislexia zeinu lasterrak esku-hartzeko softwarerik, ez euskaraz, ez gazteleraz. Bestalde, irakurketaren bereganatzea helburu duten haur hezkuntzako ikasleriari zuzenduriko programak (Adibidez *Begizorroitz* –Herrera, 2007- edota ikastetxe askok sorturikoak), ez dira modu zientifikoan ebaluatu, hots, ez da ikerketarik gauzatu horien eraginkortasuna eta egokitasuna neurtzeko.

Hori dela eta, ikerketa honetan Haur Hezkuntzan dislexia izateko lehen zeinuak azaltzen dituzten haurrei zuzenduriko softwarea sortu nahi da. Berni programaren bitartez, aurre-irakurketa abilezietan azaltzen dituzten zailtasunak esku-hartu nahi dira eta euskaraz sortu eta ebaluatuko den lehen programa izango da.

BIGARREN ATALA: MARKO ESPERIMENTALA
IV. KAPITULUA
IKERKETA ESPERIMENTALA

14. Arazoaren Planteamendua

Hizkuntza eta komunikazio gaitasuna gizakien bizitzako arlo guztietan dihardu, baita lorpen akademikoan ere. Izan ere, hezkuntza eremuan hizkuntza ezinbestekoa dela esan daiteke, irakaskuntza ulertzeko, eskolako ekintzetan parte hartzeko, berdinekin eta irakaslearekin erlazioak mantentzeko, eta informazioa laburbildu eta ezagutzak zabaltzeko. Beraz, komunitate letratueta hezkuntza esparruan irakurketaren bereganatzea hizkuntza komunikatzeko ezinbesteko gaitasunean bilakatzen da. **Irakurketa** edukiak barnerratzeko biderik garrantzitsuena da eta askatasuna ematen duena etengabeko ikaskuntza jasotzeko ere.

Baina autore ezberdinek irakurketa-idazketaren irakaskuntza-ikaskuntza noiz hasi behar den eztabaidan jarri dute. Cohen-erekin (1984) bat datozen autoreek, irakurketaren ikaskuntza atzeratzeak hurrek garatuko dituzten irakurketa gaitasunetan eta mailan eragin negatiboa duela baieztatzen dute. Muchielli-rekin (1985) bat datozenak, aldiz, irakurketa arinegi behartzen baden autoestiman eta igurikapenetan eragiten duela onartzen dute, atzerapena sorraraziz.

Ondorioz, badirudi irakurketaren ikaskuntza bereganatzeko momenturik optimoena bilatu behar dela, ahalik eta lasterren izango dena pertsona bakoitzarentzat (Sellés, 2006). Carrillo, Calvo eta Alegría (2001) autoreen aburuz, momentu hori Haur Hezkuntzan eman beharko zen, irakurketaren ikaskuntza Haur Hezkuntzan hasteak edukien praktika eta sekuentziarioa hobetzen duelako eta, egokitzapen indibidualak egiteko aukerak areagotzen dituelako. Horrela, Haur Hezkuntzan irakurketaren aurre-ahaleziak ondo garatzeak irakurketaren ikaskuntza arrakastatsua izatea ahalbideratuko du (Torgesen, 2007).

Zoritxarrez, irakurketa bereganatzearen prozesu hori oso zaila bilakatzen da zenbait umeentzako. Gainera, egungo gure curriculum kontutan hartuz, irakurketa-idazketaren bereganatzea Lehen Hezkuntzaren lehen zikloko helburu bezala azaltzen da. Horrek suposatzen du, haurrak zailtasunak azalduz gero, horiek ez direla irakurketa zailtasun espezifikoak bezala identifikatuko irakurketa-idazketaren irakaste-ikaste prozesua burutu arte, hau da, lehenengo zikloa bukatu arte. Kasu onenean, diagnostikoa eta esku-hartzea LHko lehen zikloan egiteak, hurrek behar besteko egokitzapenak izatea eta aspektu horietan aurrera egitea ahalbideratuko du. Hala ere, ordurako, bi urteko eskola-atzerapena izan dezakete.

Baina azken hamarkadetan irakurketa lasterraren garapenari buruzko ezagutza asko zabaldu da. Horrela, hurrek nola irakurtzen

duten aztertu da, irakurketaren oinarri neuropsikologikoaren eta bere garapenaren gaineko informazioa zehaztuz. Egun, ezaguna da aurretiazko kontzientzia fonologikoaren eta grafema-fonema korrespondentziaren garapenak irakurketa zehaztasunez burutzearekin erlazionatzen direla (Share eta Stanovich, 1995). Bestalde, dekodifikazio fonologikoaren abilezien garapenak etorkizuneko irakurketaren jarioitasunean eragiten duela ere ezagutzen da (Ehri, 2002) eta nola hori testuaren ulermenarekin erlazionatzen den (Share eta Stanovich, 1995).

Guzti horrek irakurtzen ikasteko zailtasunean eragiten dituzten aldagaiak ezagutzeko aukera eman du. Gainera, II. kapituluaren adierazi denez, irakurketa zailtasunak azaltzeko arriskua duen haur baten identifikazioari dagokionez, Haur Hezkuntza da etorkizuneko ikaskuntza zailtasunetan eraginik handiena duen aldia. Horrela, aldi horretan azaltzen diren kontzientzia fonologikoko zailtasunek etorkizuneko dislexia bat iragarri ditzakete (Jiménez eta Venegas, 2004; Bridges eta Catts, 2011). Baina badaude aldi honetan antzematen diren beste arrisku zeinu batzuk ere. Hortaz, izendatze abiaduran, printzipio alfabetikoan, ahozko adimenean, adierazpen-hartze hizkuntzan edota idatzitakoaren kontzientzian zailtasunak azaltzeak hizkuntza idatziaren bereganatzean eragin zuzena dute (Catts et al., 2001; Bowey, 2008). Aipatutako aldagai horiek aurre-irakurketa lantzeko beharrezko dimentsioetan bihurtzen dira, eta era berean, irakurketarekin erlazionatzen diren etorkizuneko zailtasunak detektatzeko aldagaietan ere.

Beraz, ikaskuntza-zailtasunen lehen adierazpenak Haur Hezkuntzan azaltzen badira, eta dislexiaren zailtasun kognitiboek denborarekin iraunarazi eta okerrera jotzen badute (Jiménez et al., 2009), goiztiar identifikatu eta esku-hartzea funtsezkoan bilakatzen da. Eleveld-en (2005) esanetan islatzen denez;

"Dislexiarako arriskua duten haurren identifikazioa eta esku-hartze lasterra beharrezkoak dira irakurketa zailtasunak eta horiekin erlazionatzen diren arazoak minimizatzeko edota aitzintzeko" (or.10).

Horretan oinarrituta, Haur Hezkuntzako irakasleek zailtasunak azaltzen dituzten haurrak detektatzeko gaitasuna eta baliabideak izan beharko lituzkete. Hala ere, egun ez dago euskaraz eta Haur Hezkuntzako irakasleei zuzendutako aurre-irakurketa abileziak eta horien zailtasunak dituzten haurrak identifikatzeko baliabiderik.

Bestalde, esku-hartze lasterrak hurrek irakurketa-idazketa bereganatzeko behar dituzten estrategiak garatzea ahalbideratuko du. Baina prebentziora bideratutako esku-hartzea izango da, zeinu lasterren

garapena ezberdina izan daitekeelako. Hau da, lehen fase honetan burutuko diren prebentzio ekintza guztiek lehenengo adierazpen horien hobekuntzari erantzun behar diote, adierazpenak dislexia edota irakurketa-atzerapen soil baten bihurtuko direla jakin gabe.

Horrela, **esku-hartze erantzunaren eredua** hartzen da oinarritzat. Eredu horren arabera, etorkizunean dislexia izateko arriskua duten haurren esku-hartze programak proposatzen dira. Horrela, arrisku zeinu lasterrak aurkezten dituzten haurrak esku-hartzen dira eta esku-hartze horri erantzuten ez badute irakurketa zailtasunen identifikazioa baieztatzen da. Beraz, eredu honen oinarrian prebentzioa dago, eta modu horretan, nahasmendu larriak ez dituzten haurren zailtasunak hobetzen dira. Prebentziozko esku-hartze hori gabe, eskolan porrota izateko arriskua izan ditzakete, eta ez irakurketan zailtasunak izateagatik, baizik eta beste baldintza batzuegatik (Jiménez, 2012).

Mota honetako prebentzioa gure esku badago, ez du inolako zentzurik haurra dislexiko bezala etiketatua izan arte itxaroteak, ezta atzerapen akademiko nabaria izan arte zain egoteak ere. Hots, ez da Lehen Hezkuntzako lehen zikloa bukatu arte itxaron behar umearen irakurketa zailtasunak esku-hartzeko. Aipatu denez, Haur Hezkuntza litzateke prebentziozko esku-hartzea egiteko garairik hoberena. Tamalez, gure Hezkuntza sisteman ez dugu dislexiaren zeinu lasterrak esku-hartzeko euskaraz eta Haur Hezkuntzan garatzeko esku-hartzerik.

Gainera Haur Hezkuntzako ikasle kopuruak, baliabide pertsonal eskasiak eta curriculumaren betebeharrak, esku-hartze indibidualizatu bat aurrera eramatea eragozten dute. Haur Hezkuntza ez da derrigorrezko etapa bat eta hezkuntza sistematik prebentziozko esku-hartzeak egiteko ahalegin handiak egiten diren arren, erantzukizuna tutorearen gainean gelditzen da. Beraz, proposatzen den esku-hartzea tutoreen gaitasunetara eta baliabideetara moldatu behar da.

Kontutan hartu behar da ere, beste hizkuntzetan eta indibidualki gauzatutako esku-hartzeek ez dutela dislexiaren kasuak gutxitu, hori dela eta, aurrekoen gabeziak betetzen dituzten esku-hartze eredu berriak behar dira. Horrela bada, teknologi berriak esku-hartze horien eredu aldizkako edota osagarrian bilakatu dira (Bernardo et al., 2005). Perez Soto autoreak esaten duenez (2008), IKTak irakurketa zailtasunak dituzten haurren hezkuntza eta formaziorako funtsezkoak dira; eduki guztiak landu daitezke, ikaskuntza indibidualizatu hobesten dute, erritmoak eta beharrianak errespetatzen dituzte, motibagarriagoak dira,...

Esku-hartze programa ezberdinen artean, **Ordenagailuz Lagundutako Ikaskuntzan** (OLI) oinarritzen direnak errefortzua,

praktika eta berehalako feedback-ka duen ikaskuntza indibidualizatua eskaintzen dute (Soriano, 2007).

Gainera, esku-hartzea IKT-en bitartez gauzatzeak, aurrean azaldutako arazoei irtenbidea bilatzeko modu bat izan daiteke. Alde batetik, esku-hartzea klasean bertan egitea ahalbideratu dezakeelako, baliabide pertsonal gehiagoren beharrik gabe eta curriculumaren helburuak integratzeko aukera izanik. Eta bestetik, ez luke irakaslearen esku-hartze zuzena eragingo, hurrek modu autonomoan burutu dezaketelako esku-hartzea.

Beraz, ikerketa honetan aurreko arazoei erantzun nahi da. Horretarako, dislexiaren zeinu lasterrak esku-hartzeko programa bat garatu nahi da, IKTetan oinarria duena, zeinu lasterrak zein irakurketa-idazketaren aurre-abileziak lantzen dituen, irakasleen gaitasun eta baliabideetara egokitzen dena, haur hezkuntza aldian martxan jartzen dena eta gela arruntean erabili daitekeena.

15. Helburuak eta hipotesiak

Hulme eta Snowling-ek (2009) adierazten dutenez, irakurketa zailtasunen identifikazio eta esku-hartze lasterrak irakurketaren lorpen arrakastatsua suposatzen du, esku-hartzearen efikazia nabarmendu egiten delako detekzioa lasterra bada.

Baieztapen hori oinarri hartuta, **ikerketa-helburu orokor (HO)** bat planteatzen da; **Haur Hezkuntzako haurrek aurkezten dituzten irakurketa zailtasunen zeinu lasterren hobekuntzarako, Berni esku-hartze softwarea ebaluatzea.**

Hala ere, aurreko puntuan aipatutako arazoak kontutan hartuta, helburu orokorra lortzea ahalbideratuko dituzten ikerketaren helburu espeziifikoak (HE) ere definitu dira. Horrela;

- HE1: *Irakurketa Zailtasunen arrisku zeinuak identifikatu eta operatibo bihurtzea.* Egungo ikerketek ezberdintzen dituzten arrisku zeinuen inplikazio-maila identifikatzeaz gain, ikerketaren helburu orokorra lortu ahal izateko beharrezkoa da zeinu horiek neurgarri bilakatzea. Modu horretan, zeinu horiek hobetzeko haurrak landu behar dituen edukiak eta ekintzak proposatu ahalko dira.
- HE2: *Dislexiaren arrisku zeinuak esku-hartzeko euskarazko hezkuntza software bat diseinatu eta garatzea.* Aipatu denez, OLI metodologian oinarritzen den prebentzio softwarea sortu nahi da; dislexiaren arrisku zeinuak esku-hartzen dituena, Haur Hezkuntzari zuzendua, gelan gauzatu daitekeena eta modu autonomoan burutu daitekeena. Horretarako, oinarri hartuko dira HE1ean identifikatutako aurre-dislexia zeinuak eta horien operatibizazioa.
- HE3: *Irakasleei zuzendutako eta aurre-irakurketa zailtasunak dituzten haurrak identifikatzeko baliabideak analizatzea.* Ikaskuntza zailtasunak Haur Hezkuntzan azaltzen dira eta irakasleak horiek identifikatu ditzaketen lehenak izan daitezke. Baina horretarako baliabideak behar dituzte. Hain zuzen ere gure hezkuntza sistemaren ezaugarriak, hizkuntza eta irakasleen ezagutzak errespetatzen dituzten baliabideak.
- HE4: *Berni Softwarearen efikazia ebaluatzeko erremintak analizatzea.* Berniren esku-hartzea eraginkorra izan den, aurre-dislexia adierazpenen aldagaiak hobetzen diren ala ez neurtu behar da. Horretarako, erreminta ezberdinak analizatu eta egokienak aukeratu beharko dira, horiek esku-hartzea egin aurretik eta ondoren erabili ahal izateko.

- HE5: *Esku-hartutako haurren aurre-irakurketa abileziak hobetzea. Dislexiaren arrisku zeinuak hobetzean irakurketara prestatzeko abileziak hobetuko direla ere espero da.*
- HE6: *Irakurketaren ikaskuntza prestatzeko funtsezkoak diren eta Haur Hezkuntzako curriculumean aintzat hartzen ez diren gaitasunak landu. Irakurketaren bereganatzean Berniren bitartez esku-hartzen diren abilezien garrantzia azpimarratu nahi da. Baina horretarako hobetzen diren abileziak Berniren esku-hartzearen ondorio direla, eta ez gelan eginiko irakaskuntza prozesuaren ondorio, bermatu behar da.*

Ikerketaren helburu orokorra eta helburu espezifikoek gain, garatuko den esku-hartze softwareak bere helburu didaktiko propioak ere baditu. Horrela, garatu eta ebaluatu nahi den Berni programa hezkuntza-softwarea da, lortu nahi diren gaitasun eta helburuen arabera diseinatua eta, esku-hartuko diren aldagaien, horien dimentsioen eta aldagai bakoitzak IZ iragartzeko duen eraginaren arabera antolatua.

Taula 7an islatzen diren helburuak eta edukiak kontutan hartuz, Berni softwarearen bidez lortu nahi diren helburuak esku-hartuko den aldagaiaren arabera aldatu egiten direla ohar daiteke;

Taula 7

Berni softwarean lantzek diren edukiak eta helburuak

ALDAGAIA	HELBURUAK
Kontzientzia Fonologikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Fonemak identifikatu eta bereiztea. - Hitz bat osotzen duten silabak bereizi eta identifikatzea. - Fonemak grafiekin erlazionatzea. - Soinuen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak antzematea.
Ezagutza Alfabetikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Objektuen irudi piktografikoekin aritu, etapa piktografikoa menperatzen duela egiaztatzeko. - Etapa logografikoa garatu, idazketa globala aztertuz. - Deskodetze fonologikoaren lehen urratsak gauzatu, printzipio alfabetikoa ulertzen joateko, grafema-fonema erlazioen bitartez.
Hitzezko Adimena	<ul style="list-style-type: none"> - Hiztegia garatu eta aberastu. - Objektuak eta koloreak izendatu adinari egokia den abiadurarekin (RAN). - Ahozko jarraibideak ulertu. - Kontzientzia morfologikoa garatu - Hitz sekuentziak memorizatu.
Adierazpen/Hartze hizkuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Ulertzeko gaitasuna indartu. - Ahozko adierazpenean adinari dagokion hiztegi egokia erabili. - Egitura morfosintaktikoak garatu eta landu.
Idatzitakoaren kontzeptua	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza idatziaren helburuak eta funtzioak ulertu. - Testuak mezuak komunikatzen dituztela interpretatu. - Hitzak ezberdindu, kantitate eta aldaera hipotesiak asimilatuz. - Hitzen, testuen eta orrialdeen norabidea identifikatu.

Aipatutako helburu orokor, espezifiko eta didaktikoen lorpenerako aurrera eramango den ikerketaren diseinua kontutan hartzen bada, aurkezten den ikerketa mota **esperimental**a dela esan daiteke, pertsona talde bati esku-hartze bat eskaintzen zaiolako horren ondorioak behatzeko. Esku-hartzea aldagai independentea izanik eta horren ondorioak aldagai dependenteak.

Ikerketaren mailari dagokionez, ikerketa **esplikatzailea** da, irakurketa zailtasunen arrisku zeinuen hobekuntza (aldagai dependentea) hezkuntza-softwarearen (aldagai independentea) ondorio dela demostratu nahi delako, hots, kausa-efektu erlazioa finkatu nahi delako.

Ikerketaren hipotesiei dagokionez, helburu nagusiaren lorpenarekin batera, aurre-irakurketarako abileziak hobetzen diren ala ez ezberdindu nahi da. Baita, haurrek izandako hobekuntzak irakaslearen irakaskuntza prozesuagatik edo garatutako esku-hartzeagatik izan badiren berezitu nahi dira ere.

Beraz, ikerketa honetan planteatzen diren **hipotesiak** hurrengoak dira:

- *Ikerketa-hipotesia 1 (H_1): IZ azaltzeko arriskua eta Bernirekin esku-hartuak izan diren haurrek (TE)⁷, aurre-dislexia zeinuen ebaluazioan emaitza hobekoak lortuko dituzte arrisku egoeran baina ez esku-hartuak izan diren haurrak (KT_1)⁸ baino.*

Hipotesi honetan esku-hartzea jaso duten eta jaso ez duten taldeen arteko konparaketa egin nahi da, beraz, **konparazio-hipotesia** dela esan daiteke (Sampieri, 2010). Gainera, manipulatzeko den aldagaia independentea denez, hau da, esku-hartzea jaso ala ez, **esperimental** da.

- *Ikerketa-hipotesia 2 (H_2): IZ azaltzeko arriskua eta Bernirekin esku-hartuak izan diren haurrek (TE) aurre-irakurketa abileziak hobetuko dituzte.*

Hipotesi deskribatzailea dela esan daiteke gertaera baten ondorioak deskribatu eta aurreratu direlako (Sampieri, 2010).

- *Ordezko hipotesia (H_a): Esku-hartutako abilezien hobekuntzak Berni softwarearen ondorio dira eta ez gelako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ondorio.*

Kasu honetan ikerketa hipotesiari (H_1) ezberdina den beste aukera bat ematen denez, ordezko hipotesi moduan har daiteke (Sampieri, 2010).

- *H_0 : : IZ azaltzeko arriskua eta Bernirekin esku-hartuak izan diren haurrek (TE), aurre-dislexia zeinuen ebaluazioan **EZ** dituzte emaitza*

⁷ TE; Talde esperimental

⁸ KT_1 ; Kontrol Taldea 1

hobeagoak lortuko, arrisku egoeran baina ez esku-hartuak izan diren haurrak baino (KT_1).

16. Metodoa

16.1. Lagina

Analizatutako populazioa Bizkaiko 7 ikastetxeetako lau eta bost urteko 417 ikasleek osatzen dute. Parte hartu duten ikastetxe guztiak gune euskaldunean kokatzen dira, D eredia dute eta familien maila sozioekonomikoa ertaina dela esan daiteke;

- Bermeoko Sagrado Corazón ikastetxea
- Bermeoko Eleizalde ikastola
- Gernikako Allende Salazar ikastetxea
- Mungiako Larramendi ikastetxea
- Zornotzako Lauaxeta ikastola
- Bilboko Kirikiño ikastola
- Bilboko Begoñazpi ikastetxea

Laginaren lehen hautaketa burutzeko, hau da TE eta RT1 osatuko zituzten haurrak hautatzeko, haurren tutoreei eskatu zitzaizen dislexiaren zeinu lasterrak zituzten haurrak identifikatzea. Horretarako, zeinu lasterrak zeintzuk ziren, horien ezaugarriak eta proiektuaren nondik norakoak azaltzeko formazio saio bat eskaini zen. Zenbait ikastetxeetan bigarren zikloko tutore guztiei zuzendu zen formazioa eta beste ikastetxe batzuetan Haur Hezkuntzako irakasleri guztiari zuzendu zen. Bigarrenez, merkatuan aurre-irakurketa zailtasunak identifikatzeko dauden baliabide ezberdinak aztertu ziren. Horretarako, kontutan hartu zen baliabidea irakasleen gaitasunetara egokitu behar zela, Haur Hezkuntzara zuzendu behar zela eta marko teorikoan aztertutako aurre-dislexia zeinuak ebaluatu behar zituela. Aztertutako frogen artean, hurrengoak aukeratu ziren:

- *Dynamic Indicators of Basic Early Literacy Skills, Sixth Edition* (DIBELS-6) (University of Oregon Center on Teaching and Learning, 2002).
- *Early Reading Diagnostic Assessment, Second Edition* (ERDA-2) (Harcourt Assessment, 2003)
- *Teacher Rating of Oral Language and Literacy* (TROLL) (University of Michigan School of Education, 2001).

Frogen azterketatik ondorioztatzen da; ERDA frogak ebaluatu nahi ziren aldagaiak kontutan hartzen bazituen ere, diagnostikoko froga bat zen eta hori ez zen bilatu nahi zena. Gainera, diagnostikoa egitea

irakasleen zereginetatik at gelditzen zen. DIBELS eta TROLL, ordea, screening testak ziren, hau da, ebaluazioa eta detekzioa zuten helburu. DIBELS frogaren kasuan, dislexiaren arrisku zeinuak identifikatzeko TROLL baino egokiagoztat hartzen bazen ere 5 urtetik gorako haurrentzat zuzentzen zen eta gure laginean 4 urteko haurrak ere bazeuden.

Beraz, azkenean *Teacher Rating of Oral Language and Literacy - TROLL* (Dickinson, 2001) froga aukeratu zen irakasleek kontzientzia fonologikoan, adierazpen- eta hartze-hizkuntzan eta hitzeko oroimenean zailtasunak zituzten haurren aukeraketa egiten laguntzeko. Hala ere, moldapen batzuk egin ziren Euskal Autonomi Erkidegoko curriculumari eta euskara hizkuntzara moldatzeko, 3.2 puntuazaltzen denez eta 2. eranskinean ikus daitekeenez.

Ondoren, H₃ baieztatzeko helburuarekin, irakasleei eskatu zitzaizen arazoak aurkezten ez zituzten haurren artean talde esperimentalaren ikasle kopuru berdina zoriz aukeratzea. Hau da, KT₂⁹ eratuko zuten haurrak aukeratzea. Horren bitartez, irakaslearen gelako irakaskuntza-ikaskuntza eragina kontrolatu ahal izango zen.

Irakasleek aipatutako haur guztiak aukeratu eta gero, Dislexiaren zeinu lasterrak neurtzeko ebaluazio-baliabideak aukeratu ziren. Aztertutako frogen artean, BIL 3-6 (*Bateria de Inicio en Lectura 3-6*) (Sellés et al., 2008) eta DEST-2 (*Dyslexia Early Screening Test-2*) (Nicolson eta Fawcett, 2003) testak aukeratu ziren. Alde batetik, BIL testa ikerketa honen marko teorikoan aztertutakoarekin bat datorrelako, eta oinarri enpirikoa duten aurre-irakurketaren abilezien garapena neurtzen dituelako aukeratu zen, 3.2 puntuazaltzen denez eta 3. eranskinean ikus daitekeenez. Hau da, aztertutakoarekin adostasunean zegoen froga delako aukeratu zen BIL 3-5 testa. Beste alde batetik, DEST-2 testak dislexiaren arrisku zeinuak neurtzen dituen eta 4-6 urte bitarteko haurrei zuzentzen zaion froga bakarra denez, horixe erabiltzea erabaki zen (Irakur 3.2 puntua eta ikus 3 eta 4 eranskinak).

Hala ere, haurren aurre eta ondorengo ebaluazioak egiteko denbora oso mugatua zenez, test biek zenbait abilezia neurtzeko azpi-froga antzekoak azaltzen zituztenez eta azpi-frogak modu independentean aplikatzeko eta ebaluatzeko aukera ematen zutenez, froga bien bertsio bateratua eta euskaratua eratu zen.

⁹ KT₂: Kontrol Taldea 2

BIL 3-5 testaren kasuan, 1, 2, 3, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14 eta 15. frogak erabili dira eta $PC \leq 30$ baldintza hartu da arazoak zituzten haurrak identifikatzeko. **DEST-2 testaren kasuan**, 1, 3, 6 eta 7 frogak erabili dira eta froga bakoitzaren interpretaziorako, testak ematen duen "Arrisku Adierazgarrien Puntuazio Gakoak" erabili dira (ikus Taula 8).

Taula 8

Iherketan erabili diren DEST-2 eta BIL 3-5 testen azpi-frogak

	DEST- 2	BIL 3-6
Kontzientzia Fonologikoa	Test 3: Bereizketa fonologikoa	Test 2: Artikulazioa Test 9: Silabak eta fonemak isolatzea Test 13: Errima Test 14: Silabak zenbatzea Test 15: Silabak ezikusi
Printzipio Alfabetikoa		Test 5: Hizkien izenen ezagutza
Hitzezko Memoria	Test 1: RAN Test 6: Digituen oroimena Test 7: Digituak izendatzea	Test 1: Hiztegia Test 3: Entzumenezko adimen sekuentziala Test 6: Hitzen ezagupena
Idatzitakoaren Kontzientzia		Test 8: Esaldien ezagupena Test 10: Irakurmenaren funtzioak
Adierazpen- eta Hartzeko- Hizkuntza		Test 7: Hitzak zenbatu Test 11: Egitura gramatikala Test 12: Oinarriko kontzeptuak

Gainera IZ aurkezteko arrisku zeinuak islatzen zituzten haurren kasuan, **adimen gaitasun orokorra** edo "g" faktorea ere ebaluatu da euskaratutako Cattell-en "g" faktorea, eskala 1 (Cattell, 2005) testa erabiliz (Ikus Eranskina 1). Lortutako emaitzen arabera, TE eta RT_1 taldeetako haurren artean ez dago ezberdintasun esanguratsurik ez adin errealean [$t(40) = 1.19, p = .24$], ez "g" faktorean [$t(39) = 0.24, p = .81$], ezta adin mentalean [$t(40) = 0.09, p = 0.93$] ere.

Beraz, zailtasunak dituzten haurren adina eta "g" faktorearen emaitzak kontutan izanik, haur guztien adin intelektuala adin kronologikoarekin bat egiten duela aurreikusi daiteke (Ikus Taula 9).

Taula 9

Cattell-en "g" faktorearen frogan lortutako emaitzak

	Taldea			
	Esperimentalak		Kontrolak	
	<i>n</i> = 23		<i>n</i> = 19	
	<i>M</i>	<i>DT</i>	<i>M</i>	<i>DT</i>
Adin erreala	52.48	3.45	51.32	2.77
"g" faktorea	16.80	2.68	16.63	1.67
Adin mentala	53.30	4.08	32.21	2.68

Azkenik, datu horien arabera, aukeratutako haur guztien adimen koefizientea erdi mailan kokatzen dela ondoriozta daiteke (TE*: CI=102; KT1**: CI=104). Beraz, Cattell-en g frogaren bitartez, arazo sentsorialak, neurologikoak edota irakurketa zailtasunekin erlazionatzen ez diren beste arazoak aurkezten dituzten haurrak laginean ez daudela egiaztatzen da. Horrela, DSM-IV-R manualak azaltzen dituen irizpide diagnostikoa betetzen da (Ikus 48. orrialdea).

Ondorioz, laginaren banaketari dagokionez, dislexiaren arrisku seinaleak azaltzen zituzten 43 ikasleetatik 23k Berni softwareaz esku-hartuak izan dira (TE) eta beste 20ak ez (KT₁). Horretaz gain, arazoak aurkezten ez zituzten haurren kasuan (KT₂), 42 haur, beraien ebaluazioak H_a hipotesia baieztatzeko erabili dira (Ikus Taula 10).

Taula 10

Laginaren banaketa

	Aurre-irakurketa zailtasunak + Berni esku-hartzea TE*	Aurre-irakurketa zailtasunak esku-hartze GABE KT1**	Aurre-irakurketan zailtasunik gabe KT2***
Ikasle kopurua	23	20	42

* Talde esperimentalak

** Kontrol taldea 1

*** Kontrol taldea 2

16.2.Tresnak

16.2.1.Cattell-en "g" faktorea

Froga honen bidez adimen gaitasun orokorra edo "g" faktorea ebaluatzen da 8 azpi-test ezberdinen bitartez; 1. Ordezkapena, 2. Sailkapena, 3. Labirintoak, 4. Identifikazioa, 5. Ordenak, 6. Erroreak, 7. Asmakizunak eta 8. Antzekotasunak. Azpi froga horien multzo guztiak adimen mailaren puntuazioa ematen du, **adimen-koefiziente** unitateetan zehaztua edota **adin-mentala** adierazita.

Ikerketa honetan, Cattell-en 1.go eskala erabili da, 4 eta 8 bitarteko haurrentzat zuzendua dagoena hain zuzen ere. Aplikatzeko modu laburtua erabili da, aplikazio denbora murrizteko helburuarekin. Aplikatzeko modu horrek zaintza berezia eskatzen duenez, aztertzaile bi aritu dira froga pasatzerako orduan. Horrez gain, frogaren azpi-test batzuk eragin kulturaletik, hots, kultura, hizkuntza eta maila sozio-ekonomikotik at egon arren (1. Ordezkapena, 2. Sailkapena, 3. Labirintoak eta 8. Antzekotasunak), horien enuntziatuak eta beste azpi-test guztien instrukzio espezifikoak euskarara itzuli dira (Ikus Eranskina 1).

16.2.2.Ahozko Hizkuntza eta Alfabetatzerako Irakasleen Ebaluazioa (AHAIE). Teacher Rating of Oral Language and Literacy" (Dickinson, 2001) testan oinarritua (Eranskina 2).

Haur Hezkuntzara zuzendutako ebaluazio-erremintak eskasak dira baina are gehiago froga horiek euskara bezalako hizkuntza gutxitu batera itzuliak izan behar direnean. Beraz, hezkuntzako profesionalak sarritan ez dituzte baliabiderik alfabetatzea ebaluatzeko edo dituztenak ez dira egokiak. Baina funtsezkoa da haurren ebaluazioa beraien ama-hizkuntzan gauzatzea eta gure curriculumera egokitutako tresnak erabiltzea. Gainera, estandarizatutako frogak sortzearen beharra nagusitu egiten da horien funtsa irakurketa zailtasunak ekiditea denean, haurrek Lehen Hezkuntzan duten erronkarik nagusia irakurketa-idazketaren bereganatzea delako. Prozesu horretan, gaitasun metalinguistikoek garrantzi handia dute, batez ere, gure idazketa sistemaren jatorri alfabetikoagatik (Jiménez eta Ortiz, 2000). Hau da, idazketa-sistema ortografiko batetan irakurketaren arrakastak haurrak hizkuntzaren soinu elementuak ezagutu eta manipulatzeko gai dela suposatzen du (Jiménez eta O'Shanahan, 2008). Gaitasun horiek Haur Hezkuntzan garatzen dira eta, kalteberagoak izateaz gain, estimulazio handiagoa behar dute ere. Hori dela eta, nahitaezkoa da irakasleek haurren hizkuntzaren garapenean laguntzea eta norbanakoaren beharrianak prozesu guztian zehar ebaluatzea.

Haur Hezkuntzan, hizkuntza zailtasunak ez identifikatzeak, etorkizuneko ikaskuntza zailtasunak, atzerapen akademikoa edota motibazio, atribuzio eta auto-kontzeptu arazoak suposatu ditzake.

Modu berean, Haur Hezkuntzako iragarpen-ikerketen emaitzek frogatu dutenez, Lehen Hezkuntzara gaitasun linguistiko eta alfabetiko eskasekin iristen diren hurrek irakurketa zailtasunak aurkezteko probabilitate handiagoak dituzte (Fletcher-Campbell, Reid eta Soler, 2009; Scarborough, 2009; Dickinson et al., 2003; Scarborough, 2001).

Ondorioz, Haur Hezkuntzan alfabetatzea neurtzeko euskarazko erreminta baten beharra ikusita, ikerketa honetan irakasle eta ikasleen beharrianetara gehien egokitzen den froga aukeratu, moldatu eta itzultzea erabaki da. Hain zuzen ere "*Teacher Rating of Oral Language and Literacy*" (TROLL) testa aukeratu da, Dickinson et. al. autoreek 2001. urtean sortu zutena. Eskala hori itzulia, egokitua eta aditu-judiziopean jarri da, Ahozko Hizkuntza eta Alfabetatzerako Irakasleen Ebaluazioa (AHAIE) bertsioa sortuz. AHAIE eskalak hizkuntzaren erabilpena, idatzitakoaren kontzeptua, hitzezko oroimena eta idazketaren lehen hastapenak baloratzen ditu.

Eskalaren ezaugarriak azpimarratuz, AHAIE umeen alfabetatzea eta interesak jarraitzeko irakasleentzat garatu den erreminta bat da. Ez da beharrezkoa entrenamendu formalik AHAIE erabiltzeko, hala ere, eraginkorragoa da irakasleek hizkuntzari eta alfabetatzeari buruz ezagutzak badituzte. Beraz, erreminta hau diseinatuta dago ikasleen hizkuntzaren garapena eta alfabetatzea ezagutzen duten irakasle guztientzat.

AHAIE frogak ume bakoitzeko 5-10 minutu irauten du eta ez da beharrezkoa ikasgelako jarduerak eteterik.

Irakasleek jasotako informazioa hurrengo arloak identifikatzeko erabil dezakete:

- Atzerapenen bat erakusten duten edota logopedaren edo psikopedagogoaren ebaluazio formala behar duten umeak identifikatzeko.
- Alfabetatzearen garapenean goi-mailak erakusten dituzten umeak identifikatzeko eta beraz, erronka gehigarriak behar dituztenak.

Gainera, AHAIE ikasturte berdinean hainbat alditan aurrera eramanez, alde batetik, irakasleek bere ikasle guztien aurrerabidearen jarraipena egin dezakete. Bestalde, irakasleek klaseko ume guztien emaitzak konbina ditzakete irakaskuntza sistematikoagoa behar dituzten arloak zehazteko.

TROLL frogak 3 azpi-eskala ditu (Ahozko hizkuntza, Irakurketa eta Memoria) eta 25 itenez osatzen da. Hala ere, ikerketa honetan frogak hori dislexiaren arrisku zeinu lasterrak identifikatzeko erabili nahi izan denez, eta gure eskolen errealitate hurbilera egokitu eta euskarara itzuli behar zenez, informazioa osatzen zuten item batzuk gaineratzea erabaki da.

Lehenengo eskalari dagokionez, TROLL frogak 8 itemetik 6 **ahozko adierazpena** ebaluatzen erabiltzen ditu, kontzientzia fonologikoa eta ulermen lexikala alde batera utziz. Hori dela eta, 8 itemetik 3 mantentzea eta beste 5 item gaineratzea erabaki da.

- Zer maiztasunekin berreskuratzen du umeak **ikasitako lexikoa edo hiztegia**? (Objektuen, koloreen, formen, lagunen... izenak gogoratzen ditu).
- Umeak **bere adinari dagokion hiztegia ulertu eta espresatu** dezake?
- Zein neurritan aurkezten ditu umeak hitz komunak ahoskatzeko zailtasunak? (Adibidez; drotoka dortokagatik, kokreta krocketagatik) eta pseudohitzak (asmatutako hitzak)?
- Umeak egoki erabili eta ahoskatzen ditu fonetikoki antza duten hitzak?
- Zein neurritan aurkezten ditu umeak ikusi-makusi bezalako jokoetan hitzak segmentatzeko eta soinuak elkartzeko zailtasunak?

Irakurketaren eskalari dagokionez, azaltzen diren itemak idatzitakoaren kontzientzia eta printzipio alfabetikoaren gaineko informazioa jasotzen dute, hori dela eta, item guztiak mantentzea erabakitzen da.

Bestalde, **ahozko adimena**, bereziki, izendatze automatiko arinaren (*Rapid Automatic Naming*) abilezia alfabetatzearen garapenerako garrantzitsuak direnez, dimentsio hori baloratzeko **azpi-eskala** bat eratzea erabakitzen da, hurrengoko itenez osatua;

- Zer maiztasunekin da gai umea klasean kontatutako ipuinak kontatzeko?
- Zer maiztasunarekin gogoratzen ditu umeak gehien erreplikaturako segidak (asteko egunak, zenbakiak...)?
- Zein neurritan da gai abestiak ikasteko, musika-erritmoak jarraitzeko edo instrukzioak segitzeko?
- Umeak ikasgelako ohiturak jarrai ditzake?

Azkenik, **aurre-idazketaren gaineko azpi-eskala** berdin mantentzen da, bere baloraziorako informazio egokia jasotzen duela uste delako.

Item bakoitza 1 puntutik 4 puntura baloratzen da maiztasuna kontutan hartuz. Beraz, puntuazio osoa 30 puntutik 118 puntura aldatu daiteke. Puntuazio horien bitartez, irakasleak haurraren garapenari buruzko informazioa eskuratzen du. Gainera, AHAIE frogak, lortutako puntuazioaren arabera, abilezi bakoitza hobetzeko gomendioak ere eskaintzen ditu.

16.2.3. BIL 3-6 (Bateria de inicio a la lectura)

BIL 3-6 testa Pillar Sellés, Tomás Martínez, Eduardo Vidal eta Ramiro Gilabert autoreek 2008an garatutako froga dimentsio-anitza da; espainiako testuinguru kulturalera egokitua eta 4-5 urteko haurrei zuzendua, adin horietan azaltzen baitira irakurketa-idazketarekin erlazionatutako Haur Hezkuntzako curriculumeko lehen jarduerak. Irakasleei bideratzen den froga da, haurrek dituzten hasierako abileziak ezagutu ditzaten eta ekintzak arrakastaz egiten lagun diezaieten. Froga honek irakurketa haurraren momenturik egokienean irakatsi behar dela aldarrikatzen du, une goiztiarrean baina umeak oinarrizko abileziak garatuta dituenen. Beraz, BIL 3-6 frogak irakasleei ikasleen irakurtzen hasteko momenturik hoberena zein den aztertzen lagundu nahi die, banakakoan heldutasun erritmoak errespetatuz.

Frogaren helburua aurre-irakurketaren arrakastarekin erlazionatutako gaitasun kognitibo eta linguistikoak ebaluatzea da. Horrela, ume batek irakurketaren ikaskuntza errazten dituzten gaitasunak zein mailatan garatu dituen zehaztu daiteke eta irakurketa garatzeko une egokia den finkatu daiteke. Bestalde, irakurketan porrota izateko probabilitaterik handienak dituzten haurrak identifikatu nahi dira ere eta era berean, zailtasunak ekiditeko esku-hartzea jaso behar badituzten ebaluatu. Ikerketa honetan froga hau bigarren helburu horrekin erabili da, hau da, aurre-irakurketan zailtasunak dituzten haurrak identifikatzeko.

BIL frogan ez da etorkizuneko irakurketaren errendimendua neurtzen ezta etorkizuneko irakurketaren kalitatea iragartzen, haurrak irakurketaren eragileetan bihurtuko diren abileziak eskuratu badituen neurtzen da eta ondorioz irakurtzen ikasteko prest dagoen.

Frogaren egiturari dagokionez, 15 azpi-frogaz osatzen da (ikus Taula 11), 5 faktore eta 143 itemetan taldekatuta, irakurketaren hasierarekin erlazionatzen diren abileziak ebaluatzen dituztenak. Froga batzuek irakurketaren arrakastaren iragarleak diren abileziak ebaluatzen dituzte (Ezagutza Fonologikoa eta Ezagutza Alfabetikoa) eta beste batzuek irakurketaren bereganatzea errazten dutenak.

Taula 11.

BIL froga osatzen duten azpi-frogak

BIL 3-5 frogak ebaluatzen dituen abileziak	Abilezia bakoitza neurtzen duten azpi-frogak
Ezagutza Fonologikoa:	Errima
	Hitzak zenbatu
	Silabak zenbatu
	Silabak eta fonemak isolatzea
	Silabak ez-ikusi
Ezagutza Alfabetikoa	Hizkien izenen ezagutza
	Hitzak ezagutu
Ezagutza Metalinguistikoa	Esaldiak ezagutu
	Irakurketaren funtzioak
	Hiztegia
Abilezia Linguistikoak	Artikulazioa
	Oinarrizko kontzeptuak
	Egitura gramatikalak
	Entzumen-adimen sekuentziala
Prozesu Kognitiboak	Pertzepzioa

Frogaren aplikazioa banakakoa da eta aplikaziorako behar den denbora haurraren adinaren arabera aldatzen da. Horrela 3 urteko ume batek 45 minutu inguru behar izango ditu froga guztia burutzeko eta 6 urtekoak 20 minutu.

BIL 3-5 testaren emaitzen interpretaziorako, **laburpen horriek** azpi-froga bakoitzaren puntuazioei dagozkien pertzentilak (adinaren arabera) laburbiltzen dituzte. Gainera, abilezia bakoitzaren (Ezagutza fonologikoa, ezagutza alfabetikoa, ezagutza metalinguistikoa, abilezia linguistikoak eta prozesu kognitiboak) puntuazioa lortzeko formulak eta horien puntuazioen pertzentilak ere azaltzen dira. Horrela bada, ikerketa honetan $PC \leq 30$ pertzentilatik behera kokatzen ziren haurrek aukeratu dira TE eta KT_1 osatzeko.

Bukatzeko, bataz-beste 30 minutu behar izan dira haur bakoitzaren ebaluazioa gauzatzeko eta froga guztia euskaratua izan da irakasleei eta eskolei euskarri moduan uzteko. (Ikus Eranskina 3).

16.2.4. DEST-2 (*Dyslexia Early Screening Test - Second edition*)

Dyslexia Early Screening Test froga irakurketa zailtasunak izateko arriskua duten haurrak identifikatzeko diseinatu da. Modu horretan, eskolek umeei behar duten laguntza bideratu ahal izango dute.

Rod I. Nicolson eta Angela J. Fawcett psikologoek 2003an sorturiko DEST-2 testa, eskolako errutinetan erabiltzeko *screening*-testa da eta 4-6 urte bitarteko haurrei zuzendua dago. Psikologiako testak ez bezala, DEST froga eskolako profesionalak erabiltzeko testa da, hau da, irakasleek eta hezkuntza bereziko adituek erabiltzeko. Beraz, ebaluazioaren lehen pausua da, ostean, ebaluazio espezifikoagoa behar baden baloratu daiteke. Gainera, haurren erresistentzien eta ahulezien profila ematen duenez, eskolako garapenaren erregistro bezala erabili daiteke ere.

Haur Hezkuntzako etapan azaltzen diren zailtasunak ahalik eta lasterren esku-hartzea bilatzen du, epe luzeko porrota gutxitzeko. Horrela, DEST-2 testa Erresuma Batuko 3000 eskoletan eta beste horrenbeste eskola internazionaletan erabili da, bere helburuarekiko eragina frogatuz.

DEST-2 testa 12 azpi-frogaz (ikus Taula 12) osatzen da eta 30 minutu nahikoak dira froga guztia pasatzeko.

Taula 12

DEST-2 osatzen duten azpi-frogak

Azpi-froga	Justifikazioa	
Rapid Naming <i>Izendatze arina</i>	Irakurketa zailtasunak azaltzen dituzten haurrak geldoagoak dira irudi familiarrak izendatzean (Defizit Bikoitzaren hipotesia)	
Bead Threading <i>Bolak kiribildu</i>	Dislexia duten hurrek sarritan mugimendu astunak erakusten dituzte. Froga honetan esku-begiko koordinazio eta manipulazio abileziak ebaluatzen dira.	
Phonological discrimination <i>Bereizketa fonologikoa</i>	Ikasle geldoek eta haur dislexikoeek fonologia-abilezietan zailtasunak dituztenaren ebidentzia ugari daude. Haur hezkuntzan abilezia mota honetako zailtasunak fonomen bereizketan, errimarekiko sentsibilitatean eta lehen soinuak identifikatzeko gaitasunean ematen dira.	
Postural Estability <i>Postura egonkortasuna</i>	Dislexia dituzten hurrek zerebeloaren alterazioekin erlazionatzen diren zailtasunak islatzen dituzte; trebetasun motorrak, oreka, begi mugimenduak,...	
Rhyme/First Letter <i>Errima/ Lehenengo hizkia</i>	<i>Rhyme detection</i>	Dislexia duten hurrek errimak identifikatzeko abilezia beranduago bereganatzen dute eta hori irakurketa zailtasunen arrazoiatariko bat dela pentsatzen da.
	<i>First letter</i>	Hitz batetako lehenengo soinua identifikatzeko gaitasun hau, errima detektatzeko gaitasunarekin batera bereganatzen da eta hitzak ikasteko estrategietan parte hartzen duen azpi-abilezia garrantzitsua da.
Forwards Digit Span <i>Zenbakien atxikitzea</i>	Haurrak gogoratu dezakeen zenbaki kopuru handiena eta era ordenatuan suposatzen du. Dislexiaren zeinu klasikoa den Lan adimenarekin erlazionatzen da.	
Digit Naming <i>Zenbakien izendatzea</i>	Zenbakien eta hizkien izenak ez ezagutzeak ondorengo irakurketa zailtasunekin korrelazionatzen du.	
Letter Naming	Zenbakien eta hizkien izenak ez ezagutzeak ondorengo	

<i>Hizkien izendatzea</i>	irakurketa zailtasunekin korrelazionatzen du.
Sound Order <i>Soinuen ordena</i>	Dislexia duten haur batzuek arazoak dituzte elkarrekin aurkezten diren soinu biren ordena identifikatzeko. Horrek kontsonante aldaketak detektatzeko zailtasunak eragiten du.
Corsi frog <i>Corsi igela</i>	Adimen espaziala ebaluatzeko testa da, dislexia duten haurretan kaltetuta azaltzen dena
Vocabulary <i>Hiztegia</i>	Haurraren hiztegi oinarrizkoa ebaluatzeko froga da, dislexia duten haurrek hiztegi kopuru urria azaltzen dutelako.
Shape Copying <i>Formen kopiatzea</i>	Formak kopiatzeko zailtasunak etorkizuneko arin eta zuzen idazteko zailtasunekin erlazionatzen dira.

DEST testaren interpretazioa aurrera eramateko, testak pertzentilen ebaketa-puntuazioa eskaintzen du. Horrela, azpi-froga bakoitzean lortutako puntuazioak adinari egokiak badiren interpretatu behar dira **arriku indizean**. Irudia 16an deskribatzen denez, indize horrek 5 maila irudikatzen dituelarik;

--	Bataz bestekotik oso behera. Arriku handiaren indikatzailea
-	Bataz bestekotik behera.
o	Maila arrunta
+	Bataz bestekotik gora
++	Bataz bestekotik oso gora

Irudia 16. DEST-2 testaren emaitzen Arriku Indizea

Ikerketa honetan erabili diren azpi-frogen kasuan, "--" edo **arriku handiaren adierazlea** azaltzen dituzten haurrak baino ez dira aintzat hartu irakurketa zailtasunen zeinu lasterredun haurren lagina osatzeko, hau da, TE eta KT_1 osatzeko.

Bai BIL 3-5 testa zein DEST-2 testa osorik aztertu badira ere, haurren arriku zeinuak ebaluatzeko, bi froga horien bertsio euskaratu eta bateratu bat gauzatu da (ikus Eranskina 3, 4 eta 5). Alde batetik, bi test

horietan oso antzekoak diren frogak azaltzen direlako (hala nola bereizketa fonologikoa, errima, hiztegia, hizkien izendatzea, soinuen identifikazioa) eta bestetik, DEST testaren zenbait frogek ez dutelako behar besteko oinarri enpirikorik (hala nola, postura egonkortasuna, bolak kiribiltzea, formen kopiatzea eta Corsi Igela). Azken arrazoi horri erreparatuz, aipatutako azken froga horiek motrizitateari, lateralitateari eta adimen espazialari erreferentzia egiten diote eta marko teorikoan azaldu denez, gaitasun horiek garrantzitsuak izan arren ez dira dislexiaren zeinu lasterren adierazle argiak (McManus et al., 2010).

Beraz, Taula 13ak islatzen dituen BIL 3-5 eta DEST-2 testen azpi-frogak erabili dira dislexiaren zeinu lasterrak identifikatzeko;

Taula 13.

Ikerketan erabilitako BIL eta DEST testen azpi-frogak

	DEST- 2	BIL 3-6
Kontzientzia Fonologikoa	Test 3: Bereizketa fonologikoa	Test 2: Artikulazioa Test 7: Hitzak zenbatu Test 9: Silabak eta fonemak isolatzea Test 13: Errima Test 14: Silabak zenbatzea Test 15: Silabak ezikusi
Printzipio Alfabetikoa		Test 5: Hizkien izenen ezagutza
Hitzezko Memoria	Test 1: RAN/Izendatze arina Test 6: Digituen oroimena Test 7: Digituak izendatzea	Test 1: Hiztegia Test 3: Entzumenezko adimen sekuentziala Test 6: Hitzen ezagupena
Idatzitakoaren Kontzientzia		Test 8: Esaldien ezagupena Test 10: Irakurmenaren funtzioak
Adierazpen-eta Hartze-Hizkuntza		Test 11: Egitura gramatikala Test 12: Oinarrizko kontzeptuak


16.3. Berni softwarea

16.3.1. Berni programaren diseinua

Marko teorikoan egin den azterketaren bitartez, irakurketa zailtasunen zeinu lasterrak esku-hartzeko Berni programan zein motatako edukiak eta helburuak lortu behar diren identifikatu dira. Horrela, bost aldagai nagusi eta aldagai bakoitzeko dimentsio ezberdinak landu behar direla erabaki da.

Hala ere, marko teorikoan islatu denez, aldagai eta dimentsio horietako iragarpen balioa dislexiarekiko ezberdina da, beraz, horien pisua eta adierazpena Berni softwarean ezberdina izango da ere.


Modu honetan, ezagutza fonologikoa (bereziki kontzientzia silabiko eta fonologikoaren dimentsioak) eta ahozko oroimena (bereziki RAN, kontzientzia morfologikoa eta lan oroimena dimentsioak) etorkizuneko irakurketa arazoekin erlazionatzeko nagusitasun nabariena dituzten aldagaiak dira. Hori dela eta, lan egiteko haurrek izango duten denbora osoa (40 min./astean, 8 asteetan zehar) kontutan hartuz, aldagai bakoitza lantzeko denbora ponderatu egin da, Irudia 17an definitzen denez.



Irudia 17. Berni softwarean lantzen diren aldagaien banaketa


Ponderazio horretan, ezagutza fonologikoak esku-hartzeak iraungo duen denbora osoaren tarterik handiena izango du, %40 hain zuzen ere. Gainera, ezagutza fonologikoaren aldagaia osatzen duten dimentsioen

artean, garrantzia handiagoa emango zaie kontzientzia silabiko eta kontzientzia fonemikoari (ikus Irudia 18).




Irudia 18. Ezagutza fonologikoaren dimentsioen banaketa

Ahozko oroimenaren kasuan, izendatze automatiko arinari (RAN) eta ahozko lan-oroimenari eman zaio garrantzia gehien (%25). Bestalde, kontzientzia morfologikoak iragarpen balio handia duen arren, adin nagusiago batean bukatzen du bere garapena, beraz, ez zaio aurreko bien pisu berdina emango (ikus Irudia 19).



Irudia 19. Ahozko oroimenaren dimentsioen banaketa


Printzipio alfabetikoaren dimentsioen banaketari dagokionez, etapa alfabetikoari garrantzia gutxien eman zaio (%20), bere garapena ez baita 4 urterekin hasi behar (ikus Irudia 20).



Irudia 20. Printzipio alfabetikoaren dimentsioen banaketa


Hartze/adierazpen hizkuntzari dagokionez, nahiz eta adierazpena zein ulermena garrantzitsuak diren, Berni programan adierazpena lantzeko jarduerak gaineratzea eta horiek modu autonomoan gauzatzea ezinezkoa egin da. Adierazpena lantzeko haurren ahotsak grabatu beharko ziren eta horrek irakaslea egon beharra eta teknologia berrien gainerako trebakuntza izatea suposatuko zuen. Gainera, programaren helburuetariko batekin bat ez dator, hots, programa gelan bertan eta modu autonomoan erabiltzearen helburuarekin. Hori dela eta, adierazpena lantzeko jarduerak ez integratzea erabaki da.

Bestalde, hartze hizkuntza lantzeko dimentsioen egituran garrantzia berdinarekin landu dira hizkuntzaren forma, edukia eta erabilera lantzeko jarduerak (ikus Irudia 21).



Irudia 21. Hartze hizkuntzaren dimentsioen banaketa

Bukatzeko, *idatzitakoaren kontzeptua* aldagaian, garapen berantiarra duen hipotesi silabikoa izan ezik, gainontzeko dimentsioak maila berdinean lantzen dira (ikus Irudia 22).



Irudia 22. Idatzitakoaren kontzeptuaren dimentsioen banaketa

Ponderazio guzti horiek jardueren kopuruan eta horiek egiten jardungo duten denboran eragiten dute. Gainera aldagaien ebaluaziorako oinarriak finkatzen lagunduko dute eta emaitzen balorazio burutzea erraztuko dute.

Beraz, aurreko ponderazioak kontutan izanik, Taula 14an aldagai eta dimentsio bakoitza lantzeko maila bakoitzean garatuko diren jarduera motak eta horien kopuruak zehazten dira:

Taula 14

Berni softwarean landuko diren jarduerak maila bakoitzean

	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	5. MAILA
KONTZIENNTZIA FONOLOGIKOA 40 jarduera	ENTZUMEN BEREIZKETA 5 - Entzutezko oroimena - Soinuen sentsibilizazioa	ERRIMA ETA ALITERAZIOA 3 - Artikulazioa - Errima eta aliterazioa	ERRIMA ETA ALITERAZIOA 3 - Artikulazioa - Errima eta aliterazioa	KONTZIENNTZIA SILABIKOA 6 - Silaben bereizketa - Fonemen aldeko bereizketa	KONTZIENNTZIA SILABIKOA 4 - Silaben bereizketa - Fonemen aldeko bereizketa
	PERTZEPZIO FONEMATIKOA 3 - Pertzepzio Fonematikoa	PERTZEPZIO FONEMATIKOA 5 - Pertzepzio Fonematikoa	PERTZEPZIO FONEMATIKOA 5 - Pertzepzio Fonematikoa	PERTZEPZIO FONEMATIKOA 2 - Pertzepzio Fonematikoa	KONTZIENNTZIA BARNE SILABIKOA 5
ADIMEN BERBALA 27 jarduera	Ahozko ulermena 2 Hitzezko lan-memoria 2	Ahozko ulermena / hiztegia 2 Hitzezko lan-memoria 2	Ahozko ulermena / hiztegia 2 Hitzezko lan-memoria 1	Ahozko ulermena 2 Hitzezko lan-memoria 2	Ahozko ulermena 2 Hitzezko lan-memoria 2
	Izendatze arinaren abiadura 2	Izendatze arinaren abiadura 2	Izendatze arinaren abiadura 3	Kontzientzia morfologikoa 2	Kontzientzia morfologikoa 3
KONTZIENNTZIA	E. PIKTOGRAFIKOA 4	E. PIKTOGRAFIKOA 3	E. LOGOGRAFIKOA 3	E. LOGOGRAFIKOA 2	E. ALFABETIKOA 3

ALFABETIKOA 16 jarduera					
AHOZKO ULERMENA 10 jarduera	GOIKOAK (10)				
IDATZITAKOAREN KONTZIENTZIA 7 jarduera	KANTITATE HIP. 2 ALDAERA HIP. 2	KANTITATE HIP. 3 NORABIDEA 1	HIP. SILABIKOA 1		
GUZTIRA	18 JARDUERA	17 JARDUERA	21 JARDUERA	20 JARDUERA	ARDUERA

16.3.2. *Berni softwarearen ezaugarriak*

Behin esku-hartzearen helburuak, edukiak, diseinua eta egitura definituta, ikerketa honetako jokoak zein programa informatikoaren bitartez gauzatu zitekeen analizatu zen. Helburu horrekin, hezkuntza objektu digitalak eratzeko dauden programa ezberdinen azterketa eta saiakera ezberdinak egin ondoren (Jclic, Koolmoves, Edilim, Scratch, Atenex Constructor,...), egile-tresnak alde batera uztea eta berezko software bat eratzearabaki zen. Arrazoi nagusia egile-tresnak ez zirela esku-hartzearen helburuetara egokitzen izan zen eta horrek esku-hartzearen eragina nahasgarria izan zitekeela suposatuz zezakeen.

Horrela bada, ikerketa honetako esku-hartzea aurrera eramateko Berni softwarea *Adobe Flash Professional CS6* programaren bitartez gauzatu da. Azken hori grafiko bektorialen sorrera eta manipulaziorako aplikazioa da eta *Action Script* delakoaren lengoiaren bitartez kodea maneiatzeko aukera ematen du (Wikipedia, 2015).

Softwarearen bertsio lokalari dagokionez, Berni programa karpeta ezberdinez egituratzen den artxibo exekutagarria da eta 300 MBeko tamaina du. Ez da instalatu behar ordenagailuan, nahikoa da karpeta osoa koptatzea eta bere baitan dagoen exekutablea klikatzea programa funtzionatzen hasteko, beraz, portablea dela esan daiteke. Hala ere, geroago azalduko denez, softwarearekin online jokatzeko bertsioa ere badago.


Karpeta nagusia ireki ondoren, artxibo exekutagarri bat, maila bakoitzeko karpeta bat, ikasleen karpeta, marrazkien karpeta eta jokoaren soinu finkoak aurki daitezke;

<i>Artxibo Exekutagarria</i>	Adobe Flash Professional CS6 programarekin eginiko artxiboa da eta ez du beste aplikazio edo artxiboen beharrik funtzionatzeko
<i>Mailako karpeta</i>	5 mailetako karpetak daude eta horietako bakoitzean joko bakoitzaren baliabideak (soinuak eta irudiak) biltzen dituzten karpetak daude (arrastrar-soltar, contrarreloj, elige-respuesta-correcta, encontrar-parejas) baita bideoaren artxiboa ere.
<i>Ikasleen karpeta</i>	Karpeta honetan irakasle bakoitzeko testu artxibo bat azaltzen da, non irakasle horrek dituen ikasleak zerrendatzen diren.
<i>Soinu finkoak</i>	Jokoaren funtzionamendu orokorrerako soinuak

	azaltzen dira, hala nola, Berniren aurkezpena, akatsaren soinua, errefortzuaren soinua, irteteko soinua,...
<i>Marrazkien karpeta</i>	Margotzeko Berniren irudi batzuk biltzen dituen karpeta da baita jokoa amaitzean umeari eman diezaiokeen diplomatxo bat ere.

16.3.3. Berni programaren egitura eta funtzionamendua

Berni programak joko guztiaren dinamika azaldu eta gidatzen duen pertsonai bat du, Berni deitzen den txakurra (ikus Irudia 23), hain zuzen ere. Pertsonai hori izango da haurrak motibatzen eta errefortzua ematen arituko dena



Irudia 23. Berni pertsonaia

Aurreko atalean planteatu diren helburu guztiak lortzeko, Berni programa zailtasun ezberdinetako 5 mailetan egituratu da, aurrera egiteko maila bakoitza banan-banan gainditu behar delarik. Bestalde, maila bakoitza egitura berdinekin batekin eraiki da, bideo bat eta jarduera ezberdinak dituzten 4 joko mota;

- 8 minutuko “Woffy-ren abenturak” telesaileko bideoak, ulermena eta hiztegia lantzeko batez ere.
- “Txiki-Einstein” jokoa: Bernik egiten duen galdera entzun ondoren, haurrak hiru erantzun aukeretatik bat aukeratu behar du.
- “Narras-Asma” jokoa: Berniren galdera entzun ondoren, 5 irudietatik 3 arrastatu behar dira gune konkretu batera.
- Biki-Bikiak: 6 irudi aurkeztuta 3 bikote egitean datza jokoa.
- Txik-Txak: Haurrek denbora mugatu bat izango dute aurkezten zaizkien irudiak izendatzeko.

Egitura horren funtzionamenduari dagokionez, maila bakoitza hasterakoan, lehenengo eta behin umeek bideo bat ikusiko dute eta ondoren, 4 jokoetatik nahiago dutena aukeratzeko posibilitatea izango dute 24. Irudian azaltzen den pantailan.

Programa honetan hurrek maila batetik bestera pasatzeko aurreko mailako joko guztiak eginda izan beharko dituzte, mailen zailtasuna pixkanaka-pixkanaka igotzen doalako.

Horretarako, jokoak aukeratzaren diren pantaila berdinean (ikus Irudia 24), joko bakoitzak dituen jarduera guztietatik zenbat dituen eginda espezifikatzen da. Adibidez Txiki-Einstein joko motan 6 jarduera badaude eta umeak dagoeneko 2 egin baditu, (2/6) azalduko da. Beraz, hurrengo mailara pasatzeko nahitaez bukatu beharko ditu joko honetan egiteko dauzkan 4 jarduerak.



Irudia 24. Jokoak aukeratzeko pantaila

Pantaila bakoitzean hurrek informazioa eskuratzeko hiru iturri izango dituzte; irudia, hitz idatziak eta soinuak. Soinuen kasuan, sagua iruditik pasatzea nahikoa da irudiaren izena entzuteko. Modu berean, Berniren azalpena entzuteko, bere iruditik sagua pasatuz lortuko da.

Horretaz gain, jarduera bat bukatzerakoan ate baten irudia azalduko da goialdeko eskualdean. Ate honetan klikatuz, jokoak aukeratzeko pantailara itzuli daiteke.

JOKOZ-JOKO

Txiki-Einstein

Joko mota honetako jardueretan, Bernik galdera bat egingo du eta haurrek 3 aukeretatik irudi egokia klikatu beharko dute (ikus Irudia 25). Klikatzen duten irudia egokia ez bada markoa gorritz azalduko da eta erratu denaren soinua entzungo da; egokia bada, ordea, markoa orlegia izango da. Ondoren, Berni azalduko da zoriontzen.



Irudia 25. Txiki Einstein joko

Narras-Asma

Joko honetan Bernik galdera bat proposatuko du eta haurrak 5 irudietatik 3 egokiak arrastatu beharko ditu zonalde batera (ikus Irudia 26). Egokia ez den irudi bat arrastatzen badu irudia bere hasierako posiziora bueltatuko da. Irudia egokia bada bizkar-zorroan edo bestelako irudi konkretu batean desagertuko da.



Irudia 26. Narras-Asma jokoa

Biki-bikiak

Biki-bikiak jokoan umeak 3 bikote egiten saiatu behar dira (ikus Irudia 27). Berniren azalpena entzun ondoren, umeak bikote diren irudi bi klikatzen baditu, bikote egokia desagertu egingo da. Egokiak ez badira marko gorriaz inguratuta azalduko dira eta ez dira desagertuko.



Irudia 27. Biki-bikiak jokoa

Txik txak

Azken joko motan, haurren izendatze arinaren abiadura trebatuko da. Horretarako, umeek aurkeztutako objektu, kolore edota zenbaki bakoitzaren izena esan eta aurrera botoia klikatu beharko du, beheko

lerroko denbora agortu baino lehen (ikus Irudia 28). Guztira 6 irudi izango dituzte izendatzeko. Batzuetan aho-korapiloa errepikatzea eskatzen zaio ere, artikulazioa eta errima lantzeko.



Irudia 28. Txik-txak jokoa

Txik-txak jokoan, softwareak errakuntzen erregistroa gordetzen du. Erregistro hau, irakaslearen erabiltzaile gakoa sartu behar den pantaila berean aurki daiteke. Aurpegi sinboloan klikatuz, haur bakoitzak maila ezberdinetan eta joko honetako jarduera guztietan egindako "okerrak" (denbora agortu dituen irudiei egiten dio erreferentzia) azalduko dira (ikus Irudia 29).




Irudia 29. Txik-txak jokoko akatsen erregistroa

Bestalde, Berni programak **aldaketa** ezberdinak egiteko aukera ematen ditu; batetik, ikasle-irakasleen erregistroa moldatu daiteke eta bestetik, irudiak eta soinuak aldatzeko aukera ematen du, etorkizunean irakasleak beste jarduera batzuk sortzeko eta beste helburu batzuk lortzeko aukera emanez.

IRAKASLE-IKASLEEN ERREGISTROA


Programan irakasle bakoitzak bere kode propioa eta 30 ume erregistratzeko aukera izango du. Irakasle eta ikasleen erregistroa "ALUMNOS" karpetaaren bitartez gauzatuko da.

Karpeta honetan klikatuz, edozein irakasleren testu dokumentua KOPIATU daiteke eta karpeta berean ITSATSU, beste irakasle bat gehitzeko. Ondoren, izena aldatu baino ez dugu egin behar eta irakasle berria gehituta izango dugu (ikus Irudia 30).



Irudia 30. Irakasleen erregistroa

Ikasleak erregistratzeko, bere Irakaslearen testu-dokumentuan klikatu ondoren, ikasleen izenak zutabe batean idatzi behar dira (ikus Irudia 31).



Irudia 31. Ikasleen erregistroa


Berni programaren bertsio lokalan, ikasle bakoitzak egiten duena erregistratuta gelditzen da. Horrela, saio berri bat hasterakoan aurreko saioan egindako jarduerak eginda azalduko zaizkio. Baina erregistro hori maila lokaleko karpeta batean burutzen da, hori dela eta, nahitaezkoa da ume bakoitzak ordenagailu berdina erabiltzea beti, aplikazioa eta aipatutako erregistroa ordenagailuan lokalean gordetzen delako.

IRUDIAK ALDATZEKO

Lehenengo eta behin, aldatu nahi den irudiaren maila, joko mota eta jarduera zenbakira abiatu behar da dagozkion karpetetara klikatuz (ikus Irudia 32).

Demagun, 3. Mailako Txik-txak jokoko lehenengo jarduerako irudiak aldatu nahi direla;

- 1.º pausua: jokoa horretara abiatzea izango da; D:\Documents and Settings\bcproaza\Escritorio_Juego\nivel-3\contrareloj
- 2. Pausua: irudiak ordezkatzeko izango da, irudi horren izena edo titulua mantenduz.



Irudia 32. Irudien karpeta

Kontutan hartu behar dira irudiak izan behar dituzten ezaugarriak jokoaren arabera.

Kasu guztietan irudiak .GIF formatuan gorde behar dira eta tamainak Taula 15ean zehazten direnez, jokoaren arabera ezberdinak izango dira:

Taula 15

Berni jokoaren irudien ezaugarriak

JOKOA	OBJEKTUAK	TAMAINA
Narras-Asma	Arrastatuak izango diren zonaldea	220*300
	Arrastatuko diren objektuak	135*135
Txiki-Einstein	Galderaren irudia	225*195
	Erantzunen irudiak	225*195
Biki-Bikiak	Irudiak	165*165
Txik-Txak	Galderaren irudia	495*315
	Irudiak	495*315

Irudien tamainak aldatzeko programa ezberdinak erabili daitezke, baina *Photoshop* edo bere bertsio askearekin, *GIMP*.es programarekin erraz egin daiteke (<http://www.gimp.org.es/>).


Marrazki askeak eskuratzeko, hona hemen helbide interesgarri batzuk:

- <http://www.clipartheaven.com/>
- <http://recursostic.educacion.es/bancoimagenes/web/>

SOINUAK ALDATZEKO

Irudiak bezala, soinuak aldatzeko dagokion karpetara abiatu behar da eta ondoren soinu zaharra berriagatik ordezkatu, beti ere soinuaren izena edo titulua mantenduz (ikus Irudia 33).

Soinuak MP3 formatuan gorde behar dira eta programa ezberdinak erabil daitezke soinuak grabatzeko, hala nola, *Windows*-en grabagailua edo *Audacity*. (<http://audacity.sourceforge.net/?lang=es>).



Irudia 33. Soinuen karpeta

16.3.4. Berni-ren online bertsioa (berni.dalata.net)

Esku-hartzea martxan jarri zenean arazo nagusi bati aurre egin behar izan zitzaion; *datuak gordetzen ziren adobe flash karpetaren ezabaketari*. Hasieran Berni jokoak modu lokalean gordetzeko

(instalatzeko) sortu zen eta adobe flash karpetaaren ezabatzeak jokoaren zein jarduerak zeuden burututa eta zeintzuk ez jakitea eragozten zuen, saio bakoitzean joko hasi beharra eragiten zuelarik. Arazo horren oinarria bilatu nahian, ordenagailuen birus-babestzaileek datuak gordetzen ziren karpeta hori *cookie* edo aldi baterako fitxategia bezala identifikatzen zutela ikusi zen, saioa bukatzean karpeta ezabatzen zutelarik. Arazo hori sarean zeuden ordenagailuetan azaltzen zen batez ere, ikastetxeetako informatikoez azaldu zutenenez, ordenagailu horien babes maila askoz nagusiagoa zelako. Arazo horri aurre egiteko, ikerketa iraun zuen bitartean, tesi honetako ikertzaileak TEko haurrek saio berria hasi baino lehen, aurreko saioetan egindako guztia berregiten zuen. Beste ikastetxe batzuetan, ordea, sarean ez zeuden ordenagailuak erabiltzea erabaki zen.

Ondorioz, Berni softwareak datuak gordetzerakoan ematen zituen arazoei irtenbidea bilatzeko eta programa modu librean guztientzat eskuragarri egoteko, online jartzea erabaki zen. Horretarako, web orrialde bat diseinatu eta jokorako sarbidea erraztu da (ikus 34. Irudia); **berni.dalata.net**

Gainera, haurren aurrerapenak eta emaitzak online gordetzeko eta modu lokalean ematen zituen arazoak saihesteko, datu-base bat ere sortu da. Horrela, umeen saio ezberdinetako aurrerapenak gorde egiten dira eta urrunetik eskuragarri izan ditzake ikertzaileak.

Horrela bada, hurrengoko erremintak sortu dira:


- Web orrialdea (**berni.dalata.net**): HTML5 eta CSS3 hizkuntzetan sortuta euskarri elektronikoko guztietan ireki ahal izateko.
- Datu basea: SQL datu base bat non umeen datuak eta jokoaren emaitzak gordetzen diren.
- Administrazio web orrialde bat: ikertzaileari datu sarrera eta emaitzatar hurbiltzea errazteko.
- Artxiboak igo eta jaisteko FTP (*file transfer protocol*): Filezilla FTP hizkuntza bidez, jokoak edo umeen aurrerapenak gordetzen dituen artxiboak deskargatzeko.

WEB ORRIALDEA

“**berni.dalata.net**” web orrialdean ikerketa honetan gauzatutako ibilbidea deskribatzen da. Horretarako, weba 5 orrialdeetan banatu da (Ikus Irudia 34):

- a. Sarrera: Berni Jokoa aurkeztu eta deskribatzen da

- b. Dislexiaz: Irakurketa Zailtasunen arrisku zeinu lasterrak identifikatu eta esku-hartzearen garrantzia azpimarratzen da
- c. Esku hartzeaz: Softwarean lantzen diren abileziak eta jokoaren egitura azaltzen dira.
- d. Jolastu!: Berni jokorako sarbidea eta irakasleak zein ikasleak erregistratzeko argibideak zehazten dira.
- e. Ikerketa: doktorego tesi honetako aurkezpena eta defentsa egin ondoren, ikerketa atal honetan eskuragarri jartzea espero da. Baita ikerketa honekin erlazionatzen diren artikulua eta komunikazioak ere.
- f. Egileaz: Ikertzailearen lan-ibilbidea azaltzen da eta ikerketa aurrera eramaten lagundu dutenak aipatzen dira.




Berni

SARRERA DEA BERNI JOKOA NOR GARA IKERKETA

Ongi etorri Berni jokoaren web-orrira!

Berni Irakurketa Zailtasunen arrisku zeinu lasterrak esku-hartzeko softwarea da. Irakurketa Zailtasunak haur hezkuntzan antzeman daitezke eta horiek haurrak dislexia izango duela zehazten ez duten arren, Zailtasuna izateko joera islatzen dute. Beraz, Berni hezkuntza-softwarean aurre-dislexiaren zeinuak landu nahi dira, joko ezberdinen bitartez. Alde batetik, haur hezkuntzan eginko esku-hartze lasterrak eskola porrota ekidatu dezakeelako eta bestetik, aurre-dislexiaren zeinu lasterrak identifikatzeak eta esku-hartzeak etorkizuneko zailtasunak gutxitu ditzakeelako. Bestalde, egindako ikerketan frogatu denez, Berni joko aurre-irakurketa habileziak lantzeko tresna egokia da.



Irudia 34. Berniren web orrialdea; berni.dalata.net

DATU BASEA SQL (**berni.dalata.net/php/**)

SQL datu basearen bitartez, ikasleen datuak eta aurrerabideak sarean gordetzen dira. Datu baseak Berni softwarearen bertsio lokalak ematen zituen arazoak konpontzea ahalbideratzen du, jolasen aurrerabidea online gordetzen delako. Hala ere, datu-basera modu erraz batean sartzeko administrazio web orrialdea eratu da (ikus Irudia 35).


The screenshot shows the phpMyAdmin interface with a SQL query executed: `SELECT * FROM alumnos_alu LIMIT 0, 30`. The results table displays 13 rows of student data with columns for ID, name, professor, level, and various scores.

id_alu	nombre_alu	profesor_pro_alu	nivel_alu	arrastrar_soltar_alu	contrareloj_alu	elige_respuesta_correcta_alu	encontrar_parejas_alu
1	Mikel	1	2	0	0	4	0
2	Lore	1	2	2	1	5	4
3	Asier	1	4	3	1	0	2
4	Ibai	1	0	0	0	0	0
5	Olaia	1	0	0	0	0	0
6	Iraiti	1	0	0	0	0	0
7	Lur	3	0	0	0	0	0
8	Nafiz	3	0	0	0	0	0
9	Izaro	3	0	0	0	0	0
10	pedro	4	1	0	0	1	0
11	Mikael	5	2	0	0	4	0
12	mikael	5	2	0	0	4	0
13	prueba1	5	2	0	0	0	4

Irudia 35. Ikasleen datuak eta jarraipena gordetzeko SQL datu-basea

ADMINISTRAZIO WEB ORRIALDEA (**berni.dalata.net/app/**)

Administrazio weban ikasleen aurrerabidea behatu daiteke, maila bakoitzean eta joko bakoitzean eginikoa aztertuz. Administrazio webaren bitartez, ikertzaileak irakasle eta ikasleen erregistroa burutu dezake, ikasleek eginikoa kontrolatu eta erroreak ikuskatu modu erraz batean (ikus Irudia 36).



The screenshot shows the 'Berni jokoa' web application interface. At the top left is a logo of a bird. The title 'Berni jokoa' is in red. Below the title are navigation buttons: 'Mostrar registros', 'Buscar', 'Insertar', and 'Cerrar sesión'. A status bar indicates '13 registros encontrados (Total de registros:13) borrar_todo.(13) Página 1 de 2 1 2'. Below this is a search filter for 'alumnos_alu' and a dropdown for 'registros por página' set to '10'. The main content is a table with columns: 'Nombre', 'Profesor/a', 'Nivel', 'Juego: arrastrar-soltar', 'Juego: contrareloj', 'Juego: elige-respuesta-correcta', and 'Juego: encont...'. Each row represents a student and includes a red 'X' icon in the first column.

	Nombre	Profesor/a	Nivel	Juego: arrastrar-soltar	Juego: contrareloj	Juego: elige-respuesta-correcta	Juego: encont...
	Asier	Ainara	4 3	1	0	2	
	Ibai	Ainara	0 0	0	0	0	
	Irati	Ainara	0 0	0	0	0	
	Izaro	Itziar	0 0	0	0	0	
	Lore	Ainara	2 2	1	5	4	
	Lur	Itziar	0 0	0	0	0	
	Mikel	Ainara	2 0	0	4	0	
	Mikel	Unai	2 0	0	4	0	
	mikel	Unai	2 0	0	4	0	
	Olalia	Ainara	0 0	0	0	0	

Irudia 36. Berni jokoaaren administrazio web-orrialdea

FTP

FTP edo *File Transfer Protocol* (euskaraz Fitxategien Transferentziarako Protokoloa) edozein sistema eragileren artean fitxategien elkartrukatzea ahalbidetzen duen sare protokoloa da. RFC 959 agirian deskribatzen den protokolo hau 1971n sortu zen, eta gaur egun fitxategi transferentziarako beste protokolo batzuk existitzen diren arren oso erabilia da oraindik (Wikipedia, 2015).

Aipatzekoa da web-orri osoa *Open-Dyslexic* kode irekiko hizki motarekin idatzi dela. Abelardo Gonzalez-ek 2012an sorturiko hizki mota horrek, dislexia duten pertsonen beharrezan erantzuten dizkio. Horrela, hizkien arteko espazioa zabaltzen du, hizkien oinarriak nabarmentzen dira eta hizki bakoitzarentzat forma bakarra erabiltzen du. Aldaketa horiek, hizkien ezaugarriak bereizten laguntzen dute, hitzak arinago eta egokiago irakurtzeko aukera emanez.

16.4. Aldagaiak

Aldagaiak aldatu daitezkeen eta aldaketa horiek neurgarriak dituzten propietateak dira (Collado, Sampieri eta Lucio, 1998).

Aldagaien ezaugarriak kontutan hartuta, sailkapen ezberdinak aurkitu daitezke. Horrela bada, bere izaeraren arabera, ikerketa honetako aldagai guztiak KUANTITATIBOAK direla esan daiteke. Baina betetzen duten funtzioari so egiten bazaio, aldagai independenteak, mendekoak eta bitarteko aldagaiak ezberdinak daitezke. Hala ere, ikerketa honetan hipotesi ezberdinak planteatzen direnez, neurtzen diren aldagai mendekoak ezberdinak izango dira.

Aldagai INDEPENDENTEARI dagokionez, bai H_1 zein H_2 hipotesietan, **Berni programaren esku-hartzea** izango da aldagai independentea.

MENDEKO aldagaiak, ordea, hipotesiaren arabera aldatu egiten dira. H_1 hipotesian **Irakurketa zailtasunen arrisku zeinuak** dira eta H_2 hipotesian **aurre-irakurketa abileziak**.

BITARTEKO-ALDAGAIEN kasuan, **irakaslearen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren** eragina ebaluatzen da H_a hipotesian, aldagai hori baita aldagai independente eta mendekoen artean eragiten duena eta azken horren emaitza aldatu dezakeena.

Aldagaien konplexutasuna kontutan hartuz, ikerketa honetan aintzat hartu diren aldagaiak KONPLEXUAK bezala sailkatzen dira, aldagaiak ez direlako adierazle bakar baten bitartez azaltzen, ostera, dimentsio ezberdinez osatzen dira.

Konplexutasun horrek aldagaien operazionalizazioa gauzatzera eramaten du, hau da, aldagaiak ukigarriak, operatiboak, neurgarriak eta erregistragarriak bihurtzera. Prozesu horrek, aldagaiak maila abstraktutik zehatzera eramatea eragiten du eta horrela, aldagaiak nola neurtuko diren azaltzen du ere. Horretarako, aldagaiak dimentsioetan bereizi behar dira eta azken horiek behaketa eta neurketa errazten duten adierazleetan.

Berni programaren esku-hartzeak, irakurketa zailtasunen zeinu lasterretan eta aurre-irakurketaren abilezietan nola eragiten duen ebaluatu nahi denez, azken bi horien operazionalizazioa gauzatzeko da hurrengo lerroetan.

16.4.1. Irakurketa zailtasunen zeinu lasterrak

Ikerketaren atal honetan azpimarratzen diren bost aldagaien (kontzientzia fonologikoa, hitzezko oroimena, kontzientzia alfabetikoa,

hartze/adierazpen hizkuntza eta idatzitakoaren kontzeptua) esku-hartzea gauzatzeko, aldagai horietako bakoitzak osatzen dituen dimentsio guztiak aintzat hartu behar dira. Gainera, esku-hartzearen arrakasta zehazteko horien lorpen-adierazleak identifikatu behar dira ere. Horretaz gain, Taula 16ean aldagaien kontzeptu-definizioak eta dimentsio bakoitza neurtzeko jarraitu behar diren operazioak (definizio operazionala) zehazten dira.

Bukatzeko dimentsioak neurtzeko erabili diren frogak islatzen dira Taula 16ean (Etxanaz BIL 3-6 frogakoak eta lodiaz DEST-2 frogakoak).

Taula 16.

Irakurketa zailtasunen zeinu lastarren operazionalizazioa

ALDAGAIAK	KONTZERTU-DEFINIZIOA	DIMENTSIOAK	DEFINIZIO OPERAZIONALA	LORPEN ADIERAZLEAK	ERABILITAKO FROGAK
KONTZIENTZIA FONOLOGIKOA	Ahozko hizkuntzaren fonologikoez kontzienteki hausnartzeko abilezia da. (Jiménez, 2009)	<ol style="list-style-type: none"> 1. Errima eta aliterazioa 2. Kontzientzia silabikoa 3. Kontzientzia barne-silabikoa 4. Hitzaren kontzientzia 5. Kontzientzia fonemikoa 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Soinu talde berbera partekatzen dituzten hitzen identifikazioa. 2. Hitz batetako silaben identifikazio eta manipulazio kontzientea. 3. Silaben osagai barne-silabikoak (onset eta errima) desberdintzea. 4. Hitzak bere osotasunean ezberdintzea 5. Fonema ikusiz eta entzumenez ezagutzea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Amaieran (errima) eta hasieran (aliterazioa) soinu berdina duten marrazkiak bereizten ditu. Hitz korapiloak zuzen errepikatzen ditu. <ol style="list-style-type: none"> 1. Hitz batek dituen silabak zenbatzen ditu. Idatzitako eta entzundako hitzen arteko berdintasunak eta ezberdintasunak bereizten ditu. <ol style="list-style-type: none"> 1. Ikusi-makusi jokora jolasteko gai da. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Artikulazioa Errima 2. Silabak zenbatzea Silabak eta fonemak isolatzea 3. Silabak ez-ikusiz 4. Hitzak zenbatu 5. Bereizketa fonologikoa
				<ol style="list-style-type: none"> Silabak batuz edo kenduz hitz berriak eratzeko gai da. Esaldi batetan dauden hitz ezberdinak bereizten ditu. Entzundako fonema zehatz bat duten marrazkiak bereizten ditu / Entzundako fonemaren irudikapen idatzia aukeratzen du. 	

	<p>1. Objektuen irudikapenek in aritzeko gai da.</p> <p>2. Idazte globalak ezagutzen ditu deskodetzea gauzatu gabe: CocaCola, McDonalds, (E.L)ogografikoa)</p> <p>3. Printzipio alfabetikoaren ulermenaren hastapena ematen da: fonema-grafema asoziazioa, deskodetze fonologikoaren etapa (E. Alfabetikoa)</p>	<p>1. Haurrak idatzizko sistema ezagutzen du hitza-marrakia erlazionatzen duten piktogramen bitartez.</p> <p>2. Bere inguru hurbileko hitzak ezagutzen ditu bere osotasunaren arabera. Idazketa atal ezberdinez osatzen dela eta atal bakoitzak funtzio bat betetzen duela ulertzen hasten da.</p> <p>3. Grafemak formaren arabera ezberdintzen ditu baina identifikatu gabe.</p>	<p>1. Piktogramen ariketak egoki burutzen ditu, kode bisualetik ahozko kodera pasatzeko gai delarik. Etapa piktografikoa menperatzen du.</p> <p>2. Bere izena eta inguru hurbileko hitzak ezagutzen ditu. Etapa logografikoa menperatzen du.</p> <p>3. 5 bokalak eta kontsonante batzuk ezagutzen ditu (etapa alfabetikoaren hasiera).</p> <p>Zeinuak edota hizkiak parekatzeko eta bereizteko gai da.</p>	<p>3. Hizkien izenen ezagutza</p>
<p>KONTZIENTZIA ALFABETIKOA</p>	<p>Printzipio alfabetikoaren ulermena; elementu grafikoek ahozko hizkuntzaren elementuak irudikatzen dituztela esplizituki ezagutzea suposatzen du (Escoriza, 2004)</p>			
<p>HITZEKO OROIMENA</p>	<p>Ahoz aurkeztu den informazioa gogoan edukitzea</p>	<p>1. Hiztegi aberastasuna</p> <p>2. Ahozko prozesatze</p>	<p>1. Igarbizunak asmatzen ditu. Hitzak erlazionatzen ditu (antzekotasunak ditlu, orokortze ekintzak)</p>	<p>1. Hiztegia Digituak izendatzea</p>

<p>gaitasuna da (Magallanes, 2012).</p>	<p>arina</p> <p>3. Ahozko ulermena</p> <p>4. Kontzientzia morfologikoa</p> <p>5. Ahozko lan oroimena</p>	<p>izendatzea.</p> <p>3. Ahozko aginduak ulertzen ditu.</p> <p>4. Hizkuntzaren forma menperatzen hasten da; izenordainak, plurala, aditzak,.... egoki erabiltzen ditu.</p> <p>5. Esaldiak errepikatzeke gai da.</p>	<p>Sailkapen jarduerak egiteko gai da (objektuen bilaketa)</p> <p>2. Objektuak eta koloreak bere adinari dagokion abiaduraz izendatzen ditu.</p> <p>3. Jokoa aurrera eramateko aginduak zuzen betetzen ditu.</p> <p>4. Woffy saioretako gertaerak kontatzerakoan, gramatika, hiztegi, aditz eta artikulua egokiak erabiltzen ditu.</p> <p>5. Esaldi laburrak zuzen errepikatzen ditu. Objektuen sekuentziak orden berean errepikatzen ditu.</p>	<p>2. RAN</p> <p>5. Entzumenezko Adimen sekuentziala</p> <p>Digituen oroimena</p> <p>4. Hitzen ezagupena</p>
<p>Elkarrizketaren bitartez, egoera eta memento zehatz batetan ahoz komunikatzeko gaitasuna da.</p> <p>Ahozko adierazpena ulertzeko gaitasuna da.</p>	<p>1. Osagai fonologikoak eta morfosintaktikoak bereizteko gai da.</p> <p>2. Hizkuntzaren edukiak eta esanahiak ulertu eta espresatzen ditu.</p> <p>3. Besteekin komunikatzeko ahozko hizkuntza erabiltzen du.</p>	<p>1. Forma</p> <p>2. Edukia</p> <p>3. Erabilera</p>	<p>1. Kontzientzia Fonologikoa lantzeko jarduerak (aipatuta). Ekoiztutako esaldiak gramatika-egitura, aditz-denbora egokiak,.... dituzte.</p> <p>2. Hiztegi jarduerak (aipatuta). Aginduak jarraitzen ditu. Irudiak, objektuak deskribatzen ditu.</p> <p>3. Komikien bitartez azalduetako istorioak kontatzeko gai da. Ahoz esandako ulertzen du eta egindako galderari zuzen erantzuten du.</p>	<p>2. Oinarriko kontzeptuak</p> <p>3. Egitura gramatikala</p>

ADIERAZPEN
ETA HARTZE
HIZKUNTZA

<p>Hizkuntza idatziaren helburua eta funtzioak ulertzea</p> <p>Etapa honetan, hizkuntz idatzia ez da oraindik ahozko hizkuntzaren adierazpena, objektuaren forma simboliko bat baino.</p> <p>IDATZITAKOAR EN KONTZEPTUA</p>	<p>1. Hitzaren kontzeptua</p> <p>1.1. Kantitate hip.</p> <p>1.2. Barietate hip.</p> <p>1.3. Hip. Silabikoaren hasiera</p> <p>2. Norabidea</p>	<p>1.1. Karaktere kopuru jakin bat behar da zerbait idatzeko eta grafien kopurua objektuaren taminaren arabera da.</p> <p>1.2. Esanahi bakoitzarekiko karakteren erabilera ezberdina.</p> <p>1.3. Esaldi bakoitzari hizki bat dagokio.</p> <p>2. Ezkerreko orrialdea lehenengoz irakurtzen dela daki.</p> <p>2.1. Hitzak ezkeretik eskuinera irakurtzen direla daki.</p> <p>2.2. Goiko lerroa behekoa baino lehen irakurtzen dela ezagutzen du.</p> <p>3. Ipuin, testu, olerki,... batetako hasiera eta amaiera zeintzuk diren ezagutzen ditu.</p>	<p>1. Testuak mezua komunikatzen duela ulertzen du.</p> <p>Hitza eta letraren artean ezberdintzen du.</p>	<p>1. Esaldien ezagupena</p> <p>3. Irakurmenaren funtzioak</p> <p>1. Marrazkiak eta hitzak bereizten ditu.</p> <p>Esaldi batetako hitzak eta hitz batetako hizkiak zenbatzen ditu</p> <p>Bere izena idazten du.</p> <p>2. Testu txikitari norabidearen gaineko elementuak identifikatzen ditu.</p> <p>3. Ipuin bat maneiatzeko gai da.</p>
--	---	--	---	--

16.4.2. Aurre-irakurketa abileziak

Aurre-irakurketaren abilezien kasuan, bost aldagai ezberdin zehaztu dira: ezagutza fonologikoa, ezagutza alfabetikoa, ezagutza metalinguistikoa, abilezia linguistikoak eta prozesu kognitiboak. Era berean, eta BIL 3-6 frogaren oinarri teorikoari jarraituz, aldagai guzti horiek azpi-dimentsioetan sailka daitezke. Beraz, irakurketa zailtasunen zeinu lasterrekin gauzatu den moduan, kasu honetan ere aldagaien operazionalizazioa burutu da, aldagai bakoitzaren kontzeptu-definizioa, dimentsioak, definizio operazionala, adierazleak eta erabiliko frogak islatuz (ikus Taula 17).

Taula 17an zehazten diren datu guztiak, BIL 3-6 froga aurrera eramateko autoreek burutu duten ikerketan oinarritzen dira, beraiek islatzen duten marko teorikoa eta justifikazio estatistikoa kontutan hartuz.

Taula 17

Aurre-irakurketa abilezien operazionalizazioa

ALDAGAIA	KONTZEPTU-DEFINIZIOA	DIMENTSIOAK	DEFINIZIO OPERAZIONALA	LORPEN ADIERAZLEAK	ERABILITAKO FROGAK
EZAGUTZA FONOLOGIKOA	Hizkuntzaren soinu unitateaz umeak dituen kontzientzia suposatzen du.	1. Foneman kontzientzia 2. Hitzaren kontzientzia 3. Silabaren kontzientzia	1. Ahoz aurkeztutako hitzak berdin amaitzen baduten bereizten ditu 2. Esaldiaren unitateak diren hitzak identifikatzeko gaitasuna du. 3. Hitz batetako unitate silabikoak identifikatzeko eta kopurua zehazteko gai da.	1. Bi hitz errima mantentzen baduten identifikatzen du. 2. Ahoz aurkeztutako esaldi batetako hitzak identifikatu eta zenbatzen ditu. 3. Hitzaren silabak identifikatu eta zenbatzen ditu.	1. Errima 2. Hitzak zenbatu 3. Silabak zenbatu Silabak eta fonemak isolatze Silabak ez-ikus
EZAGUTZA ALFABETIKOA	Haurrak hizkien izenei buruz duen ezagutzari egiten dio erreferentzia	1. Hizkien ezagutza	1. Haurrak bokalak eta kontsonanteak, letra xehean zein larrrian, bereizteko gai da.	1. Aurkeztutako hizkien izenak zuzen esaten ditu.	1. Hizkien izenen ezagutza
EZAGUTZA METALINGUISTIKOA	Hizkuntza batetako egitura ezagutzeko gaitasunari egiten dio erreferentzia.	1. Hitzaren ezagutza 2. Esaldiaren eta bere ezaugarrien ezagutza 3. Hizkuntza idatziaren funtzioen ezagutza	1. Haurrak hitz bat ikusten dituen beste estimulu antzekoetatik bereizten du. 2. Zuzen idatzitako esaldiak identifikatzen ditu. 3. Irudi ezberdinetan irakurketak zertarako balio duen zehazteko gai da	1. Ikusten duena hitz bat den ala ez bereizten du. 2. Aurkeztutako elementua esaldi bat den ala ez ezberdintzen du 3. Biñetatan irudikatzen diren irakurketaren funtzioak identifikatzen ditu.	1. Hitzak ezagutu 2. Esaldiak ezagutu 3. Irakurketaren funtzioak

<p>ABILEZIA LINGUISTIK OAK</p>	<p>Ahozko edota idatzizko hizkuntza ulertu eta ekoizteko abileziak biltzen dituzte.</p>	<p>1. Hiztegia 2. Ahozko hizkuntzaren forma 3. Sintaxi-maila 4. Hizkuntzaren edukia</p>	<p>1. Irudi ezberdinetan aurkeztutakoaren izenak ezagutzen ditu. 2. Hitzak ahoz errepikatzerakoan, fonemak zuzen ahoskatzen ditu 3. Ahozko hizkuntzaren barne egitura eta sintaxia egokia den ala ez bereizteko gai da. 4. Ahozko esaearak ulertzeko oinarrikoak diren kontzeptuak identifikatzeko gai da.</p>	<p>1. Aurkezten diren irudien objektuak izendatzen ditu. 2. Hitzak zuzen ahoskatzen ditu 3. Ahoz aurkeztutako esaldiaren gramatika eta semantika akatsak identifikatzen ditu. 4. Oinarriko kontzeptuak barneratzen (ezagutu eta ulertu) ditu.</p>	<p>1. Hiztegia 2. Artikulazioa 3. Egitura gramatikak 4. Oinarriko kontzeptuak</p>
<p>PROZESU KOGNITIBO AK</p>	<p>Gizakiek ezagutza barneratzeko aurrera eramaten dituzten prozesamenduak dira.</p>	<p>1. Hitzeko oroimena 2. Pertzepzioa</p>	<p>1. Entzundako hitzak orden berean errepikatzekeo gai da. 2. Eredu-simbolo bat izanik antzekoak diren beste sinboloetatik bereizteko gaitasun pertzepzioa du.</p>	<p>1. Hitz serieak zuzen errepikatzen ditu. 2. Ereduzat ematen den sinboloa bereizten du</p>	<p>1. Entzumenezko adimen sektuziala 2. Pertzepzioa</p>

16.5. Prozedura

Ikerketa honetako 3 hipotesiak baieztatzeko edo ezezteko egin diren azterketetan, lagina, erabilitako tresnak eta jarraitutako prozedura ezberdinak direnez, hurrengoko lerroetan hiru ikerketa bezala planteatuko dira. Hala ere, guztiak erantzuten dute azken helburu orokorrera, hori baita tesi honen abiapuntua. Horrela, lehenengo ikerketan Berni softwareak aurre-dislexia zeinuak hobetzen dituen aztertuko da; bigarren azterketan, dislexiaren arrisku zeinuak dituzten haurretan Berni softwareak aurre-irakurketarako abileziak hobetzen badituen ikertuko da; eta hirugarren ikerketan, Berni jokoaren esku-hartzearen emaitzak irakaslearen irakaskuntza eraginaren independentziaz ematen diren frogatuko da.

Horretarako pausu ezberdinak burutu dira ikerketa martxan jarri zenetik;

1. pausua: Eskolekin harremanak sustatzen

Ikerketa honetan parte hartu zezaketen eskolak zehazterakoan, lehenengo baldintza D eredia zeukaten eskolak izan behar zirela izan zen. Bigarrenez, eskola batetako familien errealitatea oso ezberdina dela jakin arren, inguru sozioekonomiko ertainean kokatzen ziren eskolak bilatu ziren, familien egoera ezberdinen eragina gutxitzeko. Bestalde, Bizkaiko eskoletan zentratzea erabaki zen, Euskal Herriko errealitate ezberdintasunak gutxitu nahian. Bukatzeko, Haur Hezkuntzan aurre-irakurketa lantzeko proposamenak bideratzen zituzten eskolak behar ziren, haurrek gaitasun horiek lantzen ari zirela ziurtatzeko.

Baldintza horiek betetzen zituzten 25 eskola aukeratu ziren eta guzti horiekin lehenengo kontaktu telefonikoa mantendu zen. Hala ere, eskola guztietatik soilik 10 eskolak zeukaten baliabide materialak, pertsonalak eta funtzionalak nire proiektua aurrera bideratzeko. Ikerketa martxan jartzea ezeztatu zuten eskolek hurrengo argudioak jarri zituzten:

- Haur Hezkuntzan beste proiektu batzuekin lanean dabilta eta lan zama nahikoa dute jadanik.
- Haur Hezkuntzako 4 urteko geletan ez dago ordenagailu txokorik.
- Ez dituzte umeak edo irakasleak gai ikusten aurkezten den softwarearekin lanean aritzeko.
- Nahiz eta D eredia izan, haurren euskara maila ez da nahikoa aurkezten den programa autonomoki ulertzeko.

Baldintzak betetzen zituzten eta ikerketan parte hartzeko prest zeuden 10 eskoletan informazio saio ezberdinak antolatu ziren. Lehenengo saioa Haur Hezkuntzako zuzendariarekin, eskolako ikasketa-

buruarekin edota Haur Hezkuntzako koordinatzailearekin burutu zen eskolaren arabera; eta bigarren saioa, Haur Hezkuntzako 4 urteko irakasleri guztiarekin. Informazio saio horietan ikerketaren helburuak, Berni programaren egitura eta funtzionamendua, eta esku-hartzea nola bideratu azaltzen ziren. Gainera, saio horietan irakasleek zituzten kezkek eta zalantzak ikusita, irakasleei aurre-irakurketaren abileziei buruzko formazioa eskaini zitzaion baita irakurketa zailtasunen zeinu lasterrak identifikatzeko informazioa bideratu ere. Horretaz gain, irakasleekin egindako saio horietatik irakurketa zailtasunen zeinu lasterrak identifikatzeko baliabide bat eratzea ere erabaki zen. Hori dela eta, TROLL froga euskaratu eta gure errealitatera moldatu zen. Hala ere, 10 eskola horietatik azkenean 7 eskolek erabaki zuten ikerketa hau aurrera eramatea.

Azkenik, ikerketan parte hartuko zuten haurren gurasoei eskutitz bat bidali zitzaion, ikerketa azalduz eta frogak egiteko baimena eskatuz. (Eranskina 6).

2. pausua: Ikerketaren lagina bilatzen

Azterketa ezberdinek irakasleen iritziak etorkizuneko ikasleen hezkuntza errendimenduari erlazionatzen dituzte. Horrela, badira zenbait ikerketa irakasleen iragarpenak eta ikasleek testetan eginiko errendimenduaren emaitzak parekatzen dituztenak (Flynn eta Rahbar, 1998; Taylor et al., 2000). Azken urteetan, arlo horretan ikertzen ari diren Gijssel, Bosman eta Verhoeven (2006) autoreek ere, irakasleek Haur Hezkuntzan dislexia izateko arriskuaz identifikatutako haurrek, Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailan errendimendu maila baxua erakusten zutela irakurketaren ebaluazioan frogatu dute. Ildo berean, Snowling et al. (2011) autoreek eginiko ikerketa batean, irakasleen aurreiritzi horiek dislexia izateko arriskua gain-balioetsi egiten dituztela ondorioztatu arren, iritzi horiek fonemen kontzientzia eta izendatze arina ebaluatzeko frogekin osatzen badira, IZ izateko haurren identifikazioa espezifikoa eta sentiberagoa lortzen dela adierazten dute.

Beraz, ikerketa horietan oinarrituz, azterketa honen lagina bilatzeko, lehenengo eta behin, irakasleen iritziak hartu dira kontutan. Horretarako, irakasleei aurre-irakurketa zailtasunak identifikatzeko AHAIE galdeketa eskaini zitzaion, batik bat, beraien kezkek eta zalantzak argitzeko asmoz. Gainera, formazio saio bat ere eskaini zitzaion aurre-irakurketan parte hartzen zuten abileziei eta dislexiaren zeinu lasterrei buruzkoa.

3. pausua: Pretesta

Irakasleen aurre-irritziak berresteko, identifikatutako haurren irakurketa zailtasunen arrisku zeinuak ebaluatu ziren. Guztira, irakasleek 43 ikasle identifikatu zituzten (TE eta KT1 lagin taldeak). Horretaz gain, adin bereko eta gela bereko ausaz aukeraturiko 42 haur ere ebaluatu ziren (KT2 taldeko lagina). Ebaluaketa hori gauzatzeko bi froga ezberdinen azpi-testak erabili ziren euskarara itzulita eta egokituta, DEST-2 eta BIL 3-5 frogena, hain zuzen ere. Garatutako froga aplikatzeko 30 minutu behar izan ziren haur bakoitzeko. Haur bakoitzaren erantzunak txosten indibidual batean idazten ziren (Eranskinak 3, 4 eta 5)

Pausu honetan, haur guztien adimen koizientea ere ebaluatu zen Cattell-en "g" faktorearen testa erabiliz, arazo sentsorialak, neurologikoak edota irakurketa zailtasunekin erlazionatzen ez diren arazoak aurkezten zituzten haurrak baztertzeko asmoz.

4. pausua: Berni jokoaren sorrera

Berni programaren diseinua eta garapena lagina bilatu aurretik hasi bazen ere, pre-testeko emaitzak aztertu ondoren softwarearen azken berrikuspena gauzatu zen. 16.3. puntuan deskribatu denez, irakurketa zailtasunen arrisku zeinuak lantzen dituen jokoa da, 5 zailtasun mailetan banatzen dena eta 4 joko mota planteatzen dituena. Egile-tresnak bezala, Bernik edukiak aldatzeko eta joko gehiago sortzeko aukera ematen ditu. Horrela, egokikortasuna, aldakortasuna eta funtzionaltasuna gehituz.

Hasiera batean, Berni modu lokalean funtzionatzeko sortu zen baina ikerketaren martxan eman zituen arazoak aintzat hartuta, online bertsioa ere garatu da (**berni.dalata.net**). Bertsio berri horretan, online erregistratu eta jokatu daiteke edota software osoa deskargatu eta ordenagailuan lokalean gorde.

5. pausua: Esku-hartzea

Esku-hartzea aurrera eramateko, gela guztietako ordenagailuetan Berniren karpeta instalatu zen. Karpeta honetan, jokoen gida (Eranskina 7), pertsonaiaren marrazkiak, amaitutakoaren titulua (Eranskina 8) eta jokoa azaltzen ziren.

Ikasleek 8-10 aste behar izan zituzten joko guztia osatzeko eta orokorrean irakasleak lehen 2-3 saioetan ikasleekin batera aritu ziren hurrek jokoen dinamikan eta saguaren maneian (klikatu eta arrastatu) trebatzen ziren bitartean. Saio bakoitza 20-30 minutukoa izan zen, astean 2 saio burutuz. Hala ere, irakasleei askatasuna eman zitzairen saioen denbora-antolaketa beraien gelako programazioari egokitzeko.

Esku-hartzea iraun zuen bitartean, programak zenbait arazo

eman zituen. Alde batetik, sekuentzia konkretu baten ondoren jokia blokeatuta gelditzen zela ohartu zen, eta bestetik zenbait irudi eta soinu ez zirela behar bezala azaltzen. Bertsio berri bat instalatuta, lehengo asteko arazo horiek konponduta gelditu ziren. Hala ere, arazo nagusi bati aurre egin behar izan zitzaion esku-hartzea iraun zuen denbora osoan zehar;

- Umeen aurrerapenak modu lokalean gordetzen ziren artxibo "temporal"¹⁰ batean, eta ikastetxe askok ordenagailuak garbi mantentzeko asmoz, saioa zarratzerakoan artxibo guzti horiek ezabatu egiten zituzten. Ondorioz, umeei saioa irekitzen zuten bakoitzean, jokia hasieratik hasi behar zuten
- Ikertzailearen desplazamenduak. Umeen aurrerapenak eta emaitzak biltzeko eskoletara hurbildu beharra ekarri zuen aurreko arazoak.

Ondorioz, tesi honetako hasierako erronka software online eta librea eraikitzea bazen, azken arazo horri aurre egiteko derrigorrezko helburua bilakatu zen. Datuak online gordetzeko aukera emango zuelako, edozein ordenagailu edo dispositibotik jokatzeko aukera eskainiko zuelako eta *librea* izateak eskaintzen dituen abantaila guztiak batuko zituelako.

6. pausua: Post-testa

Esku-hartzea bukatuta haurren dislexiaren zeinu lasterretan hobekuntzarik egon baziren aztertu behar zen eta era batez, aurre-irakurketaren abilezietan aurrerapausorik burutu baziren ere. Beraz, lagin osoari berriro pasatu zitzaion DEST-2 eta BIL 3-5 frogen azpi-testak, hau da, TE, KT₁ eta KT₂ talde esperimental eta kontrol taldeei.

Aurre-testean bezala, haur bakoitzaren erantzun guztiak txosten indibidual batean jaso ziren.

7. pausua: Emaitzak aztertzen eta softwarea ebaluatzen

Datu guztiak bilduta, haur bakoitzaren emaitzak aurre eta ondorengo testetan aztertzen hasi zen. Azterketa horretan SSPS programa estatistikoa erabili zen datu guztien analisi ezberdinak burutzeko eta ikerketa honetan planteaturiko hipotesiak baieztatu ala ezetzeko. Gainera, ikerketa esperimentalaren emaitzek Berni softwarearen diseinua eta egitura ebaluatzeko aukera emango dute.

¹⁰ Berni programaren kodean, erregistroa gordetzen duen karpetak ez du izaera temporal baina sarean dauden ordenagailuek cookie edo artxibo temporal bat bezala identifikatzen dute. Oraindik ez da horren arrazoia bilatu.

Pausu honetan burututako azterketa osoa hurrengo atalean landuko da zehatz-mehatz.

17. Ikerketa esperimentalaren emaitzak

